

Hegats

Literatur aldizkaria

21/22



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur aldizkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Burua: Andolin Eguzkitza
Kideak: Iban Zaldúa
Kirmen Uribe
Maite Gonzalez Esnal

Diseinua: Txema Aranaz
Maite Gonzalez Esnal

Maketa: Larria
Curia, 25-sotoa. 31001 Iruña

Euskal Idazleen Elkarte

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
Tfa.: 943-27 69 99. Faxe: 943-27 72 88
P.E.: eie@altavista.net

ISSN: 1130-2445

L.G.: Na-359/90

Literaturbideak:

Irakurle maite hori:

Harkaitz Cano. <i>Salam Aleik, Garikoitz.</i>	9
Joseba Gabilondo. <i>Joera ez-literarioak modan.</i>	15
Jose Mari Pastor. <i>Alexandriako bideoteka.</i>	28
Gerardo Markuleta. <i>Herrimin ariketak.</i>	49

Kritikabideak:

Iñaki Aldekoa. <i>Sarrionandiaren ipuingintzaz.</i>	57
Andolin Eguzkitza. <i>Nafarroa eta Literatura.</i>	77
Jon Kortazar. <i>97ko kaiera.</i>	88

Liburu-iruzkinak:

ANTTON LUKU. Aingeru Epaltza.	113
BERNHARD SCHLINK. Jasone Osoro.	116
IGOR ESTANKONA. Garikoitz Berasaluze.	119
BOROBÓ. A pista de O lapis do carpinteiro	121

Literaturbideak



Harkaitz Cano

Joseba Gabilondo

Jose Mari Pastor

Gerardo Markuleta

Susah, 98-IX-25

Salam Aleik, Garikoitz estimatu hori:

Lau egun daramatzagu Tunisian eta Susah hirian dagoen gure hotela, giri kapitalista nazkagarrientzat egina, neurrira egindako soinekoa bezain ongi egokitzen zaigula onartu behar dut. Hiriko zinematokietan Jean Claude Van Dammen filme bat dago eta *Titanic* berbera ere bai. Ez dut ulertzen jendeak askotan esaten duen hori, alegia, liburua nola bukatzen den badakiela eta ez duela zirrarak sortzen horrelako liburu bat irakurtzeak. *Titanic* nola bukatzen den ere badakite bada, eta ez diote horregatik filme hori ikusteari uzten! Aitortu behar dizut neronek ez dudala oraindik ikusi: Bigas Lunaren *La camarera del Titanic* ikusi nuen, hura bai, eta egia esan, gustatu zitzaidan. Norbaitek aipatu du arabiarrez filme bat ikustera joateko plana, baina azkenean ez da inor animatu. Woody Allenen bat balitz sikiera, izango luke bere grazia... Baina elkarri muturra hautsi edo ito, hori berdintsu izango da hizkuntza batean edo bestean. Izan ere, *The English Patient* eta *Star Wars* filmetako hainbat pasarte Tunisiako basamortu eta inguruetan errodatu ziren, eta gehiago hitz egin diezazuket kasik

une honetan zinemaz beste ezertaz baino. Dena den, orain arte irakurritakoetatik Tunisia oso europartuta (irakur bedi: iparramerikartuta) dagoelako inpresioa atera badezakezu ere, ez da erabat horrela. Hainbat tokitan, Europa-USAKo elementuen lise-riketa partzial, traumatiko eta bat-bateko bat ikusten da zenbaite-tan, baina baita palmondoen sustraiekin giltzak egin eta altxorrak gordetzen dakitenen bizimodua eta izakera ere.

Zure eskaerari dagokionez, Tunisiako literaturari buruz ez dut oraindik ezer garbirik atera. Liburudendarik ez dugu bazterretan ikusi, supermerkatuetan saltzen diren ingelesezko *best-sellerak* baino ez. Literaturara lerraturik, errepide-baztèrrean auto-stop egiten duenaren gorputz-keinuarekin olagarroak saltzen dituzten gazteak ikusten direnez –hatz lodia erakutsi beharrean olagarroak jasotzen dituzte eskuaz–, Herman Melville, Joseph Conrad edo Jack London etortzen zaizkit burura lehenbizi. Paul Bowlesekin batera, nola ez. Hura Tangerren bizi bada ere, hark kontatutako hainbat gauzen antza hartu diet hemen ikusitakoei. Nik irudikatu bezalakoak dira ileapandegiak ere, eta hemen bai, gurean ez bezala, jendeak bizarra egiten du bizarginarenean. Gizonezkoek arratsaldero pokerrean egiten dute *shisha* izeneko pipa erraldoie-tan marrubi zaporeko tabakoa pipatuz, lasai antzean. Emaku-mezko askorik ez dugu egundo ikusi, baina ikusi ditugun apu-rrak, kafetxe eta *shisha* erretokietatik urrun gehienetan, belo eta tapaki berezirik gabe ikusi ditugu ia beti.

Literatura idatziaz ezer jakinarazi ezin dizudanez, ahozko lite-raturaz behintzat hitz egin behar nizuke, ahozko literatura baita hemengo zokoetako saltzaileek darabiltena. Susahko zokoan pos-tu bakarra dago salneurri finkoak dituen eta bertan, ahozko literatura bereziki menperatzen duen saltzaile trebe bat topatu dugu. Dendara sartu bezain pronto nongoak garen usaindu uste izan du nonbait, eta hor hasi zaigu, Gaztelako errefrauekin jo eta

su: «cuando el grajo vuela bajo... dime con quin andas... a quien a buen árbol se asoma... más vale dinar en mano... en casa del herrero...». Eta guk jarraitu egin diogu esamolde bakoitza: «hace un fro del carajo, y te dir quin eres, buena sombra le cobija, que ciento volando, cuchillo de palo». Bezeria dendabarruan edukitzeko salmenta-teknika itzela errefracuen hori, inon halakorik bada. Baina zein izango da gure harridura, halako batean, euskaraz sumatu gaituenean bere aurpegia nola piztu den ikustean: hasi ez da bada, Spike Leeren biki arabiarra dirudien gizasemea, euskaraz dakizkien guztiak botatzen: «bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, agur, erreala, zozoak beleari ipurbeltz...». Azken esaldi horren esanahia galdetu digu gero. Azaldu omen zioten bere garaian, baina ez oroitzen nonbait... Hala inprobisatu du norbaitek gazteleraz, eta idatzi ere bai Spike Leek salmahaipean gordetzen zuen libretatxoan: «un pjaro negro le dice a otro pjaro negro que tiene el culo negro». Gero, esaera berriren bat ikasi nahi zuela setatu da eta paper batean zera jarri diogu, gaztelerazko gutxigorabeherako baliokidearekin: «hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako...». Tozak esaldia. Luzea aukeratu guk propio, gaiztakeria apur batekin. Gai izango ote da hori memorian gordetze-ko? Afalostean izan dugu erantzuna. Euskaldun talde bat topatu dugu Samara diskotekan eta zera kontatu digute adrenalina arrastoto bat oraindik ezpainetan zutela: zokoan topatu dutela mairu bat euskaraz hizketan hasi zaiena. Eta zer esango eta esaldi luze bat, aizue: «Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik». Ondo ikasi du ikasgaia, beraz. Lau eskorpioi disekatu erosi omen dizkiote Spike Lee sinpatikoari.

Eskorpioiena izurritea da hemen: hiru dinaretan saltzen dituzte eta edonork esango luke Tunisiako lupu guztiak harrapatu dituztela honez gero disekatzeko, edozein tokitan daude-eta.

Esan bezala, Susah hirian dugu gure koartel jenerala: lehen egunean, Susahtik kilometro gutxira dagoen Monastir hirira egin genuen bisita. Bertakoa da Tunisiako lehendakari ohia: Habib Burgiba izeneko pertsonaia misterioitsua. Hasieran hilda zegoela uste genuen, mausoleo ikaragarri bat baitu Monastir jaioterrian. Burgiba lehendakari ohia lehendakari ona izan ote zen galdetu genionean keinu bitxi bat egin zigun taxista batek: kopetetik okotzeraino pasa zuen esku ahurra, betazalak jaitsiz. Frantsesa zekien laguna beste taxi batean zihoan eta ez genion beraz taxistari oso ongi ulertu, baina enbalsamatuta zegoela esan nahi izan zigula iruditu zitzaigun. Hurrengo egunean ordea, hara non aurkitzen dugun Burgiba hori ez dagoela hilik, mausoleoa bizirik delarik eraiki diola bere buruari, herriari eskaini dizkion zerbitzuak aski iritzita, nonbait. «Nire herritar ahanzkorrek agian hiltzen naizenean omenaldirik egingo ez didatenez, egin diezaiodan neronek neure buruari bizirik naizen artean».

Lehendakariekin jarraituz, Ben Ali lehendakari berriaz ere hitz egin behar nuke, bazter guztietan ageri baita beraren irudia: egunkari-kioskoen gainean, fruta-merkatuetan, kafetxeetan, pedaloak alokatzen dituzten hondartza-postuetan... Guk *Bretxakoa* deitzen diogun merkatu bateko arrandegi orotan ere bai, bere posterra zoko guztietan. Gero, sardinzahar bat etxera eraman eta Ben Ali lehendakaria platerean duteneko irudipen intimidatzaileak izango dute, ziur aski, tunisiarrek. Norberaren irudia toki guztietan begirale jartzeak badu eragin bat behintzat: inor ez da ausartzen zutaz gaizki hitz egitera. «Mejor algo que nada» aipatzen dute askotan tunisiarrek lehendakariak egindako lanei buruz ari direla. Ben Ali sardinzaharretan berraragitua badabil, Burgiba lehendakari ohia ere ez da herrera eta zelatari jarraitzen du txanpon eta txartel guztietan. Honi buruz ere, inor ez da gaizkiegi hitz egitera ausartzen, nahiz eta zirto gaiztoren bat edo beste entzuten

den hor zehar. Tunisiako dibisak kanporatzea legez kanpokoia denez, zera kontatzen dute Burgiba honi buruz: beraren emaztea Genevako aireportuan harrapatu zutela bi maleta 50 dinareko txartelekin mukuru zeramatzala. Aduanako poliziak galdeginik ea ez al zekien dibisen kanporatzea delitu zena, honela erantzun bide zuen Habib Burgiba lehendakari ohiaren emazteak: «Zer dibisa gero? Hauek nire senarraren argazkiak dira...».

Lehen aipatu dudan Samara diskotekan suge-sorgintzaile baten *showa* ikusi genuen bart. Patetiko samarra, egia esan. Zuk hain gustuko dituzun ra musikako Cheb Mami, Khaled eta beste hainbaten bertsio makailaderoekin gozatzen dugu gauero, hori bai. Lata da gero hemengoek dantzarako duten erritmoa... Neska europar guztiak xaramelatuta dauzkate beren mugimenduekin. Egunargiz ere, egundoko irudiak ikusten dira hondartzan: mutil tunisiar gazteak, beren begi bereberetako eztiak neska alemaniarrekin ligatzen, begi distiratsuak alemaniarren begi urdinetara hipnotikoki iltzatuta beti; eta hondartzako petrilean, handik dozena bat metrora, bi haur, hamar-hamabi urtekoak, eszenari arretaz begiratzen diotela. Kaleko eskola eta kaleko *liluratura*, konpai Gari!

Bihar basamortura joatekotan gara. Seihun kilometro inguru egin behar ditugu hegoalderantz. Hamahiru mila *errupia*ko saskataia ganibetatu digute txango antolatu honen truke. Irudikeria aparte zen, beste bi mila eta bostehun pezetako gehigarri bat ordaindu beharra zegoen, eta irudikeriarik gabe konformatu beharko dugu biharkoan.

Hor su-eten oihartzunak dabiltzan honetan, beste pasadizu bat ere badaukat zuri kontatzeko: duela bi egun, Susahtik bi ordura dagoen Tunis hiriburura joan ginen trenez. Itzulerakoan, erdi-lotan gentozen beira puskatuen zaratak asaldatu gintuen arte. Gure inguruko bidaiari guztiak pertsianak jaitsi eta kortinak hersten hasi ziren harrapaladan. «Zer gertatu da?» hasi ginen galdezka.

Inork ez zigun erantzun, baina, gure aurrean, hiruzpalau eserleku aurrerago, eskubeteko harri kozkor batek egundoko zuloa egina zion treneko leihoari. Zorionez, ez zihoan inor pare hartan eserita. Ez genuen berriro lorik hartu Susahra heldu arte. Inguruan eserita geneukan bidaiari batek zera esan zigun: haur batzuk izango zirela, jolasean, gertatzen zela, noizedonoiz. Ingalaterran *Trains-potting* deitzen diote trenak zenbatzean datzan jokoari. Zein izen ote du treneko leihoak harrikatzean datzan kirol honek?

Arratsa hodeiertzeko lerroen gainera zetorren bitartean, gure bagoiko pasabideko beira puska apurtuei begira, harri kozkor horren gainean aritu ginen hizketan. Harri horrek poema iraultzaile bat bildurik ote zekarren, edo ez ote ginen –guk jakin gabe– Ben Ali lehendakari-sardinzaharraren aurkako matxinadaren hasieraren lekuko izan.

Esandakoa, sentitzen dut hemengo literaturari buruzko zantzurik ezin eskaini izana. Turistegi portatzen ari naiz egun haue-
tan, eta denbora faltaren eta lagunekin egon nahiaren aitzakia jar nezake, edozein kasutan. A, beste gauza bat, Gari aixkidea, Koranaren edizio zahar bat erosteko eman zenidan dirua dinaretara aldatu eta datil-likore botila bat erosiko dizut zuk eskatutako Koranaren orde-
z. Gozoa da likore hau eta nahiko fina, berde kolorekoa. Ez kezkatu, liserigarri egokia da-eta (Korana baino liserigarriagoa, nik uste). Lizentzia poetiko hau onartuko didazulakoan nago. Azken finean, dena negoziatzen den herrian gaude. Datil-likore botila bat beraz, Koranaren truke.

Ma' Salama,
Harkaitz.

Kaixo Aizpe:

Azken bizpahiru urtetan liluraturik nago hemen hedatzen ari den literatur korronte berri batekin. Korrontea ezezik iraultza ere badela esan du New York Times-ko kritikolari batek. Ahaztu lehenaldiko etiketa tekniko edo harroak (esistentzialismoa, errealismo magikoa, *nouveau roman*-a). Ez, korronte honek oso izen bakun bezain eskandalagarria du: oroitzapena. Edota teknikalariek dagoeneko zeresana izan dezaten, erants diezaizkiogun beste bi hitz: aitortpena, autobiografia. Alegia zerari buruz ari naiz, oroitzapenen narrazio pertsonal eta «apolitikoa», ni-aren epika murriztua, biografia «auto» handi batekin aurrean.

Egia esan, izenak ez dio gehiegi ardura, izan ere moda berri honek, literatur korronte eta errealtate berri bihurtzen ari den praktika berri honek, ez du izena bakarrik. Norbaitek hemen auto-patografia ere deitu dio, patologiatik oso gertu baitabil. Nik neuk autopornografia ere esango nioke, hain baita eskandalosoa, edota izenak asmatzen hasita, zera ere esango nioke: arkeologia familiarra. Izan ere psikoanalisitik gertu dago idazkera hau, baina halako izpiritu etiko eta kronista batez horniturik datorkigu.

Hauek ez dira inperio mesopotamiarraren kronikak, Smith familiarenak baino; bi kasutan bortizkeria eta dekadentzia narraigai amankomun eta giltzarri gertatzen badira ere. Izan ere literatura berri honetan oraindaino idatzi diren aitorenpenik beldugarri, infame, bitxi, errebelatzaile, lotsagabe eta egiatienak kronikatu baitira, eta askotan oso literatur emaitza fin, landu, berri-tzaile, eta pasionatuekin.

Dagoeneko susmoa ere hartuko zenion nire idazkerari berari, izan ere Gabriel Arestiren garai bateko saioez gero ez dut uste halako estilo «neo-leizarragar» eta latinzalerik irakurriko zenuenik euskaraz, ezta? Bada pentsa ezazu «amerikatartutako euskara» irakurtzen ari zarela eta beraz ezin egokiagoa duzula errealitate literario amerikarraz mintzatzeko.

Ez dut uste XIX. mendeko eleberri errealistaz gero literaturak halako pasiorik ezagutu duenik, eta jakina pasioa dagoen lekura beti eskandalua, kritika eta kondena inguratzen dira. Modernismoa eta bere formalkeria guztiak eskandalu baziren ere (Joyce buru genukeelarik), han geure barnemuinak, geure arima, idazketatik at uztearen maximak eragiten zituen eskandaluak. Egungo autobiografian aitzitik kontrako ihardunak sortarazten du esana: arima bere hutsean, bere errealitate eta miserian, oso-osorik harrrapatu eta botilatzearen betebeharrak konpultsibo eta irudikatuak bultzatzen baitu idazketa hau. Irudikatua dela diot zeren edozein psikonalistak esango dizun bezala, ez dago gure izatea «oso-osorik» hatzematerik, osotasunaren irudipen hori beharrezkoa bazaigu ere. Intzestuen, alkoholismoaren, depresioaren eta perbertsioaren kronika mikatz hauek idazketan bertan lortu dute miseriararen edertasun sublimea, ia irakurrezina, gatibatzailea. Blanchoten *La littérature et le mal*-en tesiak atzera datoz oroipenetan. Baina oraingoan artistek ez dute gaitza bilatzen, okerra barnetik ateratzen da eta nolabait eutsi egin behar zaio, idazketan gordez. Ar-

tikulu honetan, ur mineralik dotoreenak baino botila ederragotan datozen arima oinazetu eta beldurgarri hauen berri eman nahi dizut, kasu hauetan zenbait produktuk, hala nola zigarroek, etiketan daramaten ohar berberaz horniturik: «edukinak zure osasunari kalte egin diezaioke.» Gaurkoan, halako bi kronika gomendatu nahi dizkizut: Dorothy Allison-en *Bastard out of Carolina* eta Dave Sedaris-en *Naked*. Gainera esango dizut, Dorothy Allisonekin afaldua naizela eta beraz arazoa gertutik ezagutzen dudana «auraz» idazten dizudala.

Jakina, hau ez da “Paristik natorren artista bat» kronika; hain liluragarri bezain higuinagarria gertatzen zaizkigun beste Paris amerikar anitz horietatik dator: New York, Filadelfia, Washington, San Franzisko, Los Angeles, Chicago. Eta jakina, Faulkner eta gero Paris amerikarretatik datorren guztiak kalitate gutiko fama duenez, alegia literatura merkearen usaina (oraingaino inork ez du masa-kulturaren ebanjelio berria gure artean sinetsi), bada defentsa batekin hasi behar. Literatura hau benetan goimailakoa dela esanez ekin behar, gero gauzak konplexuagoak direla aldarrikatuz geure buruak kontraesango baditugu ere. Izan ere historiazio aspergarritan luze ihardun gabe gogoratu behar da, dena den, aitopenaren eta oroitzapenen praktika kristauak egiten diola bide eleberri modernoari. Ez ahantzi San Agustinekin hasi eta pikareskarekin jarraituz, Rousseau eta Baudelaire arte, autore guzti hauek beren aitopenak idatzi zituztela eskandalu eta kritika gogorrez inguratuta. Beraz, behingoz behintzat, ez dezagun har moralizatzaile kontserbadoreen alde. Behingoz izan gatzazkion fidel historiaren alde ekoizle eta berritzaileenari.

Estatu Batuetako azken joera literarioa joera ez-literarioa da

Andy Warholek aspaldian esan zuen guztiok hamabost minutuko fama ezagutuko genuela behin geure bizitzan. Galdetzekoa

da Euskal Telebistan ateratzea benetako fama den, edota fama New Yorkeko Sohon beren fortunak egin dituzten artisten eskubide berezia izango den, historiara pasatu diren hiltzaileekin batera; hala nola Ted Bundy edota Franco (honek zoritxarrez bere hamabost minutuei luzeegi iraunarazi zien, historiak berriro bere hamabost minututara inoiz erreduzituko badu ere). Egia esan gainera, hamabost minutuena errebisatu egin behar da, izan ere gaur egungo albistarietako fama, hamabost segundotakoa da zehazkiago. Oker ez banago zeu ere atera zara inoiz telebistan hamabost segundoz (nik orain artean demaseko zoria izan dut eta ez naute harrapatu). Halere, irudika ezazu fama demokratiko warholiarra liburueta ere hedatuko bagenu eta guztioi prometatuko balitzaigu ehun eta berrogeitamar orriko liburu ki argitaratuaren fama, potentzialki eternala. Bada hor nonbait gabiltza. Izan ere Estatu Batuetako azken joera literarioa joera ez-literarioa da: norberaren istorio transzendentziagabearen idazketa. Hitz batean: literatura guztioi erakutsia.

Literaturak ezagutu duen birarik demokratikoena dugu berau: literatura bere mugara eramana. Izan ere guztiok geure oroipenak idatziko bagenu zenbat irakurle ezagutuko genituzke geure buruaz gainera? Hor: literaturaren birarik demokratikoenak literaturaren momenturik solipsistikoena ere iragartzen du. Literaturarik demokratikoena zera bihurtu baitzaigu, literaturarik apal eta arruntena, pretentsiorik gutienekoa eta era berean gertuena. Esamesa, zera aitorrezina, eta bekatu isila literaturaz jantzita manifestatzen zaizkigu oroipenetan eta berau bihurtu zaigu literaturarik berri-tzaileen, iraultzaileen eta literarioena.

Nolabait lurrazaleko herririk kapitalista eta indibidualistenak, exazerbazio ia ironikoz, literaturarik «sozialista eta demokratikoena» eman digu. Are gehiago, zer sozialista-errealistagorik nork bere buruaz dakiena kontatzea baino bere muga guztiekin? Zer

marxistagorik nork bere baldintza material eta historikoak pape-rean jartzea baino? Zer iraultzaileagorik gure «ni» materialak guz-tion aurrean aurkeztea baino, geure kamarada eta kideek etsamina eta azter ditzaten? Zer iraultzaileagorik ni-a, objekturik ez-merka-turatu eta pribatuena, burjesiaren sancta sanctoruma bera, guz-tiontzat argitaratzea baino, guztiok sal eta eros dezagun? Stalinen ametsik preziatuena nolabait mozorro kapitalistaz jantzita itzuli da geure artera: biztanle bakoitzak bere burua uzten du agerian du estatuaren aurrean, bortxarik gabe, KGBrik gabe, eta idatziz gainera.

Eta zer geratzen da bada merkaturatu gabe zegoen ni-a erosten eta saltzen hasten garenean? Hor! Kapitalismoaren eta sozialis-moaren mugak desegiten, ezabatzen, eta elkarrekin fusioatzen hasi dira, milurte berriaren sarreran lanbro demokratiko eta ia fantastiko-mistiko berria hedatuz, bertan barnera gaitetzen, urduri eta aiduru.

Izan ere literatura berri honek, niaren literaturak, ironikoki bi amaiera dakartza: literaturarena berarena eta gizarte amerikar ka-pitalistarena. Azken hamar urteotan edo, fikzioak atzera egin du Estatu Batuetan. Fikzioak zuen aura literarioa aire finean desager-tu da, biztanle on eta leial bakoitza bere istorioa, istorio apal eta indibiduala, kontatzen hasi den bezala. Fantasiarik eta irudime-nik sortzaileena ez dago jada idazle profesionalen kontrolpean baizik eta profesional ez diren bat-bateko idazle eta indibidualiza-tu berrien esku baizik. Alde horretatik fikzio ofiziala musika aban-guardiakoak aurrez ezagutu duen zorte bera pairatzera deitua da: asperdura eta desinteresa, alegia, masen ahantzura errukigabea; agur Pierre Boulez, agur John Updike. Norberaren historia baizik kontatzen ez dakiten idazle liburu-bakar eta monologikoek lapur-tu diote literaturaren aura eta pribilegioa idazle profesionaleri: ongietorria John Smith! Sasoi batean 60ko hamarkadan egiten

ziren idazketa-lantegiak eta mintegiak berriro datoz atzera, baina lorerik eta maitasun enblematikorik gabe, urteetako tristezia, desesperoa, beldurra eta gorrotoa heroi berri bihurtzera.

Irakasleek ere, azkenean, arerioari amore eman diote

Eta jakina unibertsitateko literatur irakasleekin hasi eta idazle konsagratuekin amaitu, alkandora-urratzeak ugarituz joan dira literaturaren tenplu ondo zainduan, neu ere barne. Beste erremediorik izan ez dutenean, irakasleek ere, azkenean, arerioari amore eman diote eta berauek ere beren autobiografiak eta oroitzapenak idazten hasi dira, literatura ofizialari agur eginez, agian literatura demokratiko eta monologiko berri honetan leku berririk topatuko duten esperantzan, edota desesperoan. Duke University-n irakatsia naiz eta bertako literatur irakasle ugari moda berri honen maisu bihurtu dira. Dena den literatura joan zaigu, 29ko Wall Streeteko hondamendiaren antzera, oraingoan akzioak sinbolikoak, narratiboak, badira ere.

Baina ez bakarrik literatura baizik eta gizarte amerikar kapitalista bera ere desagertzen hasi zaigu literatura pertsonal eta isolatzaile honen ondorioz –Borgesek bakarrik osoki mirets lezakeen magia ia tlöniarraren bidez (Tlön, Uqbar, Orbis Tertius)–. Izan ere hain indibidualista eta pribatua den gizarte honek berak bere zerarik indibidual eta pribatuena, bere zerarik salezinena, salmentan ezarri du. Beste guztia erosgarria denean (sexua, odola, Titanic itsas-hondoan bertan zuzenean ikusteko aukera, haurgintzarako amordearen sabela ni-a da azken muga konkistatugabea. Oraingo honetan John Wayne ez doa mendebaldeko, oraingoan barnerantza doa, bira *celinear* oso xeblebrean, *au bout de moi-même*, Estatu Batuetako mendebaldeko frontera mitikoa nolabait inplosioz edo, ni-rantz, barnerantz, berbideratu bailitzan.

Irakurketa ere niaren ukapenean dabil

Ez da kointzidentzia interneta ere Estatu Batuak beti behar duen muga mitiko berriaren sinbolotzat agurtua izan bada, zabal-kunde kapitalistaren muga berrizat, jakina. Internet-a ere niaren negozioan dabil. Internet-a horixe baita: gizabanako bakoitzak bere helbide elektronikoa personalizatua izango duen mugalde berria, gure interaktibitate guztien erro elektronikoa bihurtuko den herriko plaza birtualean gune pertsonalizatu berria. Guztiok, eta jakina entresek ere, beren ni elektronikoa eskuratuko duten promesa hiperreala baino ez da interneta. Bestela egin frogatzen: non bizi da Elizabeth Williams ezezaguna? Bere helbide geografikoa topatzeko egunak beharko dituzu. Bere helbide elektronikoa topatzeko aitzitik bost segundu. «Kaixo Elizabeth, ni ez nauzu ezagutzen baina zure ni-aren helbidea topatu dut internetean eta gutun bat idaztea erabaki dut: ni x naiz, zure ni-az zer esan diezadakezu?»

Nia salgai jarri dutenen epika

Eta ni-a salgai jarritakoa? Akabo indibidualismoa, akabo pribatasunaren ilusioa, akabo kapitalismoa! Kapitalismoa hil da, bizitza luzea kapitalismoari! Ez gara jada jendea baizik eta gauzak, merkantziak salgai. Hori da XX. mendeko epika berria: ni-a salgai jarri duten jendearen epika munstrotsua; hori da biografiaren demokratizazio estatubatuar berri honek dakarren azken promesa eta iragarpena. Eta gainera promesa utopikoa dugu berau, ni-a saldu eta gero bizitzen segiko dugun agindu mesianikoa-, bizitza ni-rik gabe hobe izango den ebanjelioa hain zuzen. Literatura hau zera baino ez baita azken finean, ni burjes eta zaharkitua atzean uzteko erritual kalkulatu. Amerikar yankiak oso manio-bra berritzailetan dabilta: ni-aren azala kendu eta ni-gabeko gizaki erabat merkaturatu berria sortzeko prozesuan hain zuzen.

Barre egiezu, baina sasoi batean, oraindik «la reserva espiritual de occidente», edo «reserva revolucionaria» ginenean (mesianismo aukeraketak gustu kontua dira), amerikarrek bikinia asmatu ziguten, ni-aren burmuinera ailegatzeko lehen pauso bezala agian. Eta gaur egun zoaz Donostiako Kontxara abuztuan eta zeuk esango didazu erreserba espiritual-iraultzaileak ala bikinia ikusten dituzun. Alegia oroimenen literatur moda beste maniobra inperialista yanki oso kalkulatu bat da. Alabaina ez dugu erresistentziaren logika zaharkituan erori behar. Oroimenen Mr. Marshall berria badatorkigu eta apustu zaila zera dugu, oroimenen negozioa nola gutartu, nola geure negozio bihurtu. Ba al duzu bikinirik? Nik praka motzik bai.

Hitz egin dezagun liburuez

Gatozen liburuotara. Hasteko esango dizut bi liburuoi buruz mintzatuko banaiz ere, liburu on anitz daudela. 1996an bakarrik 200 bat oroimen edo atera omen ziren eta harrezkero niaren fabrikazio kronistikoa ez da geratu. Beraz neuk bi hauek gomen datzen badizkizut ere, kasuan kasuko, hasierako enpatia batek gidatu behar zaitu liburuotara; zeure ni-aren antzekoa izango den ni ispilutzailea topatzera bultzatzen zaituen enpatia hain zuzen. Izan ere, fetitxeekin eta perbertsioekin gertatzen den bezalaxe, oroimenekin ere norberaren antzekoak diren esperientziak liluragarriak izaten dira baina norberarenarekin zerikusirik ez dutenak; aitzitik, gogorak, beldurgarriak, jasanezinak, edota aspergarriak gertatzen zaizkigu. Kasu hauetan gainera, idazketaren beraren edertasuna izugarria bada ere, estetikoki ezinbestekoa bada ere, oroimenen tragediek oso gogor egiten dute irakurketa. Gogora ezazu literatura hau ez dela unibertsalista, baizik eta pertsonalista. Azkenean errealismoaren estetika hemeretziarra (Austen, Balzac, Galdos etab.), klase batek kontsentsuatutako esperientzia

pertsonala zen, amodio burjes heterosexual domestikoaren esperientzia estetizatua. Aitzitik kasu hauetan, oroimen bakoitzak bere idazkera propioa sortzen du. Finean oroimen bakoitza genero berri bat izan litekeela postula daiteke, izan ere bi «ni» diferentzeren istorioak ezin dira modu berean kontatu.

Dorothy Allison-en *Bastard Out of Carolina*, kasuko, azken aldian irakurri dudan oroimen-aleberririk ederretakoena da, idazkerak berak eremu berri batera, eremu ezezagun berri batera, pasioz eta intrigaz eramaten zaituen lanetakoa da. Alabaina eziezadazu eska berriro irakurtzekorik. Ezingo nuke, izan ere bertan kontatzen den intzestuko istorioa gogorregia da eta ez da nire historia, ez da nire oroipena, ez da nire ni-a, edota antzekoa. Sedarisekin eta bere *Naked*-ekin gertatzen den bezala, bera da umorerik beltz miserableena istorio gozo, barregarri eta tipitan barneratzen eta transformatzen dakien idazlerik kontsagratuena. Bera da maisua. Baina berriro ere, eziezadazu eska liburua berri-rakur dezadan. Zail da besteen tragediak birritan entzutea, bizitzea, esperimintatzea.

Morroiak eta etsaiak; historiaren berri-dazle

Banoa hurbilduz liburu bakoitzera. Zer dute beraz oroipenok komunean, ni-az gain. Guztiak dira idazlearen familien istorioak. Hau da arrazoa genero hau «familia arkeologia»-tzat bataiatzeko. Zibilizaziorik nagusia, barnetik bizitzen denean, irabazleen edota pribilegiatuen bantotik, erabat liluragarria, disdiratsua eta paregabea dirudi. Horregatik zibilizazio bakoitzak jainko (multzo) bat ezartzen du erdian. Ez bakarrik zibilizazioa justifika dezan etsaien eta morroien aurrean, baizik eta bertako biztanleek beren buruen zentzu transzendentea izan dezaten. Inperialismoa beti da transzendentea. Dena den, eta zibilizazioa beherantz hasten denean, morroiek eta etsaiak boterea hartzen dutenean, zibilizazio hartako

historia berridatzi egiten da beti, eta berridazketa horretan beste alde azpimarkatzen da. Botereak beti dakarren sarraskien, odolkerien, bortizkerien, barbarismoen kronika azaleratzen da.

Eta kronika berri hauetatik atzerantz zibilizazio hari begiratzeko zaionean, beti ere lilurazko eta beldurrezko zirarrara bikoitza sentitzen dugu. Hala nola txinarrak, erromatarak, egiptiarrak, zein gure kasuan Erdi Aro kristaua edota ilustrazio europarra bera (Robespierrengandik Hitler arte). Beti bezala Benjamin mesianikoa dukegu lehena gauza hauek ausnartzen.

Ironikoki, ni-aren oroimen amerikar hauek ere desagertze dagoen zibilizazio baten lehen kronikak dira, zibilizazio hura jasan eta sufritu duten morroi eta barbaroen lehen kronikak. Zehazkiago esanda, 50ko hamarkadako familia suburbano nuklearraren inguruan eratu zen zibilizazio amerikar nazionalistaren gainbeheraren lehen kronikak dira. Eta sasoiaren zorientasunez beterik azaltzen zitzaizkigun familia haiek berak, orain handik ateratako subjektuen begietan bortizkeriaz, indarrez, eta krudeltasunez beteriko gune barbarotzat birrazaltzen zaizkigu. Subjektu hauek bere lehenaldiari begiratzen diote sasoi batean Champollionek hieroglifiko egiptiarrei beha egin zien bezala, dezifratu nahirik, beren hizkuntza ulertu nahiz. Baina oraingo Champollion berriek beren lehenaldi propioa dekodetzen ari diren zentzu garbia dute. Arkeologo eta zibilizazio desagertu, kronista eta barbaro, era berean izatearen kontzientzia zartatuaz idazten dute. Geroago ere kronika historikoagoak idatziko dira, baina oraingoz 50ko hamarkadako familia nuklearraren bitima izan diren superbizitzaileen kronika pertsonalak dira hauek. Rigorbetea Menchuren antzera, hauek ere lekukotasunak dira, baina familia nuklearraren barnean gertatutako gerra ia ikusteaz eta antzemanezinen kronika sotilak dira.

Izan ere Gerra Hotzean eratutako familia hauetan, «nuklear»

hitzak zentzu bikoitza du: kanpoan bonba nuklearrek inoiz leher-egin ez bazuten ere, barnean, familia-muinean, teknologia berak demaseko sarraskiak egin zituen. Gerra Hotza, bere hoztasunean, etxe barruan borrokatu zen irudipena ematen digute oroipen hauek.

Asko irakurtzen den hori, literatura al da?

Momentu honetan sekula baino gehiago irakurtzen da. Baina ez guk eskuarki literatura gisa ezagutzen duguna. Oroipenak baino gehiago, gehien saltzen den liburu mota, *self-help*arena da. Alegia nork bere burua hobetu eta laguntzeko irakurtzen diren liburuak (dietak, auto-diagnostikoa, azkar aberasteko sistemak, lotsa galtzeko teknikak, gehiago ligatzeko erremedioak, ezkontza eta haurgintzarako eskuliburuak, eta abar). Kurioski, laguntzazko liburuak eta oroipenak elkarren ispilu dira. Lehenak ni-aren lekukotasunak dira, Gerra Hotzak eta familia nuklearrak utzitako hondakin nitarren istorioak, ni-a bezala dirauten hondakin horien istorioak zehazki.

Laguntzazko liburuek aitzitik hondakin horiekin zer birreraiki daitekeen proposatzen dute: hondakerietatik beste zibilizazio berri bat, ni-az harantzagoko des-zibilizazio hipotetikoa, nola eraiki gomendatzen dute hain zuzen, eskolek eta giza-zientziek, edo estatu berrietako aparatu berriek, instituzionalki noiz berriro eraikiko zain.

Eta jakina beti bezala lehen kronistak familia haiek gehien bitimizatu dituztenak izan dira: emakumeak (alabak, emazteak, ilobak, etab. sexualki edo emozionalki abusatuak gehienetan, lesbiarrak) eta «gizon» papera ez jokatzea erabaki duten edo ezin izan duten gizonak (misanthropoak, deprimituak, buruhiltzaileak, sexualki abusatuak, homosexualak, etc.). Ez dut ikerketa soziologikorik ezagutzen baina badirudi portzentaia aldetik hauxe dela

kasua. Bitima hauen historia ofiziala oraindik ez da idatzi. Oker egotea gustatuko balitzaidake ere, iruditzen zait azkenean historia ofiziala beste batzuk –milurte berriko garaile inperialista global berriek– idatziko dutela. Beraz orain da garaia oroimenak irakurtzeko, historia ofizialak kronista heretiko guztiak desagertarazi aurretik.

Amaitzera noa eta oraindik ez dizut ezer esan bi liburuez. Baina era berean liburu bioz zehazki esan niezazukeena baino gehiago esan dizut. Dena den, kasu hauetan liburu-aurrezpen onenak galderaz egin daitezkeenez, hor doaz nire galderak: nola idatziko zenuke ama bitan banatutako baten istorioa, alaba maite bai baina gizona ere maite duenean, hain zuzen alaba sexualki abusatzen duen gizon hori bera? Nola idatziko zenuke istorio hau zazpi urteko alabaren ikuspuntutik, hain zuzen ama maite bai baina aitordearen bortizkeria bere gorputzean bertan jasaten duen alaba honen ikuspuntik? Nola idatzi, nolabait alabak ulertzen duenean amak ezin duela aukeratu, ama izateaz gain emakume eta pertsona maitemindu bezala bizi nahi baitu, eta hala bizi dadila alabak berak ere nahi duenean? Nola idatzi zure inguruko osaba-izeba maitagarri horiek gogorkeria beraren pairaitzaile indartsu eta bitima esperantzagabeak direnean? Pausa zaitetz bizpahiru egunez, eta etsitzen diozunean, prest izango zara eleberri hau, oroi-men fikzional baina egiazko hau, irakurtzeko. Prest zaudeke Dorothy Allisonen *Bastard Out of Carolina*-ren magiak idazketarik egiatienaren indarrez eragingo dizun bortxa jasateko. Idazlearekin berarekin afaltzean indar eta bortxa hori sentitzen duzula egiazta diezazuket.

Eta berriro galdera gehiago. Nola idatziko zenuke haurtzarorik gris, urdin eta apalena izanik, Herkules bera baino indartsuagoa gertatzen zitzaizun ama orain hildako baten itzalpean sentitu zenuen miseria latza eta zorionik beteena? Nola idatzi joera konpul-

tsibo-obsesiborik gogorrenaren mendeko gatibu zinen garaiko oroimena, eguneroko betebehar tipi eta garrantzigabeena, eskolatik etxera itzultzea adibidez, jasanezinezko lan luze, erritualizatu eta ahultzailea bihurtzen zitzaizunean? Nola idatzi oraindik sines-tu ere ez duzunean egiten superbizitu duzula aita hain errukigabe eta berekoi baten itzalean amak sufritutako umilazio guztiak? Nola idatzi hildako amaren oroimen bakarra zeu zarenean, eta halere, bizitza osoan ezer garrantzitsurik edota kontagarririk gertatu ez zaizunean? Nola izan itzal amatiarren kronista fidela? Hor duzu Sedarisen *Naked*-en abiapuntua.

Zeure buruari ere itaun egin diezaiokezu zergatik euskal literaturan ez den gertatu oroimenik, edota aurrerantzean idatziko diren, edota komeni zaigun halakorik. Gure artean oraindik «nuklearrak» ez diren gerrek aurrera segitzen dute eta antza oraindik berauok kronikatu behar ditugu gerra pertsonaletan sartu aurretik. Baina hau beste eskutitz baterako utzi beharko dugu. Lehenik gustatuko litzaidake jakitea liburu horiek hor lor daitezkeen eta irakurtzeko asmorik duzun. Agian berauok irakurri beharrean zeure oroipenak idazteari ekin diozu.

Besarkada bat.

Joseba Gabilondo

- 1- Dorothy Allison: 1992. *Bastard Out of Carolina*. (*Karolinatiko Sasikoa*). New York: Plume.
- 2- David Sedaris. 1997. *Naked*. (*Bilutsik*) New York: Little, Brown, and Co.

Alemaniar Herritik Euskal Herrira 2000. urtearen atarian

Kaixo lagunok,

Ez zaituztet ezagutzen, ez izenez ez abizenez, baina sumatu egiten dut zerbaitek lotzen gaituela: literaturzaletasunak edo liburuekiko erlazioak. Uste dut zuok ere pizti arraroren bat zarete-la, liburuak irensterainoko beharra derrigor sentitu ez arren haien bazka behar duten horietakook, eta hemengo literaturaren berri jakin nahi izango duzuela. Honexek bultzatu nau, hain zuzen, idaztera.

Derradan, hasteko, liburuekiko lehen harremana ez nuela oso normala izan. Traumatikoa ere ez, haietaz egun egin ditzakedan gomutak goxoak ez badira ere. Neuri, guztioi bezala, txikitako bizipenek eragin didate: barnetegi batean izan nintzen eta bertan liburu asko izan nituen eskura. Gaitzik egiten al du liburu artean hazteak? galdetuko duzue harriturik. Ez, baldin eta norberak liburu horien edukiaz behar bezalako irizpideak baditu. Hau, ordea, ez da usu zortzi edo bederatzi urteko mutiko baten kasuan gertatzen.

Eskola hartako jangela-egongela handiko apalategian liburu mordoak genuen metaturik. Gutako edozeinek zernahi ere har zezakeen. Liburuek, noski, seroreen onespena zuten, baina honek obra haien *moralitatearekin* zerikusia zuen besterik ez; ez irakurle potentzialaren adinarekiko egokitasunarekin. Eta hala gazte-abenturak, eleberri esistentzialistak, poesia erromantikoa, errezeta-liburuak, erlijio- edo zientzia-aleak eta entziklopediak bildurik zeuden Alexandriako biblioteka hartan.

Zortzi bat urte nituela Dumas, Verne, Karl May eta *Reader's Digest* irakurtzen hasi nintzen. Honaino, normala. Baina hara non jangela-egongela hartako goragoko apalategi batean beste ale batzuk aurkitu nituen erdi-izkutaturik. Obra horiek maisulanak ziren baina ezaugarri hauek geroxeago azaldu zizkidaten maisu-maistrek eskolan. Alta, nik ez nien maisutasun hori atzeman. Cervantesen *Quijote* edo *Novelas Ejemplaresen* historia batzuk irakurri nituen hasiera batean, nola edo hala ulertu eta gustatu egin zitzaizkidanak. Ondoren Hemingwayren *El viejo y el mar* hartu nuen eskuartean, hau zailago izan zitzaidan baina amaitzea lortu nuen; eta bukatzeko, Miltonen *El paratso perdidu*, hori bai marka!

Hiru irakurketa hauek on baino kalte gehiago egin zidaten: geroztik ez dut hiru egile hauetatik deus ere irakurri ahal izan —Hemingwayren kasuan zertxobait bai, asko kostata—. Hau baino okerragorik ere izan zen: liburu hauek itzelezko etena eragin zioten nire irakurketa-prozesuari; nazka-nazka eginda utzi ninduten eta ondoko urteotan irakurtzen segitu nuen arren, hau eskolako eginbeharrek beharturik egin nuen gehien-gehienetan eta gaztarooan sartua izan arte ez nintzaion jardun honi berriz lotu.

Burutazio hauek neure liburuekiko esperientzia nolabait deskribatzeko dira, neure burua zuritzeko edo, aitortu egin behar baitut ez naizela liburu askoko gizona. Galdetuko bazenidate zein

alerik irakurri dudan azkenekoz, erantzuten jakingo nuke, baina lan hori ez litzateke beti ere literatur arlokoa izango. Liburu ugari hartu eta ikuskatu egiten ditut, baina irakurtzen hasi eta behar adina tiratzen ez banau, ez dut neure burua aurrerantz segitzeko behartuta sentitzen. Halaxe egin izan dut aspaldidanik eta halaxe segitzea espero dut aurrerantzean ere. Txikitako sasiardura handi hark benetako erantzukizun txikira eramán nau gero.

Esan liteke, apur bat puztuz, liburudendak eta bibliotekak liburua bera baino maiteago ditudala. Inoiz hiri berri batera azalduz gero liburudenden bila hasten naiz zoro baten antzera eta bertan orduak eta orduak eman ditzaket han-hemenka ale batzuk hartuz eta irakurriz. Betidanik izan dut liburudendaz liburudenda ibiltzeko zaletasun, edo hobeto esateko grina hau –horrek ez du esan nahi beti zeredozer erosten dudanik; ezta erosten dudana beti irakurtzen dudanik ere– eta ahal dudan guztietan barne behar hau asetzen saiatzen naiz. Nahiz sarritan liburudendan zer bilatzen ari naizen ez dakidan –harri filosofala? esaera ospetsu bat egunari bestelako dirdira eman diezaiokeena?– han segitzen dut gora eta behera denda itxi arterainoko azken minutuak probesten.

Nürembergen irakurria

Hemen, Nürembergen egin nituen ibilaldi haietako batean topatu nituen gaur aurkeztuko dizkizuedan egilea eta haren lanak. Ez dakit Robert Gernhardt ezagutuko duzuenentz, ez baita bera Alemaniak esportatu ohi dituen horietakoa. Dena den, haren obra eta izpiritu kritikoa zorrotzenetakoak ditugu bertoko literaturaren esparruan eta *Über alles* liburua bere luma emankorraren eredia, kritikalarien arabera. Gainera, bada besterik, eta barka nazatela filosofoek: Gernhardt, alemana izanik ere, originala eta dibertigarria da.

Bai, zeren eta Greziaren ostean filosofoen herria izan den

honetan hain baita handia filosofiaren itzala, non literaturaren adarrak iluntzen dituen, honen hegoak pisu astunegiz kargatuz. «Ez zaitetz fio txerri asko jaten duen herriaz. Filosofoegiak dira, metafisikoegiak, baina gero ez dute ezer egiten» idatzi zuen behin, gutxi gora behera, Espainiako egunkari batek Alemaniari buruz eginiko erreportaia. Geroago Engelsen iritzia ere irakurri nuen, zeinak jadanik aurreko mendean dudatan jartzen baitzuen Alemanian iraultza bat garatzeko ahalbidea, langile alemaniarren pentsamoldea eta gizarte-ordenarekiko atxekimendua zirela eta.

Atzeman al daiteke joera hau Alemaniako literaturan? Benetan hain nekagarriak dira idazle alemaniarrek? Zer irakur daiteke bertan ohiko lauzpabost idazle ezagunetz gain?

Tragikotasunari ihesi barrez

Nola ihes egin tragikotasun honen zentzuari? Barre eginez ote? Gernhardten testuek horixe proposatzen dute eta honek ez du esan nahi besteak baino azalekoagoak direnik. Nork esan du barre bat zotin-malkoak baino tragikoagoa ezin izan daitekeela? Horrexegatik, barrearen tragikotasunak batzuetan bizitza bera azaltzeko balio dezakeelako gomendatzen dizuet Robert Gernhardt, «geure buruari barre egiten irakasten digulako», Berlingo-TAZ egunkariak definitu duenez.

Idazle honen kasua bitxia da Alemaniako literaturan. 1937. urtean jaio zen Estoniako Revland hirian. Germanistika eta Pintura Stuttgart eta Berlinen ikasi zituen eta 60ko urteetan hasi zuen bere literaturbidea. Frankfurtoko Eskola Berria delakoaren aintzindaritzat jo izan dute bera. Izen xeble honek Adorno, Hockheimer eta Habermasek Gizarte-Ikerkuntzarako Institutuan Alemaniako hiriburu ekonomikoko unibertsitatean zuzendu zuten analisi kritikoen eskola gogorarazten du, handik hartua baita, zentzu ironikoz, noski. Gernhardtek F. W. Bernstein eta F. K.

Waechter-ekin batera osatutako mugimendua 60ko hamarkadaren hasieran jaio zen eta satira eta umorean oinarritu zen errealtateari begiratzeko.

Gernhardt urte haietantxe hasia zen argitaratzen. 1966. urtekoa dugu, hain zuzen, *Die Wahrheit über Arnold Hau* (*Arnold Hauri buruzko egia*). 70ko urteetan beste obra batzuk eman zituen argitara eta ezagun egin zen literatur munduan. *Wörtersee. Gedichte und Bildgeschichten* (*Hitzasoa. Poesiak eta irudistorioak*) (1981) izeneko lanean gerora ere nabarmenduko zen hitz, irudi eta marrazkien esparru zabalean jardun zuen.

Lengoaia guztiak trufa egiteko

Haren lanak lengoaia mota desberdinak lantzen ditu, haietako bat elea da; ez bakarra, ordea. Izan ere, Gernhardt soil-soilik idazle izendatzeak ezin esplika dezake artistaren sormenaren emaitza oso-osorik. Gure pertsonaia poeta, kritikalaria, eleberrigilea, ipuinlaria, entseularia eta antzerkigilea dugu, bai eta haur literaturan aritua ere. Honetaz gain pintorea, diseinadorea, marrazkigilea eta komikilaria ere bada: mundu grisa kolore anizdun hitsez saiatzeko da margotzen eta, halaber, errealtate bera ere marrazki eta komikien bidez pintatzen digu: (auto)kritika, ironia eta umorez. *Über alles* honetan gustuko dituen genero guztiak nahasten dira. Titulua bera bi eratara uler daiteke: liburuaren mamiaren aurkezpen modura: denari buruz; edo himno nazional alemaniarrari eginiko trufa: *Deutschland über alles*: Alemania oroz gaintetik. Liburuak poemak zein esaldi motzak edo artikulu antzeko iritzi-paragrafoak ditu eta komiki, irudi umoretsu eta abarrez hornituta dago. Multidimentsionala dela esan daiteke, eraz eta mamiz, baliabide eta joko guztiak ibiliz osagai desberdinak uztartu baititu. Gernhardten lana ondo aztertu duten zenbaitek liburu hau gomendatzen dute idazlearen ezagutzarako sarrera egokienaren modura.

Handelsblatt ekonomi egunkariaren hitzez, hark goian aipatu genero ia guztiak jorratzen baititu bertan.

Nik irakurri dudan alearen azpigituluak argi uzten du kontua: *Ein Lese- und Bilderbuch*, «Irakurketa eta irudi-liburua». Fischer argitaletxea, 1997ko apirila. Lana sei ataletan dago banatua, haietako bakoitza binomio gisa aurkeztutako gai metafisiko bati lotua: *Kunst und Leben* (Artea eta bizitza); *Mensch und Tier* (Gizakia eta animalia); *Mann und Frau* (Gizona eta emakumea); *Wort und Bild* (Hitza eta irudia); *Zeit und Raum* (Denbora eta espazioa); *Gott und die Welt* (Jainkoa eta mundua) eta *Spassmacher und Ernstmacher* (Txantxazalea eta kopetiluna). Halako tituluak ere ez dira, bada, filosofikoeziak? pentsatuko duzue batzuek. Itxuraz bai, noski, jite arras traszendentala ematen baitiote obrari. Alabaina, bertan idatziari so eginez gero bestela ageri da, zeren eta sail hauetan guztietan ziriz jositako hausnarketak nagusitzen baitira.

Bizitza eta artea, artea eta bizitza, zeinek zein imitatzen du? Bi kontzeptuak nahastu egiten dira. Bietako zeinek islatzen du egia, zeinek gezurra. Biak bikote baten istorioan marratzu dizkigu idazleak, non andreak gizonari «zer pentsatzen ari zara» betiko galdera egiten baitio. Amodio-solasaren ostean zer ihardetsiko dio «monotonia indartsuak izpiritua hartu dion gizonak»? «Esan, bada, zer pentsatzen ari zara?» diotso berriz andreak ohaideari. Gizonak ixilik segitzen du. Haren pentsamenduak Gernhardten hitzetan gorpuzten dira eta galdera intimo hori madarikatzen du bizitzari funtsezko hatsa damaion barne-libertatearen ukazioa baita: «Pentsamenduen kontrola! Ez ote zen hau botere absolutu hauen guztien –apaiz, irakasle, emakume– helburu deklaratu? [...] Egia eta gezurra. Gidari zakar eta okerragorik izan liteke bizitzaren norabiderik ezean barrena? Ez al du gizateriak zeragatik bizirik iraun, hain zuzen, espeziearen zati batek behintzat gidari hauei ihes egin dielako, haien atzetik korrika joan beharrean?» Azke-

nean bizitzak beharturik gizonak «poxpolina» diotso andreari. Eta honek, bere nahia betea izanik erantzun bakarra du maitalearentzat: «Zozoa!».

Zuek ere ondotxo ezagutzen dituzue biziaren kanpo zein barrualdean diren amodio-harremanak eta hauen ezaugarriak. Zeintzuk? Nola? Zergatik? Zer dira binaka, edo hirunaka, edo launaka—ko erlazio hauek? Goxotasunez bizi eta bildumatutako gairazkiulertu —edo elkar ulertezin—mingotsak baino ez. Eta albuma argazkiz gainezka dugunean, beste bat erostera joaten gara. Edo ñirñirka ari zaizkigun oroitzapenak iluntasunaren zakarrontzira jaurtitzen ditugu betiko. Eta atzera ere beste album bat erosten dugu huts-hutsik, birjina, lehen aldiko ilusioaz beteko duguna...

Gizon-emakumearen artean liason dangereuse, ezinbestez

Gernhardtek halaxe irudikatzen du gizonaren eta emakumearen arteko harremana. *Liaison dangereuse* bat, nekez ihes egin dakiokena. Idazleak matematikaren zehaztasunez deskribatu digu maitasuna *Mann und Frau* ataleko poema batean: «Maitatzeak / zenbatzen / ahaztea esan nahi du». Eta lau arauak hankaz gora jarriz adierazi digu teorema: «Bat gehi bat berdin bat / bat ken bat berdin bi / bat bider bat berdin infinitoa / bat zati bat berdin zoriontsu».

Gizon bat, naiz, lagun iezadazu gizaki bat izaten

Idazleak giza harremanen akats *naturalak* ezagutzen ditu eta gizonezkoa den neurrian bere egiten du gabezia horien erantzukizunaren zati bat: «Gizon bat naiz. Lagun iezadazu gizaki bat izaten», idatzi du bere inperfekzioa onartuz. Jarraian maitasunaren nahia eta ezina azaldu ditu bertso batzuetan. Lehen bertsoa alde positiboa den giltza xume bati lotzen zaio: «Giltza bat / ematen / dizut / neure gelarako / Badakit zuk inoiz erabili beharko

duzuna / ni beti hantxe izango naizelako zu zatozenean. Baina somatu / egiten dut/ nire gela gure gela / dela». Alde iluna eman eta hartuaren arloan dakusa protagonistak «Bi oroit dira» izeneko poeman: «Beti zerbait ematen zuenak mila aldiz gehiago hartzen zuen zer horretatik berriz».

Gizonaren eta emakumearen arteko harremana ia ezinezkoa da Gernhardten irudikoz. Zer dela eta segitzen dio orduan batak besteari? Zer erakartzen ditu biok elkarrenganantz? Edo nork manipulatu ditu elkarrenganako sentimenduak bidezidor jakin baterantz eramanez? Hau adierazteko poesia bazterrean utzi eta entseia darabil idazleak. «Gizona emakumearen menpeko adiktua da, haren indar teraupertikoa esplotatu behar baitu bere gupidarik gabeko borrokarako eta honen helburu gaiztorako prest izateko. Bilatze hau drogamenpekotasunaren antzekoa da eta gizona heriotza goiztiarregia dakar ondorio gisa». Onena erabateko aldaketa litzateke baina Estatuak eragotzi egiten du hau beronek «kontzientziarik gabeko gizonak behar baititu, hauen lan indarra eta heriotzarenganako aiherkundeaz profitatzeko».

Maitasun eta heriotzan zehar eginiko bidaia filosofiko hau puntu bat besterik ez da. *Über alles-en* behin eta berriz jokatu du Gernhardtek anbiguetate horrekin, egia eta gezurraren artean saltoka ibiltzea atsegin du. Azken batez, zer da amodioa, geuk egia bihurtzen dugun gezurra ala gezur bihurtzen dugun egia? Nola eta zergatik kulunkatzen da alde batetik bestera? Bere alegiatan –berdin idatzi zein marraztuak– ezintasunaren eginkortasunaz mintzo zaigu idazlea. Eta alderantziz: «izan ez dena oraindik ere izan daiteke» dio berak.

Gernhardten lanak Tucholskyren tradizioaren ildoan doaz. Mende hasierako idazlearen hitzak bere eginez zera galdetu du Estonian jaiotakoak: «Zer zaio zilegi satirari? Dena». Eta oroitarazi egin digu arma berbera erabiliz Tucholskyk geroko hainbat

eta hainbat hondamendi eta tragediaren berri eman zuela: «Nork borrokatu zuen eskuineko erreakzioaren kontra? Tucholskyk. Nork astindu zuen ezkerrean laxokeria? Tucholskyk. Nork ohartarazi Hitlerrez? Tucholskyk. Zer zilegi zaio Tucholskyri? Den-dena. Pribilegio honengatik dena *pagatu* behar izan zuen Tucholskyk: sorterria, barrea, bizitza». Idazleak Tucholskyren tradiziara jo du 70 urte geroago eta idazlearen atzoko, gaurko eta biharkotasuna erreibindikatu du «hurrengo 70 urteotan ere ekidiezina izango baita [...] Eliza, estatu eta kontsumoaren ordezkariak berriz ere astintzeko».

Politikaren ur uherrak

Gehiegizkoa ote pentsakera hau? *Demodé?* Baliteke. Alemaniako literaturaren eremua lehor samarra dugu birbateratzearen ondoren. Prozesu honen aurretik kritiko agertu zirenak –Günter Grass, esaterako– ia traidoretzat jo ditu *stablishmentak*. Baina zer ardura dio idazleari honek? Ekialdeko idazleei, berriz, komunistekin erreinuan geratu izana leporatu zaie, nahiz eta haietako asko –Christa Wolf, kasu– kritikoak izan eta erregimen hark zenbait idazleren kontra harturiko neurriak agiri eta gutun publikoetan kritikatu. Hala eta guztiz ere, Ekialdean geratu ziren askori ez zaio erabaki hori oraindik barkatu.

Zortzi urte honetan argi berriak iziotu dira eta beste batzuk ere amatatu; bigarrenak lehenak baino gehiago. Berrien artean Ralf Rothmann eleberrigilea eta Durs Grünbein poeta ditugu, Ekialdeko Alemanian sortu eta hazia, egungo lirikaren ahots originale-netakoa. Bada besterik. Felicitas Hoppe, esaterako, «Picknick der Friseure» liburuaz estilo berezi bat erabili duena. Idazleak hogeitipuin labor bildu ditu bertan, familia baten gorabeherak lotzen dituztenak. Fantasia da nagusi, batzuetan alaia, bestetan goibela. Hauexek lirateke berrien artean ezagunenak. Eta Gernhardt, noski.

Gure pertsonaia bi garaien arteko zubia izan daiteke, iragana eta oraina korapilo batean irmo estekatu eta soka aurrerantz jaurtitzen du, ziurgabetasunaren indarraz geroaren mutur bati oratzera helduko den esperantzaz. Eta soka hori zartailu bihurtzen da sarri kontzientzia lokartuak iratzartzeko.

Izpiritua erne mantentzeko botika: satira, satira, satira

Jean Paul Maratek hiru hitzetan laburtu zuen gizakiaren arrakas-taren oinarriak: «Ausardia, ausardia, ausardia». Gernhardtek ere hiru eletan deskribatzen du soraiotasunari iharduki eta giza izpiri-tua erne mantentzeko botikarik onena: «Satira, satira, satira». Kritika eta barrea nork bere buruari egin behar dio lehen-lehenik; izan gaitezen beti lehenak geure buruaz trufatzen, besteen isekak ez digu gero axolarik izango.

«Seriotasuna zaharra da» dio idazleak liburu honen pasarte batean, eta lelo hau izotzausteko untziko branka bailitzan darabil ur hormatuenetan barrena ere nabigatzeko. «Seriotasuna zaharra da» esan du eta kopetiluna eta txantxazalea elkarren aurrean jarri ditu, azken batez «domina beraren alde biak» dira-eta.

Gernhardtek bere buruari egin dizkio lehenengo txantxak eta zuhur eta bekosko beha dagoen erregeari berau ohartu gabe iseka egiten dion bufoiaren bidean mugitu da. Irakurle erregeok gustu-ra egiten dugu irri pailazoaren aurrean, baina iluntzean geure Hugo Boss koroa ispiluaren aurrean kentzen dugunean bufoiari barre-argaren artean atzematzen genizkien begi goibel haiek agur-tzen gaituzte beiraz bestaldetik. Ispiluak «galdutako nia» –Gernhardten hitzetan– bihurtzen digu eta orduan «kontsolamendua eta aholkua» deritzon olerkiaren irakurraldian zer azaldu duen datorkigu burura: «Bai, nork etsiko du, bada, / txikia, oihukaria eta ergela delako?/ Bizitza bakoitza bukatu egiten da. Bizi zaitez / modu batera / zeinaren bidez zeure bizitza amaitzear dagoenean

/ zeure buruaz zera / esan baitezakezu: Eta zer? / neure bizitza ere amaitzeko da orain / baina nik zerbait lortu dut: / txikia, oihukaria eta ergela izan naiz». Aurrerago test moduko galdeketa bat egiten dio bere buruari: «zein ezaugarri duzu maiteen gizon batengan? Zerbaiten aurrean oraindik ere beldur izatea. Eta zein ezaugarri duzu maiteen emakume batengan? Oraindik ere gorritzeko gaitasuna izatea». Eta galdeketa berean adiskidetasunari buruzko definizioa egiten digu: «Zer estimatzen duzu gehien zeure lagunengan? Nire beldur izan ez daitezela».

Aldizkari bateko inkesta aseptiko hotzean jorratua lirudikeena elkarrizketa amultsu bihurtzen da. Gernhardten aitortpena da munduaren aitzina, egileak bere bihotzari faxeatu dion dokumentuan bildua. Zein izango litzateke zure zoritxar handiena? Kolore itsutasuna». Honetan ere okerrena ez da ez ikustea, errealitatearen polikromiari ez erreparatzea baizik. Ez ikustea eta dena beltzez, zuriz edo beste kolore jakin batez bereganatzea ia antzekoak lirateke beraz. Eta ñabardura hau metafora koloreztatu batez azaldu du egileak ondoko galderari erantzun dionean: «Zoriontasunari buruzko ametsa?: Eguberri zuriak Kosta Urdinean».

Esan bezala, idazleak aurreko lanen ezaugarriak diren zertzeladak ederretsi ditu *Über allesen* 1997. urtean kaleratutako azken argitalpenean 20 bat lan desberdinetatik bildutako satira, alegia, ipuin, irudistoriak, komikiak eta marrazkiak daude. Berak asmatu figura artistiko edo literarioak solasean pascetzen dira gezur eta egiaren arteko xake taularen gainean. Haien koloreak karratu beltz eta zurienekin nahasten dira. Non da pieza hau, zeini dagokio mugitzea? Eta errealitatea balantzaka ari diren figuren bidez osatzen da.

Figura hauek etorri badatoz eta joan badoaz gure kontzientzia eta oharmena abantxu ikutuz. Beraien esistentzia ezin froga daitezkeen mamuak dira, edo areago, mamuen itzalak. Eta horrexe-

gatik izan badira, itzal haiek geure kontzeptu argi-ilunetan islatzen baitira. Gernhardten obraren ezaugarri hau *Kippfigur* ipuin bilduman sortu zen eta izen horrekin erreproduzitu egin da tarte-ka-marteka ondoko lanetan.

Egin, egiten dut; beraz, esistitu egiten dut

Nola gorpuzten da *Kippfigur* bat? Zertaz? Zein da haren mami? Kurth Rothmann kritikariaren hitzak transkribatuz azalduko dizuet: «Lorketaria seguru da bere buruaz eta bere ekingaz; segurtasunik eza lortutako *zer* horretan datza, *Kippfigur*-ean hain zuzen. Figura eta motiboaren arteko erlazioak esanahi bikoitza daukanean sortzen da *kippfigura*. *Krankengeschichte* (gaisoistorioak) lanean hauxe galdetzen du Gernhardtek: «Nork nor menperatzen du beraz? Gaisoak gaisotasuna? Gaisotasunak gaisoa? Gaisoak osasuntsua? Osasuntsuak gaisoa?». Elementu guzti-guztiok elkarri atxekitzen zaizkio prozesu batean, «zeina gaisoak soilik gaisoagotuz hauts baitezake». Sormenaren eta sorkuntzaren bikoitearen kumeak.

Artistak *Ich, ich, ich* (Ni, ni, ni) 1982ko eleberrian erakutsi du obrarekiko erlazio hau. Bera eta bere lana. Nork nor baldintzatzen du? Harreman bitxi honetan ni-hi interaktibitatea dago. Batak bestea bizi delako esistitzen du. Elkarren osagarriak dira biak. Obrak «hi, hi, hi» oihu egiten dio egileari. Eta honek «ni, ni, ni» erantzuten die sorkuntza nekagarriaren fruituei: «Arin-arin beteko da estudioa obra esanguratsuenaz. *Hi, hi, hi* deituko diote hauek pintoreari mahai, horma eta oihaletatik, bera goizetan haien erdira azalduko denean. 'Ni, ni, ni' diotso barrenak. Hau guztia neu naiz. Egin egiten dut, beraz esistitu egiten dut. Lan honetan mokoa beti zorroztu nahi duenak, behin-behineko begiraleak zein kritikari profesionalak, horrexegatik egin ahal du hau: soil-soilik nik zerbait egin dudalako. Nik ezer egin ez banu, mokoa

haragirantz haziko litzaieke [...] beraiek euren heriotza eragingo lukete zartada batez. Neu naiz beraiek bizirik mantentzen dituen zorroztarria. Neu, neu, neu».

R. Descartesen «*Cogito, ergo sum*» «*Facio, ergo sum*» bihurtu du R.Gernhardtek. Eta une batez ez dakigu R. hori Robert edo René diren, hain estu baitira bion pentsamolde hauek lotuak. Bera ere *Kippfigur* bat baitugu, konturatu egingo zineten honezkero, eta figura eta motiboaren arteko muga lainotsu horietan desagertzen zaigu batzuetan.

Gernhardtek aniztasuna du maite. Eta joera hau ekoizpen artistikoan zein pentsakera edo irizpidean nabari zaio. Ikonoklas-ta? Bai, baina ez erabateko zentzuan, satiraren maskarak ematen dion itxura desfiguratu horren azpian alde humanoa izkututzen baita. Idazleak autokritika egin du. Satira. Eta bere buruaz egin trufak besteenaz ere egitea zilegitzen dio. Zer zilegi zaio satirari? Dena, eta horregatik egileak ez du ezer edo inor barkatzen: Kohl, sozialdemokratak, feministak, neonaziak, ekologista integristak eta beste. Txantxazaleak banakakoen arlotik multzo kolektibora egiten du jauzi giza talde zein nazioez barre egiteko. Alemaniarrez, esaterako. *Der Deutsche Mensch* azpiatalean gainbegiratu egiten dio herkideen izaerari. «Alemaniarren seriotasuna bakarra da seriotasunen artean. Alemaniarrak serio-serio bihurtzen du dena. Serioago ezin izan daiteke». Eta testu, poesia edo marrazkien bidez alemaniar herritarren irudi arrazista osatu du, herritarren inkonzientea jipoituz. Ohartuko zaretenez, esparru zabal-zabala hartu du Gernhardtek, aberatsa. Hiritar arrunten eguneroko bizitzaren euskarri diren egia –dogma– biribilak karratu egin ditu eta jarraian txikitu. Politika, ekonomia, artea, militantismoa... eta erlijioa. *Gott und Welt* kapituluan, esaterako. Bertan ezin azalpen argiagorik ematen zaigu komiki baten bidez. Egileak gizakia eta Jainkoaren arteko lotura –elkarrekiko menpekotasuna– agertu

du. «Elkarrekiko» idatzi dut: gizakiak Jainkoa behar du bizirik irauteko; eta Jainkoak ere gizakia behar du ez hiltzeko. Jainkoa, erlijioa, Eliza... giza tragedia deskafeinatzen duten zutabeak dira.

Komiki honetan gizon bat moko luzedun hegazti baten gisa ageri da mozorroturik. «Guk guztiok maskarak daramatzagu», esan du komikiko pertsonaiak. Hegazti-gizona mozorroturik irten da kalera eta bertan beste hamaika hegazti-gizaki ikusi ditu, nor bere moko luzearekin. «Mozorroturik goaz bizitzan barrena» esan dio bere buruari lagun horiei so egiten dien artean. «Maskara horien atzean zer dagoen jakitea...» elekatu da hirugarren irudian «... soil-soilik Jainkoaren gauza da» erantzun dio goiko zerubarrenetik ateratako esku luze baten jabeak gizakiari hegazti-maskara kentzen diolarik. Gizona mozorrorik gabe ikus dezakegu orduan, biluzik errealitatearen aurrean. Eta bere gainean, zeruan, esku eragile horren jabea: jainko bat, berau ere hegazti-gizaki itxura duena, eta berau ere mozorroturik.

Gernhardten ahaleginak Jainkoari maskara kentzeko

Asko eta asko era filosofiko ilun batez azaltzen saiatuko liratekeena modu ximple, argi eta umoretsuz definitu digu Gernhardtek. Jainkoa, beraz, mozorrotua da gure moduan. Diferentzia bakarra: bera gure gainean dago, *gizaki* bat da, menpe gaituena, baina haren urruneko erreinu horretan ere maskara darama. Maskara, baina norengandik izkutatzeko? Bakardadetik? Beste giza-kiengandik? Gizakia mozorroturik dago, Jainkoak maskara kendu dio azkenean. Baina Jainko hau ere maskaraduna dugu. Eta berari norik erantziko dio maskara? Hartara menturatuko da gizakia? Ba al daki berak Jainkoak ere maskara duela bisaian eta ente zerutiar hau mozorroturik izatea gero eta gizaki gehiagok berau errekonozitu ezinaren benetako arrazoia dela? Eta Jainkoa, misoginoa ezezik misantropoa ere balitz? Ignominia ote? Ez dut uste.

Gernhardtek gizatartu egin du Jainkoa komiki honetan. Ez du berau akabatu. Eta hilketa hau egin balu, ez dut uste ekintza aldeztatik aurretik pentsatuko zukeenik. Gehienez ere, ustekabeko homizidioa izango zatekeen. Idazleak gizaki erakutsi digu Jainkoa. Benetako iseka jainko haren izenean antzezpenik garestiena, –ez derrigor onena– egiten duten erakundeetatik dator haren ustez. Komedia bat.

Adibide bat Joan Paulo II.a eta haren kontrako atentatua egin zuen Ali Agca presoaren artean kartzelan izaniko elkarrizketa zinema-eszena baten erroldaren modua aurkeztu du Gernhardtek, zeinean Wotjilak Agcari damuaren berri emateko nola eta non belaunikatu behar duen diotson. Baita aitoren horrek zenbat iraun behar duen ere, ez oso luze «bestela ez gara-eta gaueko albistegian irtengo». Idatzi honen amaieran prentsak gertaera hari buruz eginiko aipamenak jarriak dira: «Elkarrizketaren amaieran Agca Aitasainduaren aurrean belaunikatu zen». Eta irakurleak ezin dio barregurari eutsi.

Aitasainduari iriztean zorrotza da Gernhardt. Jainkoari buruz ari denean ere modu berean jokatzeko du baina ikusmolde desberdin batez. Jainkoa lurrera jaitsi zeneko alegian, adibidez. Protagonista zerutiarra firi-faran dabil eta gizon aberats baten etxeko atean jotzen du. Bertako jabeak atea ireki eta bisitaria ezagutu ez arren, barrura sartzeko gomitea egin dio. Gizonak jan eta edaten eman dio Jainkoari. Azkenean honek nor den esan dio gizonari: «Zure eskaintza oso gisakoa da, gizon aberatsa! Lurrean barrena ibili naizen azken aldietan gizon pobre baten etxean geratu behar izan dut beti. Eta hau ez zait, egia esan, bat ere gustatu, zeren haren etxean dena zen –hau gure artean...– dena zen izugarri pobrea». Jainkoa Jainkoa da baina maskararen azpian gizakia ere badela nabaritu zaio. Ez du sufritu nahi, erosotasuna nahiago du. Eta Jainkoak eta jaun aberatsak nahi adina edan dute elkarrekin.

«Goxo egoten da ondo inguraturik» pentsatzen bide duen Jainkoak ez du berriro gizon pobreaken etxean gaua pasatu nahi. Ondasuna eta ongi izana aurkitu ditu eta horietaz profitatu egin nahi du. Eta haren agerpenak hankaz gora jarri ditu pentsamendu teologikoe-tan oinarritutako esaldi sakratuak. *Gott ist Liebe* (Jainkoa maitasuna da) esaera famatutik, *Gold ist Liebe* (Urrea maitasuna da) sortu du Gernhardtek hitz jokoa eginez. Errespeturik ez du, adei-gabekoa da. Baina ez da zilegi Jainkoaren alde humanoa bera ere satiraren bidez ägertaraztea? Bai, satira. Eta zer zaio zilegi satirari? Dena.

Gernhardtek Tucholskyren bideari ekin dio ostera ere, ez du ezer edo inor barkatu. Ondoko orrietan «Zergatik ez dudan maite satirikoa izatea, eta zergatik satiriko gisa agertzeak nardatu baino ez nauen egiten» artikulua dugu irakurgai. Bertan funtzio satirikoa zertan datzan azaldu du, horretara emanak direnak ere kontraesan-munduan bizi direla adieraziz: «Besteak bizi direneko kontraesanak bereak ere badira. [...] Berak (satiraegileak) aire eta ingurugiro garbiak eskatzen ditu besteek bezala, baina autoa gidatzen du; protesta egiten du hiriak suntsiturik daudelako, eta besteek bezala ere dirua txikizio horrentzako baliabideak jartzen dituzten bankuetara eramaten du. Ongiaren alde dago eta gaizkiaren kontra, gainontzeko guztiak bezala, eta ia guztiek bezala mesfidantza handia du sendabideak ezagutzen dituztela esaten dute-nekiko, maiteago baititu benetako gaizkileak, haietaz nor non zer den jakiten baita behintzat».

Haren ustez, «erraza» da satira egiten eta kritikatzeko eta «segu-ruenik gauza anitz esan liteke satiraren kontra». Baina hau guztia moteldu egiten da errealitateari begiratzen diogularik, ohartzen baikara gizarteak ez zuela inolaz ere historian zehar aurrera egin-go, baldin eta satira egiteko ahalbidea «etenaldiekkin» izan ez balitz.

Eta Gernhardtek satirari segitu dio liburuko azken atalean. *Was bleibt. Gedanken zur deutschsprachigen Literatur unserer Zeit* (Geratzen dena. Gure garaiko alemanierazko literaturari buruzko hausnarketak) deritzon entseian mende honen azken hamarkadetara arte, Alemaniako batasuna gertatu arte ia, idatzi den literatura aztertu eta kolpe batez txikitu du. «Geratzen dena» horren bidez, mende honen bigarren erdiko literaturaz ari da Gernhardt, II Mundugerraren ondoren alemanieraz mintzo diren herrietan idatzitako lanez.

Gai honi heltzeko abiapuntua galdera bat da, munduko literatura guzkiei –baita gureari ere– zuzen dakiekeena: «Zer ez dut hurrengo belaunaldientzat inondik inora ere gorde behar? Eta era berean: zer gorde dezaket benetan?».

Idazlea bera ere kontraesanean

Puntu honetan, pentsa dezakezuenetz, Gernhardt satira-egilea literatur kritikoa bihurtzen da, *destroyer*. Kritikarien zereginaz trufatu denak epailearen arropa beltza jantzi du orain. Zergatik? Ez dago, edo zegoen behintzat, honen kontra; ez zituen moko berari esker zorrotz dezaketenak gaitzesten? Bai, baina Gernhardt satira-egilea da, baina lehenik eta oroz gainetik *Über alles*, pertsona, eta horrexegatik kontraesanez josia dago gainontzeko gizakiak bezala. Liburuaren azken zatian ageri dena kontraesan handiena da. Bera ere, azkenean luma utzi eta mokoka hasi da. Gernhardt kritikoa dugu, saien antzera jokatu nahi du, berak ere kolpetik beherantz jaitsi eta mokoka hasteko, karraskan gorantz abiatu aurretik. Eta kritikalaria izateko eskubide osoa du, lehen-lehenik egilea, sortzailea baita. Izan ere, 60 urte pasatxo dituen gizonak urterik beste lan eman du argitara, gutxi gora behera, orain artean. Gehienak liburuak dira, badira tartean arte katalogo batzuk eta folletoak. Hirurogei bat lan, gehienetan bakarrean eginak, bestetan elkarlanean. Multzo honetan eleberria, poesia, entseia, kri-

tika, antzerkia, marrazkiak, komikiak, irudi-istorioak, irudi-poe-
mak, ipuinak, filme eta telebista-gidoiak, irratsaioak, diskoak,
kaseteak... Eta abar???!!! Nolaz ez zaio zilegi izango, bada, literatur
kritikarien toga beltza janztea? Idazlea, beraz, kritikari bihurtu
da, kritikari zorrotza baina ironikoa, bera urtetan ignoratu eta
azkenean laudatu behar izan duten kritikoen hastapenetako ku-
pidagabekeria gabe.

Gernhardten arabera, Alexandriako bibliotekaren garaian ba-
zen esatera bat zera esaten zuena: «Liburu handi bat zoritxar handi
bat da». Irizpide hau «baliagarria da egun ere» haren aburuz, eta
suposatu egiten du aipatu bibliotekako sua eta haren erabateko
suntsipena ez zirela gaitz txikia izan, noski, «ezta txit zoritxar
handia ere».

Bestalde, liburuak lodiak ezezik handiak ere izan daitezke. Eta
Gernhardten arabera literatur lan handi hauen ospea, «behintzat
mende honetan», haien ezagutza hipotetikoan datza oroz gaine-
tik. Baina «ezagutza» horrek ez du bermatzen ez delako lan hori
irakurri denik ezta beronek bizirik segituko duenik ere. «Baina
mende honetako bigarren erdiaren alemanierazko literaturara
itzuliz: Nolakoak dira hamarkada hauetako prosalan garrantzi-
tsuenek bizirik irauteko dituzten aukerak? Txarrak», dio egileak.
Eta ez haien kalitatea eskasa delako –gertatu ere gertatzen dena-
gerora lan horiek sailkatuko diren maila-kategoriagatik baizik.
Bizitzaren arlo askotan bezala, literaturan ere zaila da gailurra
konkistatzen, eta are gaitzago goreneko maila honi eusten.

Horregatik hasiera batean goren-goreneko maila horretan sar-
tu ditugun lan asko eta asko «maila garai edo erdiko mailara»
pasatuko dira gero. Hauxe litzateke arrazoia. Denbora guztien
literatur kontzientziak oso lan gutxi salbatu ditu proba honetatik
eta «goren-goreneko lan hauen esistentziaren berri jakiteak sobe-
rako egin du eta egiten du haien mamiaren ezagutza».

Eta orduan Gernhardtek zera diosku, literatur maisulan horien barruan, bere ustez, gutxi-gutxi sartzen direla mende honean: lan horietako bi Joycerenak bide dira, Proust eta Musil ere aipatu ditu, Döblinen *Berlin Alexanderplatz*, Thomas Mannen *Doktor Faustus*, edo Gertrude Stein edo Raymond Roussel-en lan itxiak. Beste guztiak non geratzen dira? Nora doaz? Zein da haien patua? Horixe da gakoa.

Zer geratzen da orduan? *Hauxe* erantzun du Gernhardtek. Eta bere lanari dagokion *hauxe* honen bidez gogoeta ironikoa egin nahi izan du, idazlearen patua edo zoritxarra agerian utziz. Zein da asturu hau? Idatzi, idatzi eta idatzi, gehienetan ezertarako balioko ez duela jakinda. Asmo onenekin baina yayotasun ez hain emankorraz idatzi ziren guztiak falta izanen dira gero hurbilean.

Ezerk ez du iraungo, edo ezer gutxik. Eta Gernhardtek badaki bera ez dena seguruen 100, 200, edo 500 urteren buruan oraindik irakurriko diren horietakoa izango. Eta zer? Nor gogoratuko da gutaz hiru belaunaldiren barruan? Eta nor oroituko da idatzi eta idatziko diren orri guztiez? Honetan ere amodioarekin bezala jokatuko dute gure ondorengoek. Lehen uneotan gogoratuko dira, bai, eta gero distantziaren talaiatik so eginez ohartu egingo dira hasierako biziki maite izan zituzten literatur orri –maitasun une haiek– ez zituztela itsutu urrezkoak zirelako, beraiek eman zieten dirdiragatik baizik. Eta nahikoa izango zela urrezkotzat jo zituzten orri edo une haietarik bakan batzuk ere zilarrezkoak izan baziren.

Bai, Gernhardtek badaki ezer gutxi salbatuko dena eta geratuko den apurretik ere ezer gutxi irakurriko dena. Zenbatek irakurri ditu(gu) Homero, Virgilio, Shakespeare, Cervantes, Tolstoi? Eta gurean, zenbatek Axular, Leizarraga edo Agirre Asteasukoa edo Aresti bera Euskal Filologiako azterketen bezperan ez bada?

Ikusentzunezkoak eta literatura, aspaldiko lagun zaharrak

Literatura gero eta sarriago ikusentzunezkoek baizik ez dute bermatuko. Baliteke horretara kondenaturik egotea. Asmo horrekin idazten dutenak ez al dira, apropos edo ohartu gabe, bizirauteko aukerak sendoagotzeko baliabide bat bilatzen? Zerk ase lezake ondoen haien *egoa*: euren eleberriak edo ipuinak bizi artean eta gero ere milioika lagunek zineman *irakurtzeak* ala urte askoren barruan haien testuak, inoiz kalitatearen listoi horri eutsiko badiote, mintegietako gizakiek aztertzeak? Zein izango da haien helburu xume eta humanoa: pantaila narrats baten aitzina elkartuko diren lagunen bihozkadak eragitea giza sentimendu onen eta txarrenak sortuz ala laborategi hotz bateko esku are hotzagoen txalo zientifikoak *post mortem* lortzea?

Zertarako irakurriko ditu bideo, *tamagochi* eta Interneteko belaunadiko gazte batek Romeo eta Julietaren gorabeherak, istorio bera bi ordutan ezagutu ahal badu Leonardo DiCapriorekin batera? Zergatik Camusen *La Peste* eskuartean hartu liburua William Hurten filme batean laburbildurik baldin badago? Akaso ez genituen guk Charles Dickens edo Alexandre Dumasen liburuak irakurri eta ondoren berauen egokitzapena filmeetan ikusi? Zergatik ez dute oraingo gazteek prozedura bera aldrebes egingo? Eta bestela ere izango balitz, zer aurpegiratu behar diegu? Akaso Yul Brynner-en bidez Karamazov anaien liskarrak ezagutu genituen guztiek Dostoievskiren lana irakurri genuen gero?

Izan gaitezen baikorrak. Igoal egun batean kontrako fenomeno ere ikus daiteke. Duela 30 urte ez bezala, paperezko errealitateaz gogaituta soil-soilik literaturak pantailetan ikusi zituen mutiko hura beste garai batean biziko litzateke egun eta zeluoidearen bidez erreparatuko lioke errealitateari. Eta inoiz Shakespeare, Dumas edo Dahlen lanak biziki gustatuz gero, hauen liburueta joko du historia bera beste era batera bizitzeko. Badakit baikorre-

gia ematen dudala baina tira. Soil-soilik batek hauxe egitearekin
poztuko nintzateke. Alexandriako bideoteka bide bakarra izan
baitaiteke menturaz Alexandriako biblioteka berreraikitzeko. Edo,
sikeran, behinola bilduma erraldoi hark esistitu zuela oroitarazte-
ko, Gernhardtek egin duen bezalaxe.

Alles Liebe

ARRAMETAN BIZI DIRENAK

Arrametan bizi direnak
lurraren minez abail-
tzen ditun udazkena
oro.

Bedatsean, berriz,
zaila zaien, oi, bedats
berdatzea, arrama-
rekin bat.

Mengelago
arramak zenbat eta
argirantzago. Iluna
hoska edo miazka eten-
gabe.

Arrametan
bizi direnak uda
azken oro abailtzen
ditun lurraren minez.

ULYSESEN BLUESA

Agindu zenidan herria, baby,
ez dut inon ere aurkitzen.
Zuk bidalirik nabil,
erromes galduen legez.

Hango lehertze gorriak
hornitzera datoz sarri
iganderoko berripaper nekatuak.
Hango ikur madarikatuek
egurrezko oihartzunez
zunpatzen dute
zure altzairuzko hiri zintzoa.

Baina agindu zenidan herria, baby,
ezin izan dut ikusi.

Galdezka ibili ditut
azoka eta taberna:
inork ikusi ote
inork harako untzia non
inork hango maparik ote
ganbaran, hautsartean;
baina izen ziur barik,
noraezean, alferrik.

Nekaturik nago, baby.
Zatoz inondar honi laguntzen.

Salvador Espriu

Oi, zeinen gogaiturik nagoen neure
lur koldar, zahar, basati honetaz,
eta zein gustura joango nintzatekeen urrutira,
ipar aldera,
han jendea garbia omen da-eta,
eta noble, ikasi, aberats, aske,
argi eta zoriontsua!
Orduan, anartean, anai-arrebek, nire jokaera gaitzetsiz,
halaxe esango lukete: «Habia uzten duen txoriaren antzo,
halaxe sorlekua uzten duen gizakia»,
eta nik, urrun ordurako, trufa egingo nieke
neure herri antzu honen
legeari eta antzinako jakituriari.
Baina ez dut sekula neure ametsa beteko
eta hementxe geratuko naiz hil artean.
Ni ere koldar eta basatia bainaiz
eta, gainera, min etsitu batez
maite baitut
neure aberri pobre,
zikin, triste, zorigaiztoko hau.

Xuan Bello

Ez dut aberri hau maite.
Maite izan nuen, bai,
eta badakizue zer-nolako minez
izkiriitzen ditudan gaur bertsook.

Orain besterik ez dut honakoa baino:
zenbait kale eta han isilaren
beldur izatea, galdutako hiri bat,
nire oroipena han ehorzteko.

Zer besterik egin dezaket?

Nork nahi luke, bada, geratu
jende oro arrotza den lurralde batean?

SPOON RIVER. ITZULBIDEA

Guraso zaharrak
ere
 gezurretan
aritu omen zirelako,

aritu omen gara gu
ere
 hilketan.

Eta hori bide da
guk
 esaten
asmatuko dugun gezur berri bakarra.

GAURKO EGUNA

Gaurko eguna esan...
eta hildakoek egin legera
makurtu ohi ditun
gure bide-xenderak.

Egunari gaur esan...
baina harri-burnietan
bildu ohi gaitun
jan-edanera zein lotara,
arbasoen arauz.

Gaur den egunean...
baina aspaldiko
ur igaroek
borobildu berbak
zebilzkinagu.

Gaur egun, gaur egun,
eta ispiluan zain
aitona-amonen
gazte-hazpegiak
egungo gureotan.

Oraindik ere, gaur beti da,
eta biharko atzo da gaur,
eta atzoko bihar.

Kritikabideak



Iñaki Aldekoa
Andolin Eguzkitza
Jon Kortazar

Mendebaldea eta narraziogintza

Joseba Sarrionandia Pott bandako partaide kualifikatua izan zen. Pott talde eta aldizkariaren inguruan bildutako jendeak lortu zuen, edo elkarren arrimura ibiltzearen ondorio bat zen bestela, halako literatur gustu amankomun bat erakustea. Gehiegi litzateke, beharbada, poetika baten inguruan bildu zirela baieztatzea. «Poetika» hitz horrek duen kutsu akademiko eta solemneak ihesean jarriko zituzkeen seguru asko. Izan ere, egia da Bilbo zaharreko taberna batean, elkarren alboan eseriz, literatur gora-behera eta irakurketei buruz hitz egiten zutenean, uxatu egingo zituztela «poetika» bezalako hitz potolo eta sendoak; eta, hala ere, «poetika» batek eskatuko lukeen ezaugarri nagusietako bat bazuten jada sasoi hartan: egin nahi ez zutenaren oharkuntza sendoa. Joxemari Iturraldek esaten duen moduan, berena, neurri handi batean, tradizio anglosaxoiaren harrobira jotzea izan zen: eleberri poli-ziakoa, zinea, abenturazko fikzioa..., baina batez ere poesia eta ipuin generoak nagusitzera.

Izan zuten, nahiz eta bakarra izan, sentiera bereko euskal ait-zindaririk: Jon Mirande. Jon Miranderen narrazio-mundura Poe-rengangik Kafka-renganaino zabaltzen zen. Eta beraren poesia, Provenzako poesiatik abiatuz, Villon eta Keats eta erromantikoak zubi eginez Baudelaire eta surrealistenenganaino. Pott bandako partaideek ere ibili zituzten bide horiek. Edo, beste modu batera esateko, partekatu egin zituzten irakurketa horietako asko eta asko.

Pott eta espresionismoa

Pott-ekoek ez zuten Espainia aldera begiratzen. Zentzu hone-tan Aresti poeta sozialaren kontrako norabidea egin zuten. Gora begiratzen zuten, Europako erdialdera, eta, batez ere, alemanez idatzitako literatura espresionista erdigune zuen aldera: G. Tralken Salzburgetik, Kafka eta F. Werfel-en Prahara.

Garaia, berriz, lehen Mundugerraren ataritik surrealisten sasoi iraultzaile suharrera luzatuko litzateke, 1910tik 1933ra arte, gutxi gorabehera. Literatura eta gizartea jokoan eta iraulika lur berri baten bila nagusitzen ziren garaia. Sendikortasun iraultzaile hark bereganatuak zituen. Hor daude Rimbaud, Strindberg eta Van Gogh, esate baterako.

Egia da mundu eta ingurune espresionistak eragin sakonagoa utzi zuela Atxagarengan Sarrionandiarengan baino. *Etiopia* bera dugu horren lekuko; ez da lekuko bakarra ordea, izan ere ez baitago *Obabakoak* liburuko ipuin asko eta asko igurtzi espresionista horretatik landa ulertzetik. Ikus, bestela, Hanburg hiria kokaleku duten *Obabakoak* liburuko zenbait ipuin: «Hans Menscher» dela, edo «Klaus Hanhn», bildu dute espresionismoaren igurtzia. Sarrionandiaren *Narrazioak* liburuan ere bada, baina, eragin espresionistaren aldera errenditzen den ipuinik. «Sonbrero baten istorioa» ipuina jarriko nuke adibidetzat. Ez dut uste Gott-

fried Benn poeta espresionistaren atariko poema omenaldi soila denik; areago uste dut, bat datorrela zenbait zinegileren eta poeta espresionistaren gizaki burgesaren eta haren munduarekiko mezu eta ikuspegi ezkorrekin.

Zinari dagokionez, esan *Kaligari doktorearen kabinetea* (1919) dela, seguru asko, zinema espresionistaren gailurra, eta lan horrekin batera, Murnau filmegilearen lanak. Sarrionandiak berak «Sonbrero baten istorioa» dagokion oharrean aipatzen duen filmea ere 1930ekoa da. *Der Blaue Engel* (*Aingeru Urdina*) filmea Josef von Stenberg zinegilearen filmerik espresionistena da. Marlene Dietrich-i kontsagrazioa ekarri zion filmea, alegia. Eta Marlene Dietrich zinema espresionistaren musa gertatu baldin bazen, beste zinegile aleman baten musa gertatu zen Hanna Schygulla, Sarrionandiaren *Ifar aldeko orduak* liburuko protagonista. Rainer Werner Fassbinder zen zinegile aleman hori, eta Sarrionandiaren ipuin bateko protagonista nagusia ere baden Hanna Schygulla-rengan irudikatu zuen hark (Fassbinder-ek) emetasun eternoa.

Nahiz eta ikustea hain erraza ez gertatu, bada Lorelei sirena protagonista duen filmerik. Ulises-en abenturan, sirenen kantua hilgarri gertatzen bazen Homeroren nabigatzaileentzat, beste hainbeste gertatzen zen Rhin ibaiko Lorelei sirenarekin: beregana erakarriz galtzen zituen betiko ibaiko nabigatzaileak.

Neskuts batez maitemindu den agure baten istorioa du kontagai ipuinak. Fantastikotzat har genezakeen estiloan dago antolatu istorioa; izan ere, ipuinaren protagonistak berak idazten du ipuin bat, non agure bat neskuts batez maitemintzen den, ipuina kutxa txinatarren tankeran eraikiz, eta bertan zorigaiztoko amaiera ematen dio protagonistak istorioari. Jakina, gauzak horrela, logika fantastikoari jarraituz, protagonistak bere burua ere amaiera gaiztora sententziatzen du.

Ipuin fantastiko horren muinean Faustoren mitoa ere badago;

alegia, bizitza osoa estudioan xahutu ondoren, jakintsua izanagatik ere, frustrazio hondogabeak jota dago agurea. Honela zioen Werner Hebbel protagonistak ispilura begiratu eta zimurrez ondatutako irudiari begira:

«Pentsatu du, alferrik iragan dituela hainbeste urte gela zokoan, kartoiharrizko hormak eraikitzen, eta aidezko panpinaren artean. Hutsala da bizitza neskatilaren begirada baten aldamenean».

Izan ere, «Orientalia, Botanica, Rhetorica, Chromatica, Graeca et Latina Theatralia eta beste» karpetak bertan behera utzi eta Lorelei neskatilaren irudi iheskor eta lilurazkoaren atzetik abiatuko da.

1920ko urteetako zinegile espresionisten lanetan, geroago, 1930eko urteetatik aurrera alegia, Alemaniako gizartean nagusitu behar zuten sen erasokor eta baldarrenak aurreikusi bailiren, bor txakeria ilunen irudi ugari azalduko da. Hiltzaileek, psikopatek, eroek eta bestelako indar sunsitzzaileek hartu zuten protagonismoa filme horietan. Kainzale eta parrizidiogileen belaunaldia. Eskizofrenia edo nortasun aniztun patologiak ere gero eta arruntago bilakatu ziren.

«Itzalaren solasa» ipuina ere, tradizio luze baten ildoan datorena bestalde, ez legoke gorago aipatutako literatur testuingurutik oso urrun. Erdi Arotik, gutxienez, ezagutzen da bere itzala hil nahi zuenaren istorioa. *Peter Schlemihl* da haren bertsio erromantikorik famatuena. Baina espresionismo aurreko Hofmannsthal idazleak ere idatzi zuen «Itzalik gabeko emakumea» narrazioa. Chamisso-ren «Peter Schlemihl» narrazio luzea ere mito fantastikoan oinarritzen da. Zein erakarmen ote du itzala bezalako motibo batek espresionista batentzat? Eta Hoffmann-en ipuinetan eta E. A. Poe-ren «William Wilson» ipuinean oinarrituta, «Der student von Prag (1913) filmea egin zuen Paul Wegener-ek. Motibo berbera aurkitzen dugu Sarrionandiaren ipuinean. Kon-

tuan hartu, bestalde, Freud-en teoriak famatzen ari zirela sasoi hartan. Eta, honetan ez dago dudarik, Freud-en inkontzientek, histeria eta bestelako nahaste patologikoek berebiziko inportantzia zuten espresionistentzat, eta, gerora, ondorengo literatur ondare luze baterako.

Atabala eta euria liburuko «Hiri bazterreko edifizio batetarik» ere testuinguru kafkiar eta itogarrian kokatu nahi genuke. Espresionismoaren aitzindari den Eduard Munch margolariaren «Garrrasia» (1895) bezalako sentikortasunetik gertu. Mundu hertsu eta itogarria da ipuin horrek irudikatzen eta kutsatzen duena. Garraisiaren estetika eta paroxismoa espresionismoak hain gustuko ziztuen fantasia onirikoaren ildoan daude.

Itsasoaren ikonografia Sarrionandiarengan

Espresionismoaren testuinguru hori utzi eta gatozen orain itsasoa irudimen-motibotzat duten lanetara. Eta honako honetan bi zain nagusi ditu Sarrionandiak: Melville-ren eta Coleridge-ren abentura transgresoreak: *Moby Dick* eta *The Ancient Mariner* (*Marinel Zaharrak*). Eta irudimenezko eta abenturazko mundu honetan marinelak dira protagonistak. *Narrazioak* liburuan bi ipuin nagusik garatzen dute mundu hori: «Arima naufrago bakar-tiak» deritzanak eta 1987ko poemaliburuari ere izenburua eman zion «Marinel Zaharrak» ipuinak. Bi ipuin horietan bildu eta mamitu du Sarrionandiak itsasoaren ikonografia modu osatu batean. Nahiz eta hurrengo ipuinliburuetan itsasoaren motiboa behin besterik garatu ez, itsasoaren oihartzunik duten ipuin berriak kondematuta daude aurrekoen estalpean bizirautera. Sarrionandiaren itsasoko ipuinetako motibo nagusiak Coleridge eta Melville-renak badira, Poe-rengandik Conrad-enganainoko tradizio osoa dago bilduta istorio horietan. Baita Erdi Arotik datorren «Judu Noragabekoaren» elezaharra ere.

Ismael Larrea bihurtuko da egilearen *alter ego* narratzailea. Honako hauxe da Melvilleren *Moby Dick*en hasiera: «Call me Ishmael» («Demagun Ismael naizela»). Gurean, Ismael Larrea. Eta Ismael Larrea poeta da. Eta halaxe gertatzen da *Atabala eta Euria* ipuinliburutik aurrera, egileak argitaratu duen azkeneko poemalibururaino. 1995eko izenburu zaileko poemategian ere Ismael Larrea dugu protagonistaren izena.

Itsasoaren presentzia are zabalagoa eta sendoagoa da Sarrionandiaren poesialiburuetan.

Pott eta Borges

Gorago esan dugu Pott-ekoek irakurketa eta literatura asko zutela beren artean amankomunean. Eta, badago egile bat, seguru asko, egiazko plazerrez irakurri zutena. Egile hori Borges da. Genero motzetan maisua. Pott-eko jendeak bezala, poesia eta ipuinak idazten zituen egilea. Borgesek ireki eta erakutsitako lehiatilatik literaturunibertsoko zirrikitu ugari bisitatu zuten Pott-ekoek. Borgesen eragina ez da hainbeste ipuin jakin batetik edo bestetik jasotakoa. Ez. Ez da eragin mota hori. Eragin hori beste idazle batzuen da. Askoz ere eragin sakonagoa da Borgesena: literaturaren aurrean jartzeko modu bat da harengandik ikasi zutena, literaturalfabeto bat. Tradizio baten lekukoa jaso zuten Pott-ekoek eta, bai Sarrionandiak eta bai Atxagak, jaso zuten tradizioaren azken diseinua Borgesena zen. Izan ere, Munduko literaturaren entziklopedia moduko bat eskaini zien Borgesek ondorengoei, eta literaturaren oihan horretan ez galtzeko mapa osagarri bat. Danteri Virgilio fortunatu ez balitzaio infernua, larri ibili behar zuen Florentziako poetak handik onik ateratzeko. Antzerako zerbait esan genezake, aldeak alde, Pott-ekoek aurkitu ez balute Borgesek bere antologia, saiakera, iruzkin eta elkarrizketetan eskaini zuen sintesirik. Nola gauzatzen da, baina, eragin

hori? Hara, ez da munduan beste egilerik izango motibo gutxi batzuei Borgesek adina bira eman dionik. Bere gogoetetan behin eta berriz dakarren motiboa itsasoarena da, eta Poe-ren *Arthur Gordon Pym*-en abentura txuriarekin abiatu eta Melville-ren balea zurira jauzi egin, eta handik Stevenson-en altxor uhartera eta Conrad-en itsasoetara. Villiers de L'Isle Adam edo Marcel Schwob bezalako idazle sinbolistak ere haren eskutik pasa ondoren famatu ziren inguru honetan. Eta, zer esanik ez, Chesterton, Lewis Carrol eta tradizio anglosaxoniarrereko idazle askoren kasuan. Odin eta mitologia eskandinaviarraren eta zeltaren ezagutzaile aparta, ez da motelagoa Arabiako *Mila gau eta gau bat gehiagoko* tradizioari bagagozkio, Marco Polo eta abar. Poesiari bagagozkio, aipatu, idazle argentinarrentzat espresionismoak izan zuen garrantzia. Gogoangarriak dira, bestalde, eleberri psikologikoaren aurka, eta abenturazko eleberriaren alde, Borgesek erakutsitako abilezia dialektikoa. Ipuinaren eta poesiaren defendatzaile sutsua, haren argudio eta arrazoietan derrigor aurkitu behar zituzten Pott-ekoek berena defendatu eta bultzatzeko babesik. Eta halaxe gertatu bide zen. Ez dugu ahaztu behar 80ko urteetan ez zutela, ez Atxagak eta ez Sarrionandiak, eleberririk idatzi. Ez eta ekingo ere, orain arte, ahalegin horri Sarrionandiak.

Kasualitate hutsa baizik ez ote, *Narrazioak* liburuan aipatutako zinegile bakarra, Josef von Stenberg, Borgesek estimatuen eta aipatuenen artean egotea? Edo, Bernardo Atxagak Eça de Queiroz-en *Basilio lehengusua* eleberria Flaubert-en *Madame Bovary* baino nahiago izatea? Izan ere, nondik ezagutu zezakeen Atxagak eleberrigile portugaldarra, Borgesen ahotik pasa aurretik Espainian bertan ere ezagutzen ez zutenean? Halako adibide gehiago bil daiteke pasadizu gisa.

Garai hartan euskal literaturako giroa iluna eta tristea zen, Existentialismoaren eta konpromezuaren larriak itotako literatu-

ra baten aurrean, literaturaren autonomia errebindikatu zuten Pott-ekoek, eta zulo itogarri horietatik egurasteko bidaia eta ironia aukeratu. Euskal literaturaren beste zutabe sendoa Saizarbitorriaren eleberrigintza zen; baina ibilbide hori ere ez zuten gustuko: zorrotzegia, hotzegia edo objektiboegia gertatu bide zitzairen.

Honaino Sarrionandiaren, Atxagaren eta Borges-en arteko ibilbidea. Baina elkarren konpainiatik banandu baino lehen, gogora dezadan Atxagak *Narrazioak* liburuari epilogo gisa idatzitako ipuina, lagunari eskainitako omenaldia ere izan nahi zuena. *Obabakoak* liburuan «Ni, Jean Baptiste Hargous» izenburuarekin bildu zuen ipuin hark badu Sarrionandiaren iruditeriarekin zerikusirik. Iruditeria horren paisaia Erdi Aroa da, edo Erdi Aroko istorioen bertsiorik eguneratuena. Merlin zaharraren istorioak dastatzeko orduan Borges eta Sarrionandia gogaide agertzen zaizkigu. «Ni, Jean Baptiste Hargous» ipuina, gogaidetasun horren begirunez idatzia da, beharbada.

Beldurrak eta izuikarak eragindako ondorio patologikoak irudikatzen dizkigu ipuinak. Nahiz eta Erdi Aroan kokatu eta girotu, XX. mendeko gizartearen larritasunarekin zerikusi estuagoa du muinean. Atxagaren ipuin hori ere gorago aipatu ditugun sendikortasun espresionistaren alboan jarriko nuke. Eta, hala eta guztiz ere, Joxemariren «Lau Zaldun» ipuinak, Atxagaren aipatu berri dugunak eta Sarrionandiaren *Atabala eta Euria* liburuko «soldadu-ipuina»k badute beren artean antzekotasunik. Beharbada, hirurak ere Buzzati-ren mezularien eta *Tartaroren Basamortuaren* oihartzunen berri jakin ondoren idatzitakoak direlako.

Mirande eta Sarrionandia

Sarrionandiak begirune eta arreta berezia jarri izan dio beti Miranderen literaturari. Hasi haren *Haur besoetakoa* lanarekin eta poetarenarekin segi, etengabea izan da Miranderekin izan duen

solasa. Harreman horren ildotik bi lan luzexka ere eskaini dizkio Sarrionandiak iparraldeko poetari: *Ni ez naiz hemengoa* liburuko «Mirande eta melankolia» eta *Marginalia* liburuko «Jon Mirande poeta intelektuala». Hara nola mintzatzen zaigun Sarrionandia *Marginalia* liburuan:

Euskal literaturaren historian Jon Mirande halako autore mugaile bat da. Bere biografiari, bere ideologiari, bere mintzairari, bere gaiei, bere perfekzioaren bilaketari dagokionez, Jon Mirande muga-idazlea da, marginala. Euskal idazle inportante ia guztiak, bakoitza bere aroan eta bere mezuarekin, organikoak izan dira: Nikolas Ormaetxea, Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga euskal munduaren fruituak dira. Jon Mirande ez da organikoa, poeta intelektual eta organista bakartia da. (133. or.)

Eta aurreraxeago:

Bagenizkian Pott-ei buruz ari zaigun Jon Mirande laket izateko arrazoiak: bere kalitate literarioagatik, bere modernitateagatik, bere heterodoxiagatik, bere pertsonalitatea korrontearen kontra eusten frogatu zuen kemenagatik.

Bataren eta bestearen arteko literatur-kidetasuna erabat aztertu gabe ere, gorago zerbait aurreratu dugu, soilik Erdi Aroa auke-ratu dut motibo nagusi gisa honako honetan. Erdi Aroak bi poetengan duen presentziaz oharkabean pasatzen ez da erraza. Alde horretatik, esan genezake hurbiltasun sakon bat ere badagoe-la bi poeta eta ipuinlarien iruditerietan. Esate baterako, *Ni ez naiz hemengoa* liburu-egutegian badira gutxienez zortzi flash Erdi Aroko gairen bat garatzeko. Horietako bi Arthur erregearen zikloari buruzko gogoetak dira, hirugarren bat Chretien de Troyes idazlearen lan bati buruz, laugarren batek gerraz, kortesiaz eta erotismoaz dihardu, eta abar.

Narrazioak liburuko bi ipuin nagusik zabaldu eta erakutsi ziguten Erdi Aroko paisaia oparoa: «Ginebra erregina herbestean» eta «Kristalezko bihotza» ipuinek. Lehenengoarekin Arthur erre-

gearen zikloan murgiltzen gaitu bete-betean, eta motibo edo iruditeria arthurikoak aitzakia hartuta Sarrionandiak paisaia bretoi horretaz idatzi duen ipuinik biribilena da. Hurrengo ipuin liburuetan ere ageri dira ziklo arthurikoaren zenbait motiboren aldaerak, esate baterako *Atabala eta Euria* liburuko «Eguzkiak ortze urdinean nabigatzen» ipuin fantasiatsua. Presebal dugu Grealaren inguruan eraikitako fantasia horren protagonista. Hain gustukoa duen animalia sakratu baten hilketa ere gertatzen da ipuinean. Coleridge-ren albatrosarekin gertatu bezala, honako hone-tan adarbakarrarekin gertatuko da. Transgresioa eta fatalitatea. Liburu bereko «Ezpata hura arragoan» ipuina dugu ziklo bretoi- an girotutako bigarren ipuina. Arthur erregea eta Ginebra eta Fool azalduko dira berriz ere. *Ifar aldeko orduak* liburuko «Amorante ausarta»k ere motibo bera garatzen du. Sarrionandiaren *Atabala eta Euriako post scriptumari* zuzenketa xume bat iradokiz, zera esango nuke, Propertzio-rengandik abiatu eta Baudelaire-rengaino iristen den tradizioan ez direla deabru txikiak, baizik eta hildakoen arimak, defuntuak. Inkubo eta sukuboen istorioetan, berriz, birjinak eta fraideak estaltzen dituzten deabrutxoak dira nagusi.

Ipuin horiek ez dute *Narrazioak* liburukoaren mailarik. Objektiboki ba al dago horrelako baieztapenik egiterik? Eta erantzuna honako hauxe izango litzateke: objektiboki ez, baina subjektiboki bai; izan ere, irakurketa azken finean subjektiboa da, eta nahierakoa gainera. *Narrazioak* liburuarekin paisaia berri eta freskoetara erakarri gintuen Sarrionandiak maisutasun handiz. Hango kolore eta emaitzak dastatu ondoren, *déjà vu* sentsazioa ezin baztertzekoa da *Atabala eta Euriako* zenbait ipuinekin, eta beste horrenbeste *Ifar aldeko orduak* liburuari bagaiozko.

Arthur erregearen inguruko irudikeria bretoiarekin zeharo hautsi gabe, «Kristalezko bihotza» ipuina aurkituko dugu *Narra-*

zioak liburuan. XV. mendeko Durangoko heresia du inspirazio iturri. Ipuinaren izenburuari erreparatzen badiogu, ostera, Greal sainduaren iruditeriaren baitan kokatzen gaitu: izan ere, «Ginebra erregina herbestean» ipuinean kondatzen den bezala, Galahadenganako esperantzak haren heriotzarekin amaitu ondoren, honelaxe gelditzen da egoera: «Hil egin da Grial sainduaren esperantza guztia, esperoa besterik ez uzteko, hautsi egin da “kristalezko bihotza” eta herbesteko lurretan barreiatu geratu dira puskek, xederik gabe».

Honaino Sarrionandiaren eta Erdi Aroaren arteko harremani buruz. Eta Mirandek zer ikustekorik du honekin guztiarekin? Egia da urak eta itsasoak esanahi sakona dutela Miranderengan. Haren poesiatik *Haur besoetakoa* ipuin luzera, ura esanahi izpiritualez kargatutako motibo sinbolikoa da. Ez diegu, baina, ertz horretatik helduko oraingo honetan. Miranderen Erdi Aroa da una honetan irudikatu nahi nukeena. Eta bretoi eta zelten kulturaren miresle sutsua izan arren, ez zen bere lanetarako hango literatur-harrobitik apenas hornitu. Ez zuen, esate baterako, Arthur zikloaz baliatuz, poemarik edo ipuinik antolatu. Mirande sasoi heroiko haientzako sen berezi batez hornituta egonik, zergatik ez zen baliatu Erdi Aroa eta geroagoko sasoiak ere liluratu zituen saga oparoaz? Beharbada hauxe izan liteke erantzuna: Arthur erregearen ziklo bretoi osoa kristautasun igurtziz koloreztatu ezagutu zuelako Erdi Aroak. Hori ukazina da. Geoffrey de Monmouth elizgizonaren merezimendua izan zen, mundu zeltaren elezaharrak moldatuz, eta kristautasun gero eta hedatuagora egokituz, Arthur erregearen asmazioa. Arthur erregea buruzagi handi eta kristau sakonago agertzen zaigu Monmouth-en *Historia Regnum Britanniae*-n. Bere aberri kristaua babesteko saxoniarren eta paganoen aurka borrokatzen deskribatzen zaigu Arthur erregea. Hangoak ditugu Arthur erregea, Ginebra eta Merlinen lehen iturriak. Geroxeago etorri zen Chretien de Troyes-en *Arthurren*

heriotza (XIII. mendea) eleberria, bertan Arthur erregearen istorioaren barrenean, Lanzarote eta Grial saildua agertzen direla, honako hau ere kristaututako elezahar zelta eta paganoa.

«Grial saildua» aipatzen bada ere, ez du Sarrionandiaren ipuineko Arthur erregeak kristautasunaren igurtzirik. Aitzitik, ipuineko Arthur erregea arkaikoa agertzen zaigu bere mendekuan. Antzinakoa. Ez du Sarrionandia kezkatzen Mirande erne jarri bide zuen ikusmolde paganoak. Sarrionandiaren ipuina erromanizatua dago, XX. mende amaieratik ezin giroketa hori beste sentikortasun batez irakurri. Horretaz, baina, aurrerago jardungo dugu. Miranderena epikarako joera grinatsua zen. Zalduneriak eta mundu burgesaz arras bestelakoak ziren joko aristokratikoza-leek Miranderen lilura berehalakoa bilduko zuketan ezinbestean. Antzinasun-gerlari definigaitz batean girotu izan zituen Mirandek epika kutsuko poemak.

Badira, ordea, gutxi batzuk Erdi Aroaren igurtzi berezia dutenak: «Jauregi hotzean» edo «ilhun-nabarrez» poemak, esate baterako.

Har dezagun azken poema hori, «ilhun-nabarrez» deritzana, alegia;

Gelatxo zuri garbian
neska dago
ilhe gorriak orrazten, ilheok ilhun-nabarrez
gorriago...
Ni naun zaldiz ethorria
amore-zun,
hurrundikan, hain hurrundik!

Poema honetako gelatxo txuri horretan Ginebra erregina ere irudika genezake «bere adats horail luzeak orrazten». Eta iradokizunen talaia honetatik, jarrai genezake Erdi Aroko maitasun-

giroan gehiago murgiltzen; eta, seguru asko XII. mendetik aurrera Proventzan sortu eta Europa osora zabaldu zen «kortesia» edo «maitasun gortesauaz» hitz egitera ere behartuta aurkituko ginatke. Proventzan sortu eta Mendebaldearen maitasun-kodea aldatu zuen erritual gortesauan, zalduna zen, Mirandek poeman zioen bezala, amore-zun agertzen zaiguna. Emakumea, ohi denez ezkondua eta etxe onekoa izaten zen. Dama horri eskainiko dizkio zaldunak bere arrakasta eta nahigabeak, eta haren bedeinkapena jasoaz itzuliko da bere zereginetara edo gerlara. Zaldunaren arrakastak damaren trofeo bihurtuko dira. Aurrerantzean damaren menpekoea da zalduna. Gizarteko «estamentuak» alderantzikatuz hartu zuen maitasun-tankera berriak. Poetak izan ziren maitasun-tankera estilo berri hori famatu zutenak. Eta poesiaren tradizioan ere iraupen sakona izan zuen: Dante eta Beatriz, Petrarca eta Laura; eta Zalduneriaren karikatura eginez, baita Quixote eta Aldonza Lorenzoren (eroaren magiak Dultzinea Tobosoko bihurtu zuena) artekoa ere, harrigarriro itsusia eta baldarra zen neska, hara nola edertu zuen Quixoteren magiak.

Arthur erregearen erresumaraino iritsi zen, nonbait, gortesia-
ren estilo berria; izan ere, Lancelot eta Ginebraren arteko maitasun
itsuak sona handia lortu baitzuen Erdi Aroan Mendebalde
osoan. Dantek berak ere izan zuen maitasun adultero horien
berririk, bigarren zirkulura infernuruak izan ziren Paolo eta
Francescaren ahotik jakin ere. Behiala, Paolo eta Francesca, Lan-
celot eta Ginebraren arteko maitasun-istorioa irakurtzen ari ziren,
eta bi protagonistak beren erakarmenari ezin eutsiz, musu bero
batean estutu ziren unean aurkitu zuten, Paolok eta Franceskak
ere, elkarrenganako amodioa. *Jainkozko komediako* pasarte ezagu-
na da oso hemen jaso duguna, eta maitasun gortesauaren tradizio-
aren ildoan kokatzen gaitu.

Eleberrigintza errealista eta ipuingintza

Narratzailearen objektibitate zorrotza kontuan harturik, narrazioan zehar ikustezin gertatzeraino, edo *Madame Bovary* eleberritik aurrera erromantizismo-kutsua har zezakeen emozio xumeena ere nola zientifikoki aletu eta xehetzen zuen bere unitaterik txikieneraino ikusirik; fantasia definigaitz eta etereoek haren destaina zorrotzena merezi zutela ikusirik, behaketaren eta dokumentaketa zorrotz eta maniatikoaren lehendabiziko eleberrigileztat har genezake Flaubert. XIX. mende erditik aurrera izan duen eragina kontuan hartuzera, berriz, aurreneko eleberrigile modernotzat ere har genezake. Poesiaren unibertsoan Baudelairek izan zuen eragina, Flaubertek izan zuen eleberriarenean.

Berea dugu zientziaren eta artearen arteko ezkontza hau, alegia, aurrerantzean gero eta kondenuatua dagoela artea zientziarekin bat egitera, eta baita alderantzizkoa ere, zientzia ere artearen eremura hurbiltzera kondenatuta dagoela. *L'Education Sentimentale* eleberrian desagertu da abentura. Eleberri horretan erabat desagertu da intriga, ordura arteko eleberriaren bizkarrezurra gertatzen zen istorioa, eleberriak zerbait kondatzen bazuen istorio bat kondatzen baitzuen, ito da oraingoan. *L'Education Sentimentale* horretatixe garatu zen «Naturalismoaren eskola» eta literaturmugimendua. 1890 inguruan sinbolismoaren ingurutik, eta Stevenson abenturazko tradizio ingelesa errebindikatzen zutenen aldetik, iritsi zen Zola eta eleberrigile errealisten aurkako erantzuna. Huysmans-en *A Rebours* (1884) eleberriak errealismoaren aurreko agortze eta nekearen lekukotasun bat eskaini zuen. Villiers de L'Isle-Adam-ek bere *Ipuin Krudelak* liburuak edo Marcel Schwob-en *Bizitza irudikakoak* ahaztutako magia eta zirrara poetikoa, erromantikoagoa edo idealagoa, berreskuratzeko premia larria erakusten dute. Eleberri errealistak, bizitzaren alderdirik arrunteetan jari zuen bere arreta. Ez da ezer gertatzen eleberria horietan, bizitza beraren ñabardurak dira desfile monotono eta

aspertuan igárotzen ikusten dituenak irakurleak. Stevensonen *Altxor uharteak*, ordea, beste lilura mota bat eskaintzen zion M. Schwob-i, abenturaren eta emozioaren xarma. Narratzailea ez da, eskola errealista zorrotzak bezala, *voyeur* bat; alderantziz, parte-hartze zuzena du abenturan, ez erakusteko, deskribatzeko eta esplikatzeko, ez, fabulatzeko baizik, fabulazioaren une motibagarrri, esentzial eta misterioetsuenetan murgildu, eta onik irteteko baizik. Sinbolismoaren sasoi horretan, 90eko urteetan, ipuinaren aldeko eta eleberri errealistaren aurkako erreakzioak batera iritsi ziren. Villiers de L'Isle-Adam eta Marcel Schwobek, Baudelaire eta Poe-renganainoko tradizioa erreibindikatu zuten. Bizitza modernoari aspergarria irizita, bestelako giro eta paisaietara jo zuen izpiritualtasun eta magia berri baten egarriz zegoen 90eko belaunaldiak. Seguru asko literatura (eta literatura esaten dugunean, irudi errealista deskribagai zituzten eleberriaz ari ziren) arruntzat hartu zuen belaunaldi horrek, atmosfera aldaberritu horretarako poesia eta ipuina genero egokiagoak iritiz. Atmosfera hori erromantizazio berri baten ezaugarritz jantzita hedatu zen. Bestalde, urte horietan, 90eko urteetan alegia, hartu zuen ipuinak bere azkenengo tankera, gaur egun ezagutzen zaion forma modernoa.

Sarrionandiaren narraziogintza lirikoa

Zaila da, ezinezkoa ez esatearren, definitzea zer den eleberri liriko bat edo ipuin liriko bat. Esate baterako Miranderen *Haur besoetakoa* eleberri liriko bat da, baita Novalisen *Heinrich von Ofterdingen* ere. Lehendabizikoa «lirikoa» adjektiboak poesiaren mundura bultzatzen gaitu; eta, hala eta guztiz ere, adierazi nahi den lirikotasun horrek ez du poesiaren generoaren baitan eman daitezkeen subgeneroekin edo zerikusiz zuzenik. Poesiarekin zerikusirik baduen arren, ez lirikak zentzu estuan lukeen esanahi generikoarekin. Ez du, ildo horretatik, maitasunaren adierarekin zer ikustekorik. Areago du «poetiko», edo fantasiatsu edo irudi-

menarekin harremanean dagoen atmosfera baten iradokizunarekin. Ohartzan naiz, hala ere, ez dela zehatza hurbilketa hori; izan ere, Atxaga ere sartuko bailitzateke, misterio, ikuspegi edo, berak esango lukeen gisa, begirada poetiko baten igurtzipean koloreztatutako mundu barnerakoi eta esentzian. Eta, ezaugarri eta irakurketa asko partekaturik ere, begibistakoa da Sarrionandiaren eta Atxagaren arteko idazkera-desberdintasuna. Zertan datza, baina, desberdinatsun hori? Zeren, egia esan, bi ipuingileen lanetan dago ikuspegi subjektiboa, eta nolabaiteko trszendentzia erromantizatu baten eraginik. Ezinbesteko eragina, bestalde, ez baitago haren eraginetik ihes egin duen arte modernorik. Eta, hala ere, bi ipuinlarien arteko «faktura» desberdinez mintzatu beharko genuke: atmosfera poetiko eta begiratu barnerakoi hori neurtuagoa Atxagarenean, eta nabarmenagoa eta ugariagoa Sarrionandiaren.

Sarrionandiaren *Itzalarekin solasa* ipuina, «poetika» xume baten azalpen moduan ere har daiteke. Itzalak galdetzen dionean, ea zergatik ez dituen gertatutako gauzak kondatzen, honakoa da idazlearen erantzuna: «gertatu diren gauzak kazetetan diatozak, gainera errealitatea bizi egiten denez ez duk hainbeste kondatu beharrik». Aurrerago dio, «misterio eta posibilitateen erremuetara sartzea» dela bere asmoa, «gauzen nabardura poetiko ezkutua azaltzen entseiatzea». Egungo artean, «gauzen bihotzera hurbiltzeko» ahalegina bazterrezina dela. Eta ondoren, idazlearen (Sarrionandiaren) irakurgai askoren zerrenda eskaintzen digu. Gorago «erromantizismoa» hitza erabili dudanean, ez nuen beraren adiera historiko eta zehatzenean erabili nahi. Ez periodizazio historiko eta literario gisa, askoz ere zabalagoa den zentzuan baizik, artearen eta munduaren aurrean dugun bizitzeko jarrera bizi eta animikoa hartuko lituzke kontuan. Hofmannsthal idazle austriar eta espresionista, Sarrionandiak berak idazle erromantikotzat hartzen du. Gainera, funtsean arrazoi baitu, espresionismo erromantikozalea

baitzen harena. Adibide hau hona ekarri badut, zera adierazteko asmoarekin izan da, garai historiko zehatzez harantzago badagoe-
la «erromantizismoa» bezalako egoera animiko bati buruz jarduterik. Eta hori, gure poeta eta idazlearen kasuan bezala, nahiz eta T. S. Elioten *The Waste Land* poema anti-erromantikoa itzuli. Aipatzen dugun erromantizismo animiko horrek eta lirikotasunak ez dute zergatik orpoz orpo ibili beharrik.

Sarrionandiaren *Narrazioak* ipuinliburua hartuko banu, eta ipuinlirikotasun edo poetikotasuna miatzera jarriz, ez litzateke ipuinik geldituko adibiderik eman ezinez: *Estazioko begiradak* ipuina da, esate baterako, narrazio lirikoaren adibide enblematikoa. Ipuinaren giroketa: estazioa, tren eta aulki batean eserita haren zain dagoen emakume edo gizakume bakartia. Baina ipuinaren *flash* moduko motibo bakoitzaren ondoren, aulkian ez andererik ez gizonik ez zegoela jakingo dugu, irudimena zela guztia, irudimen horrek sortu eta ehundutako irudiak. Eta, hala eta guztiz ere, *flash* horien eragina sakona gertatu da, bizitza bat sintesi kondentsatuan eskaintzea lortzen duten flash horien poetikotasun eta atmosfera berezia, lirikoa deitu duguna, erabatekoa gertatu da. Areago esango nuke, istorio, intriga edo bestelako baliabidearen aldean, atmosfera poetikoa bera iradokitzea dela garrantzitsuagoa ipuinaren baitan. Narrazio llabur lirikoak dira. Edgar Lee Masters-ek, *Spoon River Anthology*-an, ia berrehun poema-bizitza llaburbiltzen ditu; hilerriko epitafioetan oinarrituz, epitafio bakoitzetik, defuntuari eskainitako poema bat sortuko du. Edo, bestela, Wordsworth eta Coleridge-k beren *Balada lirikoak* liburuan bildutako baladen antzera, non balada bakoitza pertsonaia baten bizitzaren narrazioa den. Esate baterako, «ene anderea [...] goazen etxera; haurrari ditia emateko ordua da» esanez amaitzen den *flash* horrek Wordsworth-en «ama eroa» baladaren istorioa dakarkit burura.

Ipuinez ipuin jasotako beste adibide batzuk: «dortoka haien barruan marinela naufragatuen arimak higitzen direla zioen» (23. or.), «eta malko bat isuri du Ginebrak, kristaltxo baten antzera erori zaio masailean behera» (28. or.), «hegalik gabeko hegazti bat da bere bihotza» (35. or.), kaleko hotzari «gizagaisoak umilatzen dituen dama krudel hori» deitzen zaio (71. or.), «bizitza, elursorta bat bezala» (75. or.), «zeure adats beltzaraneko gau hedetan etzanen naiz» (74. or.), «ilunabarreko zazpirak laurden gutiagotan, gaua jadanik animalia zabal eta ubeldu bat da» (81. or.) edo «itsasoa, gaur kalatxoririk gabeko aho beltz eta sakon bat dela pentsatu dut» (128. or.). Adibide horiek guztiak *Narrazioak* liburukoak dira soilik. Gehiago ere badira, eta antzeratsu gertatzen da ondorengo liburuetan ere.

Ni ez naiz hemengoa

Sarrionandia poeta eta Sarrionandia ipuingilea orpoz orpo dabilta; bataren baliabideez baliatuko da bestea, batarenarekin hornitzen bestea. Esate baterako kalekantoiko «loteria saltzailea» ipuinetan eta poesietan agertuko zaigu. Coleridgeren baladako eta Melvilleren abenturako marinela nonahi agertuko zaizkigu eta kontaezinak dira poeten oihartzunak *Narrazioak* eta beste ipuin-liburuetan. Azken puntu honetan ez dut kartzelan idatzitako eguneroko zoragarri hori aztergai. Modernitatearen maisu eta gogoeta asko biltzen dira bertan. Modernitate hautsiaren zati-txo edo ertz asko bata bestearen atzetik. Eta, baita Modernitateetik asmatutako tradizioaren edo aitzindarien zenbait *flash*. Hemen-goak ez direnen artean Etxahun bertsolaria ere aurkitu dugu. Joseba Sarrionandiak *Ni ez naiz hemengoa* izenburuarekin egunkariko zatiak batu zituenean, bi mailatan gutxienez mintzatzen ari zitzaigun. Bera, Sarrionandia, ez zela kartzelakoa. Bazuela alegia sorterrri bat, Iurreta eta Durango aldean bazuela familiarik eta

lagunik. Kartzela ez zen bere aberria. Ezta erbestea ere, erbestera-tuena. Maila fisikoa alde batera utzi eta maila izpiritualago batera jauzia emango bagenu, berriz, gure Modernitatearen bazterrik bazter agertzen zaizkigun umezurtz andana luzearen ildoan le-goke Sarrionandia ere. Frantziako Iraultzaren ondoren, eta burge-siaren arrazoimen gehiegizkoari erantzuna eman zion erromanti-zismotik hasi, eta gaur egun arte bizi izan du Arteak arrotzasun-sendimendu larri hori. Hemengoa ez den beste nonbaitekoa iza-tearen sendimendua.

Jean-Paul Farguek ere halaxe zioen, «hainbeste egin dut amets, non eta ja hemengoa ez naizen». Dexente lehenagotik zituen esanak Novalis-ek hitz horiek: «ez naiz hemengoa». Baudelaire-ren ondoren ere badakigu «egiazko bizitza beste nonbait dagoela», Rimbaudek ere gauza berbera errepikatu zuen, eta baita oraintsu bertan Milan Kunderak ere: zinezko bizitza beste lekuren batean izatearen sendimendua, eta egokitu zaigun munduaren aurrean arrotz aurkitzea geure buruak. Albert Camusek ere gauza berbera konstatatu zuen 1940an, bere karnet edo koadernoan. *L'Étranger* amaitu baino bi hilabete lehenago hauxe zioen: «Tout m'est étranger [...]. Que fais-je ici, à quoi riment ces gestes, ces sourires. Je ne suis pas d'ici, ni d'ailleurs non plus [...]».

Arrotzasun horrek, haatik, gure modernotasuna definitzen du, hausturarik gabe ez dago modernitaterik. Eta Modernitate horrek gogaitu egiten gaitu, Melvilleren historiako Ismael kontalaria go-gaitzen zuen moduan. Mundu burgesaren eta arrazionalismo materialistaren aurrean, Melvilleren pertsonaiak aukeran nahiago izan zuen itsaso ezezagun eta irrazionalistaren barrena menturatu. Joseba Sarrionandiaren heroiak ere, Arthur erregea eta Ginebra bezala, erbesteratuta bizi dira, pertsonaia errebelde eta galtzaileak dira. Maiz obsesio fatal baten menpe agertzen zaizkigun pertso-naiak:

— Baina kalatxorien leienda hori —galdetu diot— zuk sinisten duzu?

—Zer da sinistea? Kalatxori bat hil duen marinela itsasoak hiltzen du. Baina, emazteak itsasora ez irteteko esan eta ez doan marinela, orduan ez da marinela, ez da ezer... (129. or.)

Sarrionandiaren marinelek behin eta berriz ekingo diote, nahiz eta bertan galdu, ekintzari, abenturari. Ekintza etengabe, abentura amaigabe hori bihurtuko zaie, Baudelaireri edo Conradi bezala, itsasoa ihesbide eta osturu Sarrionandiaren marinelei. Transgresoreak dira Sarrionandiaren protagonistak, Ulises, Coleridgeren *Marinel Zaharra* eta Ismael bera ziren neurriko transgresoreak. Hirurak heldu ziren, ordea, beren abenturaren berri ematera. Jainkoen mugak desafiatu zituzten heroi horiek gupidagabe kolpatuak gertatu ziren. Iritsi zuten baina azken orduko errukirik ere. Azken finean, gupidagabeki kolpatutako horiek jainkoen babesik ere izan baitute Mendebaldeko bi tradizio nagusienean, Ulises eta Cain lekuko. Kondatzeko iritsi dira, baina ez dira aurrerantzean lehen zirenak izango. Ez dira gehiago hemengoak. Esperientzia lazgarri horrek betiko bihurtu ditu arrotz. J. Sarrionandiaren azken poemaliburuko ipuineko protagonista Ismael Larrea dugu. Sarrionandiaren bizitzako ibilbidearen eta abentura poetikoaren artean harreman estua erakusten duen pertsonaia da Ismael Larrea. «Preso egon denaren gogo» (*Marinel Zaharra*) bezala, hark ere betiko kondenatu bat darama bere baitan. Aipatu ditugun heroi kondenatu horiek bezala, kondatzeko gai nahi genuke Sarrionandia ere gure artean.

0. Izenburu hau, edo antzeko bat, eskaini zidan Aingeru Epalzak gaurko egunarekin, oker ez banago, hasten den mintzalditoki sortari hasiera emateko proposamena egin zidanean. Behingoan izan ere ontzat jo nion eskaintza. Eta ez dakit benetan arinegi ez ote nintzen ibili, edota ausartegi, baina oraintsu Nafarroa erdigune eta Nafarroako jendea muin dauzkan eleberri bat argitaratua izanagatik, neure buruari esan nion, banintzela gauza honetaz zeredozer esateko.

1. Nafarroaz berba egitea lehenengo eta behin, lurraldearen ikuspegitik euskal herrialderik handienaz berba egitea da. Euskal herrialdeetan estatu-egitura eta estatu-kontzientzia, Nafarroako Erresuma hain zuzen ere, luzeen eta gordinen gorde duen herrialdeaz mintzatzea da. Are gehiago, ni bezala euskaldun eta abertzale den batentzat Nafarroaz berba egitea ostera ere geure etorkizunaz hitz egitea da, euskaldun askok inoiz edo behin gauzaturik espero dugun euskaldunon estatu libreaz mintzatzea, herri moduan eta gizajende gisa espero dugun etorkizun libre eta argiaz aritzea.

Bigarrenez baina, Nafarroaz berba egitea, euskararen burruka oraindinoko era bipil eta latzean bizi duen herrialdeaz jardutea da, aurrerantz eginiko urrats bakoitzak hamaika ahalegin lakarren ondorio gertatzen den herrialdeaz. Hurrunago ez joateko, hementxe unibertitate honetan bertan, Nafarroako Unibertitate

Publikoan baino ez dugu begiratu behar. Are gehiago, hainbat euskal idazle garrantzitsu eta handiren sorleku izateagatik ere, hala nola Etxepare eta Axular lehenagoko mendeetan zein Manezaundi edo Larreko beluagokoetan, euskaren ikuspegitik Nafarroa berbetan erabiltzea literaturtradizio beregaina ez daukan herrialdeaz aritzea da, horrek gaur egungo egoera soziolinguistikoa eta euskara batuaren sorkuntza eta zabalkundearekin eragiten dituen hamaika korapiloekin.

Nafarroaz berba egitea niretzat azkenez, bihotzetik oso gertu daukadan jendeaz berba egitea da, neure jendeaz berba egitea alegia. Alde batetik zalantzarik gabe inguru honetan barreatuta daukadan lagunengatik, baina bestetik nafar guztiak ez izateagatik ere, nafar batzuk izan direlako eta direlako nire ametsen eta amodioen jomuga: gure etxearen munduikuskeratik hain urre dauden nafar separatista zangarrak.

Eta literatura? Galde dezake norbaitek. «Hortxe bertan» neure erantzuna, Nafarroa eta nafar horiek baitira barrenak asaldatzen dizkidatenak eta bero jartzen, eta bidenabar nafarren ohorea salbatzen dutenak; eurak baitira herrialde honetan antzinako moduan esateko «balioko jendea», jende dotorea, etorkizunari eta askatasunari buruz aritzen den jendea, eta beraz literaturan mirespenak sortera zuten arazo zail eta berezi guztiekin –horretaz ere zeredozer esatea espero dut– Nafarroaz idaztera bultzatu nau tenak.

Baina ez dut zertan neure burua zuzenesten ibili behar. Ez dut zertan justifikatu behar. Nafarroaz idatzi dut eta kitto. Hala eta guztiz ere, gatozen pausoz pauso gaiaren muinera.

2. Orain dela hamar bat urte hasi nintzen ni Nafarroa benetan ezagutzen. Eta benetan diot, lehenagotik apur bat ezagutu arren, sano txikia zelako hemengoaz neukan ezagutza. Izan ere, Nafa-

roaz denez bezainbatean neure lehenengo esperientziak Bilboko eskolapioetan jaso nituen, santurtziarra izan arren Bilboko ikastetxe horretan ikasi bainuen. Hainbeste eta hainbeste apaiz –gutiz gehienak hain zuzen ere– nafarrak ziren, ia denak Nafarroako erdialdekoak, Lizarra-Tafalla inguru horretakoak, eta are harritzekoagoa dena, gehientsuenak ere abertzaleak. Ezin ditzaket neure gomuteratik aita Meltxor Valencia iraitzi, edo aita Goñi edo eta aita Victor Pinillos, edota aita Orkoiien eta aita Xabier Ortigosa, hila duela labur, edota horiekin guztiekin batera aita Artieda eta eurak bezain abertzalea zen Arabako Errioxakoa den aita Constantino eta Tolosan jaioriko eta jakintsu miresgarria genuen aita Mokoroa. Hainbeste non Jon Juaristi bezalako batek behartuta senditu den eskolapioak Bilboko abertzaleria berriaren iturburu nagusietako moduan aipatzeko, hainbeste eta hainbeste izan baitira hango ikasleetan Euskal Herri modernoaren bilakaeran zere-dozer esateko eduki dutenak.

Urtean behin txango bat egiten genuen. Garai hartan ez ziren ohiko gure artean behintzat ikaslebidaiak izugarri horiek: 15 egun Italiara, edo zortzi Samoara. Ez, askozaz apalagoa zen gauza. Guk autobusa hartu amak prestaturiko jakiekin, badakizue, patata-arrautz-opiloa biper berdeekin eta gazta eta iragasagar ogitarte ederra, eta Nafarroa aldera abiatzen gehienetan. Modu horretara ezagutu nituen nik Tafalla eta Lizarra eta «La Taconera», bai eta Carlos III.aren hiribidearen azkenean kokaturik dagoen monumentu desatsegina, ume baten maltzurkeria apurraz galdetu nioanean aita Meltxor Valenciari zeintzuk ziren horko jausi horiek guztiak, barrutik ezin kontrolatzekoa zitzaizkion poz eta irriparez, eta zertaz aritzen nintzen seguru, gerran Franco-ren alde ariturakoak zirela erantzun zidana, alde batekoak –garaileak– alegia. Eta oraino ere badaukat neure akorduan Artaxona ingurukoa zen Arteta izeneko langile mutil-zaharra, ikastetxean garbitzaile zebilena eta Bilbora karlisten oldeekin heldurikoa, eta oraindik

orain gu geu ginen ume mokoeekin eztabaidetan ibiltzen zena horrelakoak zirela eta. Ez zen ordea horrela iritsitako bakarra. Getxoko herrian baino ez da itaundu behar esate baterako, Del Burgo jaunaren aitita jarri baitzuten herri horretan udaltzaingoaren buru, hangoen, alde batekoen zein bestekoen –kondatzen dutenez– desatseginerako.

Gero, «Ez dok amairu»koek sortuko ziguten Nafarroaren garaia helduko zen, «arragoa» eta «ametsen pausalekua» den Nafarroa lanbrodun eta misterioitsua, Iturengo arotza zein Goizuetako Trabuko hiltzailearen lurraldea, Caro Barojatarren *Navarra: las cuatro estaciones* zeritzon filmeak ederto asko erakutsi ziguna egiazkoa edo bazela, edota izan zitekeela. Euskara ikasi berritan Urbasara igon eta jaistean, Etxarritik igarotzean, euskaraz egiten zela somatzeko garai ederrak, eta Santurtzi alderantz, neure sartaldeko Euskal Herri arras erdaldundurantz abiatzean, bihotzaren zati bat galtzen nuelako zentzazioa neure barrenean nagusi zeneko denbora. Esperantzako egunak haatik, Deustuko Unibertsitatean ikasle batetik, eta gaztetan neure txokoan egon bazegoela igarri ere ezin igar nezakeen unibertso berri baten aurkikundearen egunak besetik, ederrak eta esperantzaz beteta.

Nafarroaren benetako ezagutza askozaz beranduago helduko zen, atzerrian hamabi urte ikasten sartu eta geroztik hain zuzen ere, alde batetik Pamielako jendea ezagutzean, eta bestetik Euskal Herriko Unibertsitatean lanean jadanik –Gasteizko campusean–, Iruñean egindako lagun baten bidez asteburuetan honantzko aldera etortzen hasi nintzenean. Izan ere orduan ezagutu nituen Iruñiako parte zaharra eta horko tabernak. Orduan ezagutu nituen Aezkoa eta Esteribar eta Baztan –lehenago inoiz edo behin hortik ibilia banintzen ere– eta Gares eta Bortzerriak, Bera, Etxalar, Lesaka eta Basaburu Nagusia. Eta orobat Baigorri eta Ortzaize eta Garazi. Eta hemengo jende dotorea: betiko bihotzean itsatsiak –inkauta erran beharko nuke benetako sendimendua adierazte-

ko--geratuko zitzaizkidan Iruñea zahar honetako jendea, eta batez ere, lehenago esan dudan bezala, geure jendea: nafar separatista zangarrak. Eta beste askoren artean Juliatxo Cunchillos Blanco ezagutu nuen, eta beraren neba Javier, eta euren bidez, Argentinan, atzerrian, hil zitzairen aita: Santiago Cunchillos Manterola.

2. Eta zergatik aipa Santiago Cunchillos? Agerian dago, seme-alabek kondaturikoaren bidez eta han-hemenka gizaldi honen hasierako Nafarroako mugimendu euskaltzale eta abertzaleari buruz irakurritako eta entzunikoaren ondorioz, gai izan nintzelako neure barruan garai hartako nafar politikari abertzale zintzo eta zindo horietako bat irudikatzeko, halako bati neure golkoan gorpuzkera bat emateko eta era horretan idazten hasteko, alegia, heriotzaz eta bizitzaz egindako gogoeta batzuekin amaitzen den «Herioaren itzalpeetan» izena hartuko zuen eleberriarri ekiteko, *Argia* astekariko 688. zenbakian Igor Estankona idazle arratiar gazteak zioen legez, nik neuk ere uste baitut «maitasuna dela heriotzari ihes egiteko modu bakarra»:

Seguru nago denbora luzeegirik gelditzen ez zaidana. Gura ere ez dut bereziki denbora luzeagorik gura, nekatuta bainago. Kemen fisikorik asko ez zait geratzen, eta bada garaia, nik uste, alde egin dezadan. Hori da benetan bihotz-bihotzez senditzen dudana. Eta hau idaztean ikaratu egiten naiz, ni neu izakeraz bestelakoa izan bainaiz beti. Beti aitzina jotzearen aldeko, beti indarrez eta kuraiaz etorkizunari buruz urratsez urrats segitzearen aldeko. Baina bizitzaren iparburu izan ditudan esperantza arrazionalak betiko legez hor egoteagatik ere, neure golkora begiratuta ez dut aurrera segitzeko gogorik senditzen, ez dut beti senditu dudan suaren garra somatzen. Etzan nahi naiz, bakean egon, eta hotza neure barruaren ugazaba bilakatu zaidan une honetatik Jainkoak nirekin eskuzabal izatea espero, Jainkoak bere ondora deitzean bero hori osteria ere eman diezadan otoitz egin (183-184. ork.)

Beste era batera esanda, erabat miresgarri eta maitagarri egiten zitzaizkidan pertsonaia batzuk eleberri baten erabiltzeko. Azken baten, nik neuk literaturak toki guztietan *de facto* betetzen duen funtzioa betetzeko abioan jarri bainintzen: literatura hori jasotzailerle duen gizartearen mitogintzan parte hartzea.

Eta *de facto* esan dut, ez naizelako tesiliteratura edo antzekorik defendatzen ari, ez nagoelako esaten testutik kanpo, hizkuntzaren manipulaziotik at dauden helburu eta jomuga zehatzak betetzeko idatzi behar dugunik, ezpada norberak senditzen dituen eta gus-tuko dituenak adierazteko egin behar dugula lan. Izan ere, euskal literaturgile garen gehienoi edozein dela zioa –sarritan apaltasun faltua– falta zaigun elementua horixe bera baita, idazle izatearen kontzientzia, eta horregatik halandaze halakoek –idazleek alegia– bete behar dituztenekiko erantzunkizuna. Zeren azkenengo hogeita bost urteotan gauzak aldatu badira ere, faktore ekonomikoak aparte utzita, ezaguna baita gerrosterarte Euskal Herrian kasik ez dela egon autokontzientziaz ‘idazle’ izena merezi zukeenik. Salbuespenak, behar bada Etxepare medikua, edota Lauaxeta bera izan zitezkeen. Gerrosteian bai, baina hirurogeita bosterarte, Jon Mirande, Gabriel Aresti, eta neurri apalagoan Jon Etxaide eta José Luis Alvarez Enparantzarengandik aparte inor gutxi zegoen prest, nik uste, bere burua euskal idazle gisa aurkezteko.

Eta zergatik diot *de facto*? ingeles eta iparrameriketar tradizio historiografikoak ondo dioen moduan herriak eta gizarteak asmatu baino ez direlako egiten, eta guk geuk euskal idazle moduan «euskal gizarte modernoa», hau da, gure oraingo Euskal Herria beste batzuekin batera, izan daitezen historiagile edo kazetari, izan daitezen politikari zein beste edozer, asmatzen ari garelako, eta are gehiago asmatu behar dugulako. Izan ere, inoizko baten, denboren erramatea baino lehenago edozelan ere, historiagileren batek XX. mendeko Euskal Herriaren historia aipatzean, beste gauza askoren artean honelako zerbait aipatuko du, «the inven-

tion of the Basque People», eta historia horrek pietate eta errukia edukiko baditu behintzat, gure arteko batzuk aipatuko ditu, eta nafarren artean bat edo bi bederen bat ere zalantzarik gabe, hots, Aingeru Epaltza eta Patxi Zabaleta, bestelakoak segurutik aparte utzi gabe.

Bada, kontzientzia horregaz abiatu nintzen: neure jendeaz berba egitera, Nafarroako jende baliokoaz berba egitera, Erresuma honetan justiziaren zentzu zorrotza zeukaten jendaki batzuek berba egitera, niretzat esperantzaren errainu ziren jendeaz berba egitera, eta bizitzaren ederraren islada ziren jendeaz, eta aurrera goazelako seinale. Eta horra hor emaitza: mirespenez eta maitasunez idatzitako testua, mirespenak eta maitasunak literaturan sortzen dituzten arazoekin, ezelan ere albo batera utzi gurako ez nituzkeenak.

Mirespenak sortzen duen problema nagusia –lagun batek zorrotz zioetan legez– pertsonaiak lar onak izatea baita, edota akatsik ez daukaten pertsonaiak irudikatzea, hots, pertsonaia lauak eta zirrikiturik gabeak, eta behin argi utzi eta gero zertaz ari garen, guztiz auresangarriak izatea: hau eta hau egin dute, edota hau eta hau eginen dute osterantzekorik egiteko aurkientziarik, ez aukerarik ez zeukatelako. Bai, hori da mirespenaren arrisku nagusia, eta segurutik nik neuk aipatzen ari naizen testuan gehien jasantakoa. Horren kontra osotasuna da nire aburuz konponbide bakarra, osotasun psikologikoa, osotasun morala, ahaztu gabe baina, egon badagoela jende asko helburu batzuen suak eraginda, bizitza guztia helburu horien alde eman dutenak. Eta halakoak ziren, nik uste, *Napartarra* ateratzen zuten abertzale nafarrak, behin baino sarriagotan norberaren sakeleko diruaz ordaindurikoa, eta Erriberako nekazari pobreak defendatzen zituzten abokatu abertzaleak, eta orduko garraibideekin Euskal Herri osoa kurritzen zuten gizon-emakumeak, Bilbon, Donostian edo batek jakin non batzar bat egiteko. Edota asteburuak, aste osoko lanak alde batera

utzi eta gero, beraiek erretzen zituen kontzientzia zabaltzen ibiltzen zirenak hain txikia ez den Nafarroa honetan, mendian edo Erriberan, Zangoza aldean zein Estellerrian. Inorgaz gonbaratze-kotan Estatu Batuetan ezagutu ditudan ezkertiar eta komunista zaharrekaz erkatuko nituzke, kapitalismoaren bihotz-bihotzean bat ere beldur eta izurik gabe, hasi izen indiarreko beren seme-alabekin, bizitza atergabeko şisifo-ekintzetan ematen izan dutenak, fede zuten justizia eta berdintasunaren izenean.

3. Izan ere hau oso gai garrantzitsua da, Euskal Herria sortzeko ahalegin honetan, Nafarroaren historia eta erabilera arras delako munta handiko. Alde batetik, lehenago aipatu dugun bezala, Nafarroan geratzen delako zorrotzen inoizko euskal estatu baten kontzientzia, eta bestetik historian jokatu duen errol eta papergatik Nafarroak duelako etorkizuneko Euskal Herriaren gako nagusietako bat. Eta hor Leizarraga eta Joana Albretetako, Etxepare eta Errolan, Nafarroako Mariskala, Martin Azpilikueta eta Karrantza kardinala esate baterako, eta beste hainbeste pertsonaia guztiz dira garrantzitsu aurrean daukagun betebeharrak honetan, hain baitira pertsonaia horiek interesgarri eta asmatzen ari garen Euskal Herri horretarako garrantzitsu.

4. Nik neuk, hemen entzule zaudeten guztiek bezalaxe segururitik, bestalde, batuaz idazten dut, horixe baita euskaldunen arteko literatur-hizkuntza amankomuna. Egia da, saiatu ere egiten naitzela neure bihotzekoa den Bizkaiko euskara ahalik eta gehien erabiltzen, eta egia ere da lorerik ederrenatzat jotzen ohi dudala nik idatzitako testuren baten halakorik somatzen dela esaten didatenean. Eta Nafarroaz idatzitako eleberririk honetan ere saiatu naiz, espero zitekeen moduan, bizkaieraz gain eta pertsonaia nagusiaren amorez, hemengo lagun baten bidez nafarrerazkoak ere sartzen.

Pentsa dezakezueenez, baina, horretara hitz egitean ez nago hizkuntza mintzatuaz berbetan, literatur-hizkuntzaz baino, eta beti ere batuaren ikuspegitik berbetan, gaur egungo euskal literatura sortzeko beharrezko dugun azpiegitura linguistikoaz, nire ustez, Euskal Herri osoko ekarpenekin sendotu eta aberastu behar duguna. Agerian dago zergatik aipatzen dudan arazo hau hemen: Nafarroan ez delako egon literaturtradizio sendorik eta oraindik ere hainbat ekarpen beharrezkoak direlako gaur egun euskal literaturaren zutabe sendoenetarikoa bihurtzen ari zaigun Iruñian eta Iruña inguru honetan. Ezaguna da, bestalde, zernolako ihi eta ahak entzun behar izan genituen Aingeru Epaltzaren *Ur uherrak* atera zenean, Nafarroak bazeukala bere eleberria eta horrelako, eleberraren balioei erreparatzen ez zieten iruzkinak bidenabar.

Arazoa argi dago, alde batetik ezin dezakegu segi pentsatzen, askotxok uste edo praktikatzen duenaren kontra, euskararen hiztegiak gaztelaniazkoa ere baduela bere barne. Baina bestetik, egia da –itzulpena delarik seguru asko tresnarik behinena– behar beharrezkoak direla baliabide berriak literatura moderno batek behar dituen adierazpideetarako. Nafarroaren kasuan herri-hizkeretan aurki ditzakegun baliabideak dira horiek, eta zalantzarik gabe Nafarroatik idatzi duten idazleengan. Eta hor zuok daukatzue hitza eta eskua, nafarrak zareten euskal idazle eta itzultzaileok.

Bestalde, Nafarroan ez dela egon literaturtradizio sendorik esan dut, Nafarroako arazoa bakarrik balitz bezala. Eta hori, agerian dagoenez, ez da egia, beste herrialde batzuetan tradizio bat sortu bada, Euskal Herriaren eta euskararen historiagatik tradizio hilak izan direlako ia mende honexetararte, belaunaldi berrioi eskolaren bidez heldu ez zaigulako. Beste hizkuntzetan literaturtradizioa eskolaren bidez pasatzen da. Guk ordea ez dugu halakorik eduki, ez dugu euskal eskolarik ezagutu, eta ondorioz denok, gure belaunaldikook adibidez, erdaraz ikasi dugularik eskoletan, hasiera-hasieratik hasi behar izan dugu idazten, orain artekoek

idatzi dutena irakurriz, baina orain artekoek idatzi eta loturikoa ezin era naturalean jaso, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Esate baterako, gure aurrekoek ezer gutxi idatzi izan balute bezala eginez, edota guk geure irakurketez jasotzeko gauza izan garenaz baliatuz bakarrik. Beste berba batzuez esateko, non egon gintezke Axularren prosa miresgarria heldu izan balitzaigu edozein erdaratan haurrok hizkuntza jasotzen duten moduan? Oraindik orain nor da gai, Axularrenak bezalako perpaus luze erritmikoak idazteko irakurlearengan inongo zamarik sortu gabe?

Egon, egon dira tradizio txikiak, eta guk geuk gerrostekoa zelanbait barneraturik daukagu, Iparraldean kultuak diren euskaldunek XIX. mendetik hona datorren tradizioa asimilatua daukaten bezala. Lehenago ere halakoak egon dira, baina oso era mugatua eta denboratarre laburretan. Izan ere, Mitxelena lako gizon bereziekin egin behar dugu topo tradizio zaharraren irenspenak zer sorteraz dezakeen sumatzeko, halakoengan, tradiziotik irentsi-riko ondare guzti horrekin, hizkuntzaren malgutasun eta adierazkortasuna izugarri handitzen delako.

Testuinguru honetan kokatu behar dugu halandaze lehenago esandakoa: gaur egun guztion artean sortzen ari garen literaturtradizioaren sustagarri eta aberasgarri, Nafarroako zeuon hizkere-tako balioak ekandu behar dituzuela euskara batu horretan, eta hori jakina zuok nafarrok bakarrik egin dezakeue.

5. Amaitzeko, gaur egungo euskal literaturaren arazo nagusizat joko nukeena aipatuz amaitu gurako nuke, zelanbait jadanik agertua, baina era zuzenean definitu behar duguna: prosaren garapenaz ari naiz hain zuzen ere, literaturprosaren garapenaz, hori delako esan dugun guztiaren azpian dagoena. Alde batetik badugu nahikoa garatu den prosa funtzional bat, dela *Jakin* eredu dei genezakeena, zein *Egunkaria* eta *Argia* bezalako agerkeriek erabil-

tzen duten hizkuntzaren bidez defini daitekeena, eta gero eta maizago ateratzen diren zientzilanetan erabiltzen ere dena. Baina bestetik, benetakoa eta erabat aberats litzatekeen, eta adierazkortasunez bete legokeen literaturprosa aipatu behar dugu, garabide bi dauzkana: literaturprosa horren erabilera bera, literatursorkuntzaren bidez lortua, eta itzulpena.

Itzulpena lehenengo eta behin, beste hizkuntzetatik itzultitako testu onak ezin daitezkeelako faltsutu, eta itzultzailea gura zein ez behartuta baitago beste hizkuntzan dagoena gurean ere ematen, horrek dakarren hizkuntzaren bihurrikatze eta zinbeltzearekin. Izan ere, itzulpena izan da tradizionalki hainbat eta hainbat literatur-hizkuntza, hau da, literaturprosa sortzeko modua. Horrela sortu ziren Europako literatur-hizkuntza handiak, grekotik eta latinetik egindako itzulpenen bidez. Eta era berean esan behar dugu, horrela sortu dela, neurri handi batez, euskal literatura klasikoa, itzulpenen bidez. Zalantzarik gabe, aurreramenduak handiak izan dira, eta plazer hutsez aipatu behar da, gaur egun literatura unibertsalaren testu ederrak hasi direla euskaraz era irakurgarri baten agertzen.

Bestetik, baina, bere garapenean badu oraindik ere literaturprosak beste arazo nagusi bat, euskaraz nire eritziz, erritmoari eutsita eta irakurleari traba eta behaztopo egin gabe, nahiko zaila izaten baita oraindik perpaus luzeko paragrafo luzeak idaztea. Izan ere, hori lortzea da ene aburuz gaur egun daukagun erronkarik garrantzitsuena.

Erran dut.

Nafarroko Unibertsitate Publikoan 1998ko urrian emandako hitzaldia.

Aipatutako liburua: *Herioaren itzalpeetan*. Tafalla, Txalaparta, 1997.

Poeta heldu bi

Poemaliburuetan ugaria izan ez den 1997 urtearen hasierak poeta heldu biren lanak ekarri dizkigu. Patxi Ezkiagak *Zauriaren salmoak* atera ditu Bermingham argitaletxean, eta Auxtin Zamorak *Haizea ostoetan* Maiatzen.

Moldez desberdinak dira liburu biok. Auxtin Zamorak gurean ohizkoa ez den bidea aukeratu du: eskuz eraturiko liburuarena. Poetaren izaera azken punturaino eramanez, liburu guztiak eskuz egin ditu –ai!, fotokopiak izan ezik, baina– bakoitzaren orrialdeetan orri desberdinak jarriz, aspaldi *Ttu-ttua* aldizkariak egin zuen modu berean. Merkaturatze-bideari ere uko egin dio, eta liburua «Ez da aurkitzen ahal liburutegietan, baizik idazlearen etxean», aspaldiko liburuak saltzen ziren modu berbera aukeratuz.

Haizea Zamorarentzat inspirazioaren sinboloa da, hostoetatik igaroz ideiak pizten ditu, bizitza ernatu ohi du, idazteko joerak zabaldu. «Haizea mugitzen hostoetan ikustean, iduritzen zait haize horrek zeharkatzen nauela, pausatuz nire baitan, etorri, etortzen eta etorriko zaizkidan pentsamendu guztiak.» Irakurleari gogora etorriko zaio Lauaxetak inspirazioaz esandakoa: txoria zela eta barne-adarrak mugitzen zituela.

Ideialismo-kutsuko joera nabari badu ere Zamorak, testuek bestelako joera marraztu dute: inoiz ohitura-zaletasunetik hasten dira barne-inpresioa osatu arte, edo ikasbidea agertu arte (herria-

ren desagerpena e. a.), baina ez dira falta modernitateak («Zinema... zinema») edo fikzio zientifikoaren oihartzunak. Dena, baina, poesiaren ikuspegi jakin baten alde: «nahi du idazleak, Jainkoek edo Jainkoak idatzia duten liburu orokorretik zerbait ebatsi, errateko bera ere Jainko bat dela», edo barne-mundura begiraturuz: «neurtzen ahal ez diren errealitate sentikor eta mugikorretan». Prosa lirikoa, metaforizazio-prozedurak, puntu jarraituen erabilpen iradokitzailea, naturaren irakurketa lirateke poesia eta bizitzaren artean egiakortasunez mugitzen den Auxtin Zamoraren idazkera marrazten dutenak.

Zamorak egiakortasunez idatzi badu bere liburua, Ezkiagak «honestitatez» idatzi du bere *Zauriaren salmoak* liburua. Salmo hitzak zuzenean adierazten du poesia erlijiosora bideraturik dela liburu honetakoa. Aldaketa egin du Ezkiagak, bere ohiko moldea ez badu ere –zail xamarra litzateke, bestalde– guziz hautsi: lehen liburuetan kanpo-ikuspegiak agintzen zuen, oraingoan barne-ikuspegiak garrantzi handiagoa du, aitopenak taxutuko luke liburuaren joera. Felipe Juaristik idatzi duenez, «gizona (izakia esan nahi dut) bere buruaren aurrean; izakia Jaunaren aurrean; eta izakia Naturaren aurrean», hiru tirabirok sortzen dute Ezkiagari hain gogoko zaion poesiaren inguruko hausnarketa.

Baina haria ez da eten. Ezkiagak teorizazio luzeak egin ditu metaforaren eta analogiaren inguruan, ezagupen zientifiko eta intuizio-ezagupenaren inguruan. Ezkiagaren poetikan lehen irudiak, lehen intuizioak ikaragarritzko garrantzia du. Poema intuizio horren gorpuzketa litzateke, iluntasuna argitzeko ahalegina, misterioa intuizioz, eta ez jakitez azaltzeko modua.

Sinboloa esperientzia azaltzeko bidea besterik ez bada, *Zauriaren salmoak* liburuak barne-esplorazioari ekin dio, alegoriatik urrun.

Esperientzia argitzea aspaldiko joera duenez Ezkiagak, indartu egin du gaurko honetan. Salmoak ulertezina den esperientzia,

isiltasun baten agerpena azaldu nahi ditu: isilik eta ilun agertzen den Jainkoaren hitza adierazi nahi du.

«Jainkoaren ahotsa xuxurlapen hutsa besterik ez dela eta iluntasunean etortzen zaigula» azaldu du idazleak. Iluntasuna argitzeko bidean, xuxurlapena ahots bihurtzeko bidean, historiaren eta mitoaren arteko kinkan idatzi ditu Ezkiagak bere salmoak.

Berriro sariketak

Gazteek, dirudienez, bide bi besterik ez omen dute poesia argitaratzeko: edo lehiaketan bidea aukeratu edo argitaletxeak eurek antolatu. Aldizkarietan jardun aberatsa edo pobrea egin ondoren agertzen omen ziren idazle gazteak eta poesia berriak sariketetan. Irabazle gertatzen direnek edo merezi dutenek argia ikusten dute. Nabarmena da bidea, baina, udaurrean agerturiko poema-liburuaren artean, bost poemategik buru-belarri sariketetara begira daudenen argitaletxeetan ikusi dute plaza; lau besterik ez dira argitarazio komertzialetan agerturikoak: bi iparraldeko Maia-tzek atera ditu eta beste bi argitaletxe ezagunetan: Koldo Izagirre-ren liburua eta Patxi Ezkiagarena, hain zuzen. Datua, berez, esanguratsua da.

Sariketen bidea aukeratu ondoren agerturiko bost poemategi horiek ikusiko ditugu gaurkoan.

Bermingham editorialak Urretxu eta Zumarragako udalen poesia saria eman du lehenik argitara. Xabier Olaso Bengoaren *Gauaren magalean* da poemategia. Idazlearen lehen liburua. Izenburuak gogoratu dit Mirari García de Kortazarren *Poesiaren magalean* sail berean argitaratua eta Arantza Urretabizkaiaren *Maitasunaren magalean* urruneko hura, eta Olasoren hau eta Mirari García de Kortazarren hurrengo, *Oroimen bizi eta margulduak* gonbaratuz gero, bat-batean ikusiko ditugu zenbait paralelismo bion artean.

Bakardadea da poemategiko gai nagusia, gauaren altxorrea egin den esplorazioan. Zu bati zuzendutako poemategiak nostalgia maite du, inpresioa pentsakizun bihurtzen du kanpo-ikuspegia barne-muinaren begirada bihurtzen ahalegintzen den artean. Olasok simetrian egin du lan, paralelismoak eratzen ditu eta poemak, neurri batean, argitasunaren eta ulerkortasunaren alde egin du, gauaren inguruko elementuekin sugerentzia landu du: gaua, ilargia, noizbait maitasuna eta gaueko pertsonaiez osaturiko fresko xume eta sentikor honetan.

Pasaia Hirian irabazle gertaturikoekin, Iñigo Iruretagoienaren *Denboraren memoria*n eta Mirari García de Kortazarren liburuekin, ale bakarra atera du Bermingham argitaletxeak. Lan desberdinak, oso desberdinak.

Iruretagoienak espresionismoa maite du, irudi eta irudimenaren lana da berea, poemak bertso-lerro luzea du, epikatik hurbil balego bezala. Maiteari zuzenduriko bakarrizketa dramatiko honetan Iruretagoienak galduriko mundu baten berreraiketa egin du, nostalgia uxatuz, eta hiztegi berriaren bila abiatuz: «berriz sekula berreskuratuko ez ditugun uneak izango dira haiek/ baina beti gureak izango dira/ maitia». Galdua dagoen denborak ez dio nostalgiarik sortuko, gozatutakoaren oroimena eta irudiaren indarra baino: «denboraren memoria deseginda kalatxori batek gaua zulatu du/ lumak sutan eguzkia zeharkatzen egazti bat...». Poemategia osatzen duten hamabi poemetan (bat errimatua eta neurtua, zortziko nagusian, oker ez banago) barne-munduaren pertsonalizazioak berebiziko indarra hartu du: «Karrikan behera ahaztura dator».

Mirari García de Kortazarrek tonu minor sentikorra lantzen du. Izadia da bere abiapuntu nagusia, kanpomunduko edozein elementu txikiz pentsatzen jarritz gero, objektu ñimiñoen arima argitara ekartzen saiatuko da poeta, izadia sentimendu xume bi-

hurtzen duelarik. Poesia analogikoa da berea, metaforizazioan oinarritutakoa. García de Kortazarrek hiztegia lantzen du, aberatsa du eta zail xamarra zenbaitetan, beti ere fina eta landua. Inpresionismoaren eta sinbolismoaren bideak dira poetak erabiltzen dituenak, eta, beraz, erretorika abangoardiaren aurretik jarri du. Begirada eta galdera dira beraren joerarik maitatuenak, inguru ongi ulertzen duen pertsonaia poetikoa eraikitzeko asmoz.

Central Hispano Banketxeak, urtero-urtero ohi duen moduan, *Imajina ezazu Euskadi* sariaren argitarazioa aurkeztu du. Bertan 1996. urtean saritutako lanak eman dira argitara.

Jose Luis Padronek badu sariketen munduan historiataria egina. Aitortu behar dut ezagutu diodan lehen liburua dela. *Itzal izotzezkoan bildurik* poemategi berezia da. Surrealismo xume baten estaltzen du poemategia, baina Padroni nabari zaio poemak ulerkorrak egiteko behar den eskua: paralelismoa, esaldi nagusiaren errepikazioa. Agertu duen begiradan nahasmenaren mundua bada ere, beti dago poemategian azalpen haria: «Bihotzaren sakanatze eta hildura» adierazi nahi duen poemategiak badu definizioarako joera: «Ez dut ezer aurkituko. Hori da heriotza». Badauka Padronek irudiaz gain, pentsakizuna erretra moduan, adagio moduan azaltzeko joera bat: «Ez dago ametsik, ez idealik./ Azkenean desilusioaren seinaleren bat».

Ez zaio ironia falta, haatik, zenbaitetan, poema iradokikorra delarik «Heltzen ari da», eta beste zenbaitetan egunerokotasunera joz beti, errealitatearen alde ilunak azaldu nahiz.

Karlos Santisteban ilbilbide luzeko poetaren *Izatea zantzuetan* aurki dezakegu liburu berean. Poemategi mardula eman du argitarara Santistebanek. Bost zati nagusitan banandua, poemategiak izatearen hausnarketa eskaini du, poema luzearen abantailaz baliatu delarik. Ez dakit argitarazio honek mesede egin dion liburuari, zalantza baitut noizbehinka ez direla poemak ongi mol-

datu eta zabaldu. Baina poemategiaren gunea zer ote den galderari errebasoa egitea dela esango nuke, inoiz esistentzialismoaren zantzuak ageritan direlarik. Bestela, Santistebaneren erretorika akumulazioarena da, definizioaren bila, hitz zehatzaren xerka.

Itsas Pa(i)saia

Koldo Izagirrereren liburuek beti dute Koldo Izagirrereren beste liburuen oroimena. *Non dago basques' harbour* honek ere gogorazazi du aurreko *Itsaso ahantzia* hura, eta hurbilagotik *Balizko erroten erresuma*.

Azken liburu horretan agerian utzi zituen poetika bateko joerak: abangoardia nagusi, literatura herriaren boz gisa, Maiakovskiren futurismoa.

Ezaugarri berak eta teknika berdinak erabili izan dira poemategi honetan ere. Abangoardia nagusi, bai, eta hala ere, hemen legoke lehen ñabardura, askoz ere leunagoa da hemen erabili den abangoardia *Balizko erroten erresuman* erabilitakoarekin gonbaratuz gero. Agian, eta giltza ez da txantxetakoia, joera narratzailea erabili izan delako poemategi osoan. Pasaiaiko portuan bizi den umearen ikuspegiak agintzen du, eta poemategiko hainbat eta hainbat poema-pasartek haren biografia, benetakoa, asmatutakoa, oroitua edo sortua, berdin dio, eman dute. Narrazio-teknikak bilatu du joera analogikoa, metaforen eta mezuen azpimarraketa liburuan zehar, baina ulergarriago egin dute poemategiko haria.

Espressionismoa ez da desagertu, baina leundu egin da; historia bat kontatuz, liburuan egitura finkatuz, beste poetika batzuetan ohikoa dena, biografia fikzionatua sartu delako koktelean. Era tradizionaleko poemez gain, Koldo Izagirrek indartu egin ditu bere-bereak dituen idazkera joerak: errepikazioak, ironia urrun bat, gauzak ikusteko joera alderantzizkoa, esaldiaren erritmoa, zamalkaketaren bortizkeria, paradoxak...

Iñigo Aranbarrik, Jose Luis Otamendik, bere azken liburuan, bide hori jarraitu dute, eta hemen ere aurkitzen da horren berri-rik. Gainera Joxe Azurmendi eta Joseba Sarrionandia aipatzen dira. Joxe Azurmendiren *Manifestu atzeratuaren* garrantzia behin eta berriro aipatu du Izagirrek, bere hau «komunikatu atzeratua» dela esan arte.

Sarrionandiarekin duen zorra, agian kontzeptuen ulermen mailan, sakonagoa dela esango nuke, ez da alferrik errepikatzen liburuaren azkenengo poeman *Izuen gordelekuetan barrena* li-
buruko azkenean mezu bera: Etxera itzuli denak berriro irteten du bukaerarik ez duen bidaian: «Lehorreratzten baldinbanaiz/ Itsas-
keta hau jarraituko dut». Berdina den bezalatsu deserriaren kon-
tzeptua, erbestearena, egonezinarena, bidaiarena.

Itsasoaren metafora nagusia ere sakon landu du durangarrak, Izagirrek beste bide batzuk aukeratzen baditu ere: oroimena, kon-
daera historikoa... eta nagusiki pasarte historikoen joera ideologi-
gikoa.

Basques' harbour utopia gisa eraikirik dago liburuan, eta hara
heltzeko ahaleginetan ari da poeta: «Ez ezazuela ezetz esan/
Oraindik badago mundu honetan zapaldu gabeko uharte bat/
Inor ez da handik itzuli hori da frogat/ Gure zain zabal etzana/
Urrun». Irredentismo puntu bat erakusten du Izagirrek bizitza
edo herri baten bizitza behin eta berriroko galera batean mugit-
tuko balitz bezala.

Liburuak hiru atal, edo hobe hiru doinuera, nagusi ditu: lehe-
na narratzailea da, itsasondoan (eta hondoan) bizi den mutikoaren
inguruan antolatua; bigarren bat, sendimenduari lotua, liburu-
aren erdi aldean Günter eta Moniquereren ahotsetan, eta hirugarre-
na, hausnarketa ideologikoaren ingurukoa «Itsasoa ez da neutra-
la» edo «Umearen heriotza» aldeetan, baina liburu guztian heda-
tzen dena, Mirande gogoratuz, «Demokrata zintzoen kondenari

bularra zabalduz», edo Hernan Cortés liburuko sinbolo zitala bihurtuz, edo «heresiaren lilura» aldarrikatuz.

Maiakovski aipatu dugu, eta, agian, topikoezia da lotura, baina badago haren agerbidea hemen: badago makineria izendatzeko eta agertzeko gogo berezia, badago hizkera-erregistroen arteko lotura eta nahasmena, badago ezuste linguistikoa, material desberdin eta nahiko laburren gonbinaketa.

Halaz ere, John Bergerrek eginiko banaketa erabiliz, esango genuke Izagirrenen kasuan, mezua poema izan aurretik dagoela, eta poesia aurretik harturiko joera baten ondorioa dela. Eta iritzi horrek ez diola balio estetikorik kentzen. Ritsos-en kasuan, poeta handi baten izena ematearren, berdin gertatu zen. Agian, joerak poemaliburuak osatzeko eta eraikitzeko orduan, tonu-batasuna eta ulermenerako bideak eskaintzen ditu.

Izagirrerri beti eskertu behar zaio paradoxarako, elementu oso desberdinak biltzeko eta ia joera entziklopedikoz lanak prestatzeko eskua, hizkeraren erabilera eskertu behar zaion moduan.

Hiri gorriak

Hölderlin-ek bildu zituen poesian emakumearekiko maitasuna eta askatasunari zor zion maitasuna. Biak ziren txanpon berberaren aldeak, biak zuten bere memorian urrats bera. Biak ziren bat. Eta bat dira maitasun biak Serranoren poemategian:

Eta bada gauero oroitzen dudan/
hiri gorri gorri bat zure
ezpainetan/
Danba lehertu da hiria.

Hitz hauekin bukatzen da poemategia.

Bestela zer? Batez ere irudi bat: hiri gorriarena, ezkutatzen eta amesten den irudia: «Norberak badauka buruan hiri gorria, aurkituta edo aurkitzeke». Utopiaren antza izango lukeen irudiak, edo ametsarenak, edo egiteko dagoenak, liburuaren joera marrazten

du, bera da habea. Artean, surrealismo asko. Irudiak batera pilatzen dira liburuan, nahiz eta askotan ritornelloaren joera ere nabaritu, gehien batean hasierako poemetan.

Jose Luis Padron-ek adierazi zidan ezaugarri bat aipatu nahi nuke hemen. Surrealismoa nagusitzen da, bai, liburua ilundu edo zaildu arte. Baina, hala ere, poemaren bertsoak, eta irudiak eurak, ondo landuta daude, erritmoa nagusitzen da testuetan, hitzek silaba kopuru bera mantentzen dute musika bat osatu arte, azken batean musikaren garrantzia behin eta berriro aipatzen da, eta, dirudienez, kanta edo disko baterako pentsatuak omen dira hemengo zenbait lan.

Autobiografia omen dago liburuan zehar: «Burgesa zen eta errebeldea izan nahi zuenaren biografia». Hala badio, hala bedi. Gorrotoa omen dago liburuan, bitimismo-kutsu batekin beti...

«Zer zor diezaioket haurtzaroa lapurtu didan gizarte honi?» galdetuz osatuko du idazleak zerrenda luzea, gizarteak galdu duenaren erantzukizuna balu bezala. Ez dakit haurtzaroaren aurrean ez ote duen poetak bere galera melankoniaz bete eta erromantizismoaren oholetan harturik salbatzen duen burua hondoratzetik.

Jose Jabier Fernandezek sinesgarritasun falta egotzi dio liburuari, zintzotasunak, bat-batekotasunak kalitatea kendu balio bezala liburuari. Poesia fikzioa dela esan dute esperientzia-poesian dabiltzanak. Paradoxala dirudi, baina egiaz esan nahi denak ez du egiantzaren koherentziarik.

Agian, oker ibiliko naiz, baina ez dut gogo onez irakurri liburua, déja vû baten susmoa dut gogoan. Agian, poema oso egituratuak ikusten ditut (Arrosak, liliak, krabelinak, Sanjose loreak poema baten (22. or.) ahapaldi bururako), surrealismoak agintzen duen tokian. Agian, oso garai desberdineko poemak aurkitzen dira liburuan, eta tonua aldakorra da. Irudiak eta irudi-

menak agintzen du, bai, baina iruditeriak hiperbolearen munta du. Aitortu berharko nuke 71. orrialdeko poema atsegin zaidala.

Galderen geografia

Pariseko kaleen azpian hondartza badago, beti egon da presokratiko bat Felipe Juaristi poetaren azpian. Filosofo hori da *Galderen Geografia* bere liburu berrian agertzen dena. Filosofiarekin mintzatzen den poetak (elkarrizketa horren sinbolo dira Altzi biades eta Sokratesen arteko mintzaldiak) jarraitu du *Laino artean zelatari* liburuan agerturiko bidean.

Estuago, zehatzago agertzen da orain Juaristik poesia pentsakor batentzat duen joera. Gogarteak bultzatu du liburua eta, iruditerian oinarrituriko poemak egon arren, pentsakizunak eta filoso fiak agindu dutela esan genezake.

Norbaitek esan dit kurioa egiten zaiola poesia mota hau, esperientzia narrazioaren bidez azaldu beharrean pentsakizunaren bidez ematen duelako, ziurrenik. Galdera hitza aipatzea, ziurta sunik eza aipatzea litzateke, iritzia sendo eta aldaezin agertzen duen herri honetan.

Bada azpian, nik uste, Brink eleberrigile hegoafrikarraren pentsakizunaren oihartzunik. *Los hacedores de mapas* liburuan, eta Juaristiren izenburuko *Geografia* hitzak pista ziurtatzen du, Brink-ek giza-izaerari buruzko geografia marrazten du, egoerarik gogorrean, apartheid-aren barnean eta haren menpe; beltzen, eta orohar gizakiaren aldeko apustua egin du. Galdera, beraz, zentzuak esaten duenetik at joatea da; galderak ezagutzen ez dugun munduaren mugak jartzen ditu; esplorazioa da galdera; eguneroko errealitatetik at joatea. Eta horrela gertatzen zaio Juaristiri noizbait ia burrukazko poesia egiten duenean, beti ere metafisika abiapuntu eta abiaportu duelarik.

Baina poesia honetan, alfabeto gisa (beste bat, esan dezake norbaitek) aurkeztu den liburuan, gogarteak eman dio poetari biderik zabalena. Poemak txikiak dira, oso txikiak, ia Valenteren isiltasunaren poesiaren bidea aukeratu izan balu bezala. Hark baino argitasun gehiagorekin beti ere.

Liburuko ezaugarriak behinena, baina, aukera tekniko batean oinarritzen dela esango nuke. Felipe Juaristik zamalkaketarik gabeko lerroak aukeratu ditu: esaldiak borobilak dira, luzeak, esaldia eta lerroa bat datoztelarik, gehienetan, neurri batean. Erritmoa luzatu du honek, eta esamoldea uniformatu. Lerro-etenak muga jartzen dio pentsakizunari, berriro gogoraztea, pentsatzea eskatuko balio bezala irakurleari, astiro irakurtzea balitz bezala bere helburua. Astuna gertatzen dela erritmoa? Irmoa, agian.

Adierazpide nagusi horrek paralelismoak findu ditu, poemen egiturak agertzen direla ongi marrazturik: ia joera parnasianoa dirudi beraren marra agian.

Honelako artikulua arin eta mugatu baterako liburu garrantzizkoegia da *Galderen Geografia*; mila zertzelada geratzen dira oraindik zain, bigarren irakurketa baterako, eta bigarren hausnarketa baten begirako.

Haikuak eta maikuak

Kaiku Haiku izenburupean gure artean ohi den baino txukuntasun handiagoz eman du argitara Maiatzek Iparraldean François Aillet-en poema liburua. Ederra da liburuaren kanpo-itxura, eta sotila moldapena, barneko paper birmoldatuaren itxura, goitik beheti.

Tradizioz lotura handia eraiki da euskal poesian koplazaharren eta haikuen artean. Herri poesiak maite dueni logizismoaren adierazpide bi dira genero hauek, eta gure arteko poeta askok landu dute generoaren iruditeria gurean.

Ailletek berezitasun bi ekarri ditu euskal poesiaren mundura. Batetik, haikuen neurria (bost, zazpi eta bost silabako ahapaldia) gorde du bere jokaeran, horrela estuago lotzen delarik poesia japoniarraren moldapenera. Bestetik, eta semantikari inongo funtsik eman gabe, euskara eta japonieraren arteko lotura foniko hutsa birplanteiatu du, hizkuntzaren aldetik eztabaidatsua den irizpideen argitan. Ondo da haiku eta kaiku hitzen artean lotura fonikoa dagoela erakustea, baina hori Aillet-ek duen zaletasun eta jokaeraren erakusgarri besterik ez da, antzeko lotura fonikoak munduko hainbat hizkuntzen artean lor baikenitzake hiztegi desberdinak begiraturaz gero.

Lotura foniko hutsak ez du hizkuntzen loturaz berri ematen, idazlearen gogoaz bai ordea. Zail xamarra da sinestea: «euskara, Europako hizkuntza gehienak baino komenigarriagoa da haiku idazkerari, jatorrizko niponiar hizkuntzatik hurbil den soinu bat ekarriz», idazle honek nahi duen moduan.

Aproposa ez du soinuak soilik egiten, haiku kontuetan «zen» filosofiak zeresan handia baitu. Eta adibide gisa irakur dezagun liburua zabaltzen duen lehen haikua:

«Kaiku, haiku:/ Kaiku zaharra/ Artzainaren etxolan,/ Asaben tresna» (17).

Lortu du lotura fonikoa, baina ez dirudi maila berdinean dagoela deskribaketaren eta metaforizazioaren arteko jautzia.

Haikuak, eta hau ere argitarazioaren aldeko lorpena da, lau hizkuntzatan eman dira: euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez. Orohar, Aillet-ek zaindu du metrika, begi zolia du eta esku fina. Badu aurrehistoria, euskal sinbologia eta asaben jeinua adierazteko gogo bizia. Badu puntu bat landazalea, baserriak eta baserriarrak goraituz agertzeko modua.

Hala ere, haikuz osaturiko liburu batek badu monotonia-arriskua, eta hortik irten nahian agertzen da Aillet, bai metafora

berriak sortuz: «Ibai lasterra/ Martinarrantzalea/ Tximist urdina» (28), sentsazioen aberastasunean sinetsiz: «Iratze ona/ Mendiko apaindura,/ Urre berdea» (37), eta aliterazioak gora egiten duen poema ximplea osatuz: «Txistua eta/ Tunttuna jotzen ditu/ Txabik gartsuki» (73).

Asko dira poemaren laburtasunez esanahia poemapeko oharretan aurkitzen duten testuak. Gradazioa da haiku guztien giltza, idazleak bilatzen duelarik irakurlea zintzilik uztea irudi baten aurrean. Zalantza dut Aillet-ek ez ote duen maiz irudiaren ordeztasunaren deskribaketaren teknika aukeratu: «Donajakue bidea: Izuran zehar/ Ospitalepetik/ Lizarraraino» (26), edo aipamenera usu joan: «Picassoren *Guernica*: Dolu oihala!/ Beste ikurriña bat/ Munduan zara!» (42).

Haikua den genero irristakorrean borondaterik onena ez da aski irakurlearen gogoia ekialdeko filosofian nagusia zen bakepuntura eramateko. Ez dakit, gainera, honetan bezala: «Herriaren maitasuna: Mendi maiteak!/ Etxe zuri ederrak!/ Zer zoriona» (85), ideia eta irudi ezagunen erabilpenak ez ote duen haikua erdibidean utzi.

Bariku-gauak

Ez dakit poesiazale eta demokraziaizale garenok kandela eusteko baimenik daukagunik Urtzi Urrutikoetxearen *Borroka galduetatik gatoz* liburuaren irakurketan. Mikel Aldalurrek desberdin pentsatzen dugunoi baimena kendu badigu ere, kritika egiteko bide nabarmenak eraikiz bide batez, liburuaren erosi dudanez badut eskubiderik zer irakurri dudana azaltzeko.

Liburu horrek badu alde ideologikoa, eta berau hain da ezaugarria (gazteak, kale-borroka, Oldartzen ponentzia), ezen liburuaren aipamen ideologikoa nagusiak aipatuz («Gure auzunetan merke kotizatzen da duintasuna», «borroka galduetatik gatoz eta traido-

reen gezurrezko bakea baino ez dugu ezagutu»), arazoa ez dugu garbituko, baina lasaia go hitz egin dezakegu.

Eroso bizi den nire belaunaldiaren aurka altxa da Urrutikoetxearen poesia. 68ko iraultzaren osteko suntsipenaren ondoren, gazte baten ezinegona adierazi nahi du liburuak. Hiperbolea omen da gaurko testu konprometituen ezaugarriarik behinena, eta hiperbolearekin jolastu da hemen, garbi ez baita geratzen gaurko belaunaldiaren keax («Gazteon errealitatearen argazki bat poemetan»), edo gazte batenak, edo talde batenak diren liburuan agerturikoak. («Nire mailan ikusi dudana hartu dut»).

Hiperbolearen eta egunerokotasunaren artean, argitaletxeak agindutakoa gertatu da nigan: liburuak ez nau utzi aiherga. Irakurketa politikoa, bistan da, badago liburuan, bera da gunea, baina behingoz, marginalitatearen alde agertu eta ertzetan geratu dena irakurri nahi dut, bazterraren irakurketa proposatu nahi nuke.

Batasun-hariak

Teknikaren lehen bertutea liburu batu eta osatu gisa aurkeztea dugu: mendian istripuz hildako lagunei omenaldia egin ondoren «Sei botila huts», bigarren sailak, «Botilen etiketak», maitasunaren eta bariku-gaueko borrokaren inguruan eratuak, eta bestetik «Botila bat gasolina» izeneko sail gogorak, eta ideologikoki argien adieraziak, «Azken koktelak» deituriko alde irekiagoan dute bukaera. Denak botilaren esanahiaren inguruan. Botila, lehen erreferentzia gisa, kale-borroka; noizedonoiz, pub-etako garagar-doaren argipean; inoiz, botila komunikazioaren metafora da, beste norbaitekin hitz egiteko bidalitako garrasiaren metafora.

Botila batasun-haria dela, garbi dago liburua irakurtzen duen edonorentzat. Sotilagoak dira beste hari bi. Komunikazioarena, lehena, musikarena gero.

Gizaki biren arteko esan beharrak hasten ditu lehen saileko hainbat poema: «Iluntzeko albistegietan iragarri dizute, laztana» (19), «Telegrama berriak iritsi zaizkigu» (20), «Zuk, aldiz, mezu berezia hedatzen duzu» (21), «ez dute emititu zure etorreraren iragarpena» (22), «Brisara jelatu honek gutun bi ekarri dizkigu» (25), «mezu sekretuak xingletzen dituzu» (28), «como gasto papel» (30). Esanahia, aurkitu nahia, komunikatu, esan: horixe da behin eta berriro adierazten dena lerroetan, agian «harrizko mapa honek esanahiaren bat» bilatu nahi duelako.

Bigarren sailean, lehenaren bukaeran agertzen den joera bada ere, denboraren tratamenduak batasuna eman dio testuari: «Dolujaka jantzirik altxatu da artizarra» (54), «kamuflaje arrea jantzirik sartu zaigu negua etxean» (56), «Saso berrietan» (59), «Egunargia begiztatu eta zoragarri iritzi zenion» (68).

Musikak eratzen du liburuaren batasun-haririk finkoena. Elkarriketa luze batean aitortu du idazleak nolako garrantzia duen poesian musikak: «Garai bateko nire poemak hartuta, kantuetako hitz hutsak ziren, plagioak, guztiz aldatutako kantuak».

Ez naiz ni hasiko hemen zein letraren eragina agertzen duen poema bakoitzak aztertzen. Baina ez da azterketa sakonik behar musika-tresnen eta musikaren aipamena etengabea ikusteko, batez ere liburuaren azken aldean: «xirula bat eta gitarra desafinatu» (21), «musika tresnak» (60), «Whistlearen doinu puruak» (79), «bluesa» (81), «Gitarra» (83). Guztiak baina, irakurketa bikoitza eragiteko: debekatu dituzten kantuak (zeintzuk?) kantatzeko eta muga «kantuen sintesia» lortzeko. Idazleak esan duenez, «markatua utzi nauten gauzak ekartzen saiatu naiz».

Hariok, edo firuok, josi dute liburuko mataza garbia hiru sailetatik landa.

Egunerokotasuna

Santutxu den paisaia hiritarrean altxatu da poetaren boza. Badu joera epikorik horrek, erromantikoa, «eroa», «belaunaldi baten keak» –nahiz eta talde batenak izan– agertzea omen da liburuaren helburua.

Hori lortzeko egunerokotasunak (ingelesezko hitzak, jantzie-tan eta marketan jarritako arreta, iraultza marka komertzialetan! dudarik gabe 68koen beste traizioa!) zeresan handia du, sinesgarria egiten dute-eta liburua. Maitasunetik hasi eta gaueko bakar-tasunaren aitorten ironikotik pasa eta egunean egunean hirian aurkitzen diren elementuetara helduz, eraiki da poesia. Badakit agian ideologia aldetik ez direla markatuenak, baina institutuko bizitzaz egindako poemak nabarmenak egin zaizkit.

Egunerokotasunaren alde egin du bizkaierazko fonetismoak, gutxienez poema bitan agertu denak. «Kanta bakarra Ikernerentzat» (15) poemak mugarik gabe erabili ditu halakoak, mugatua-goa da «Zuri eskribidu behar deutsadala dinostee»-n. Eguneroko-tasuna ez da deskripzioa soilik. Sentipenarekin lotuta, batez ere bakardadearekin, ikaragarritzko indarra hartu du. Errealismo zaka-rraren zantzuak? Ziurrenik.

Liburua irakurtzen ari nintzela askotan etorri zait gogora Ga-rikoitz Berasaluzeren liburua. Gaiak, hor nonbait, antzera datoz, ahotsa desberdina izan arren. Horra:

– Maitasuna eta borroka errota bakarrean ehotzea:

«Sexua eta argitarazioa kantu beraren irakurketak dira, maitasunaren eta iraultzaren idazlanak biltzen ditu» (51).

– Musikaren garrantzia:

«Kantuetako letrak erabiltzen nituen oinarri bezala. Gaur egun poetika guzti hori talde pila batek dakar, eta hortik askok edaten dugu».

– Egunerokotasunaren garrantzia:

«Ikasketa kontuak, maitasuna, droga ingurukoak edo herri honetan gertatzen diren gauzak».

– Nork bere burua bitimatzat agertzeko joera, eta puntu horretan 68koekin batera datozela ikusteko toki handiagoa beharko nuke.

– Sarrionandiaren poesiak sorturiko lilura, asko behartzen banauzue, Irlandak sortzen duen geriza.

– Eta manikeismoaren joera.

Gaien aldetik (bide batez, Urruzun0 sariaren irabazle zenbat dira idazle eta poeta gazteen artean?) batasun-susmoak badira ere, Urrutikoetxeak abantaila duela iruditzen zait, batasun-hariak ir-moago erabiltzen dituen neurrian, argiago hitz egiten duen neurrian. Kale-borrokaren goraipamenarekin batera, abanguardiarene iruditeria erabili da, baina zinemaren teknikarekin nahastua.

Baina zatiak josi egin behar eta aditz nagusiaren errepikapena da abangoardiak asmatu zuen teknika poema tinkotzeko eta esanahia ulerterrezago egiteko. Adibidez, horrela jokutzen du 77. orrialdeko poemak: «Demagun... eta demagun... orduan pentsa genezake... edo pentsa genezake» eta horrela joskerak marrazten dio bidea semantikari.

Dena dela harritzen eta hunkitzen nau egunerokotasuna eta sentimenduen mundua lotzeko joerak. Nabariegia da joera giza-kiaz ari diren poemetan, baina badira bertso gogoangarriak ildo horretan:

– «odolaren borborrean zure gaindosiaren atautak baino ez dagozela?» (20).

– «Bakardadea igo da nire autobusera gaur» (70).

– «Bakardadea izan liteke hilotz bidean datzan erromesa» (88).

– «Autobus geltokiko kafetegia hondamendiak laztanduriko desamodiaren tenplua da».

Ez dakit etorkizunean (agian, erorkizunean?) zer izango den, baina irakurle honek konfidantza gehiago du bakartasunaz eta heriotzaz, edo eskola kontuez (hauek pasako badira ere) hitzegiten duen poetarengan eta ez bariku-gauekoen ari denarengan, nahiz eta hau, politikoki bere inguruarekin baterago etorri.

Beste baterako geratzen da beste eztabaida bat: gaia ere artearen aldea den edo ez. Hala ere, literaturaren arazoa bikoitza da. Alde batetik, literaturaren barnean literaturtasunean kokatzen da adierazpidea. Bestetik, literaturak gizartearekin duen loturan agertzen du bere izaera, eta ezin dugu gizartetik, historiatic eta politikatik banandu. Eta hau dela eta, Camus-en hitz batzuk ekarri nahi nituzke hona: Camus-entzat zentzu absolutuan askatasuna eta zuzenbidea elkarrezinak dira: askatasun absolutuak indartsuek ahula akabatzeko duten ahalbidea dakar. Zuzenbide absolutuak askatasun guztiak mugatzen ditu. Liburu honetan askatasun absolutuaren alde eginez, zuzentasunaren aurka egiten dela uste dut.

Ahotsaren epela

Bitoriano Gandiagaren liburu batez eman dio hasiera Ereinek bere poesia sorta berriari. Gogoratzekoa da argitaletxeak nola zaindu duen poesia sailen hasiera. Juan Mari Lekuonaren *Ilargiaren eskolak*-ekin hasi zen sail zaharra, eta Gandiagarekin datozkigu oraingoan.

Ahotsik behartu gabe Gandiagaren lantegiko emaitza da, esan nahi dut poesia-lantegia eman duela argitara. Aspaldiko bertso zenbait, erdi ezkutuan agerturiko beste zenbait, irudi, marra, zirriborro, inpresioak... Errekuperazio-lana, zalantzarik gabe.

Liburuaren izenburuak argitan uzten du lanaren tonua: «behartu gabe» egindako maisutza-lana da agerturikoa, Gandiagaren

ahots nagusia bere osoan ezagutzeko materiala. Beste norbaitek –Dionisio Arrutik– kopiatu eta zaindutakoak eman ditu argitara idazleak.

Denetarik dago, poetak berak hitzaurrean gogoratzen duenez, «Ahotsik behartu gabe» honetan: *Olerti* aldizkarira bialduriko poemak: «Argi oneko poema» (1963), «Olertiko beste batzuk» (1967-8), *Seminario al descubierto* aldizkarian agerturikoak (1970-5), «Eupadak», (1985-8), «Aza eta nahaste» (1985-9). Gora-behera handiko liburua beraz.

Testigantzaren eta lekukotasunaren, dokumentuaren balioa ematen diot nik, batez ere, liburuari. On da, literatura batek bere neurria hartu duenean, idazle nagusien lan txikiak, erdi ahaztuak ateratzea ere.

Hortaz aparte, ezin da ukatu, zirkunstantzia-poemekin batera, Gandiagak, izadiko lirismoa, izadiaren irakurketa edo sublimazioa egiten duenean ematen duela onena lehen garaian. Bigarrean, ordea, lirismotik urrunago, aforismotik hurbilago, Gandiagaren kezkak azaldu zaizkigu, joskera eta hitz-joko dirdaitsuenean. Hizkuntzaren galera-kezkak jo ohi du sarri Gandiaga, ezinegonak, zalantzak. Eta bertso biluzi eta sarkorretan erakutsi ohi du bere barnea:

«Batek opa dauan legez,
gustu–gustura inoiz ez;
ondo garenean ere
harantzagoko zerbaitez
egin daroagu amets» (137).

«Pasatzen gara ta ez da
egundo inon geratzen
utzi beharko genukeen
eho genuen ehuna» (142).

Poemaliburu honek badu beste berri pozgarririk liburuarekin batera argitaratu den konpaktoan. Idazleak bere ahotsa jarri die zenbait testuri. Baina bere baliorik handiena Gandiagak bere lanaz egin duen antologia-saiakera litzateke. Inoiz Bitoriano Gandiagak bere-bereak zituen poemetaz hitz egin du, gustukoen dituenak edo, aipatuz. Konpaktuak beste horrenbeste adierazten du: idazleak bere lanetaz agertzen duen barne-ikuspegiaren agerpena.

Berriro dokumentua, bai! Baina ez nuke aipatu gabe utzi maisuaren trebetasuna, ia bat-batekoak diren poemetan. Inpresionismo xumean esku nagusia agertu du Gandiagak, eta liburu honek ere maiz agertu du zer izan diren beraren poesia-sena, idazkera idealista, hizkuntza-hausnarketa. Maisu handiaren itzalaz egingo dako *Ahotsik behartu gabe* apala.

Soneto beroak

1996. urtean Irun Hiria Sariketa irabazi zuen Luis Mari Mujikak *Nire soneto beroak* poema liburuarekin. Izenburuak sonetoz hitz egiten badu ere, ez dira guztiak sonetoak; idazleak molde bitan banandu ditu hemengo lanak: sail bakoitzeko hasierako eta bukaerako poemek bertso librea erakusten dute poesia-molde nagusi, tartean, bai, tartean sonetoak daudela. Lau zati nagusitan banandu du idazleak testua: «Lehen kanta», «Landa eta keraren berbakuntza», «Gauzakiekin mintzo», «Hitzaren beste ertzak».

Izaditik gizakira, idazleaz hauxe idatzi dute aurkezpenean: «natura eta giza aldarteen ispiluak nabarmenduz, inguruen oinarrituriko ildo beroak isladatzen dituela». Izadia gizadian gauzatzeko ahaleginak izan ditu euskal poesian zenbait jarraibide, Lizardirena, adibidez, eta nabarian dira horren oihartzunak liburuan, edo Juan Mari Lekuonaren azken liburukoak, eta honen aztarnarik ere bada testuan.

Formaren nagusitasunak, metrikak, soneto-generoak agintzen duela liburuan esango nuke. Idazleak aurkeztu ditu poesian neur-tua egin beharrekoaren aldeko poetika-iritzi batzuk, noizean be-hin, eta noizean behin baino gehiagotan, han eta hemen, zabaldu. Formaren eraginak zulatu du berriro Mujikaren luma.

Sonetoaren tradizio urria dugu euskal letretan eta liburu hone-kin Mujikak ildo hori luzatu nahi du: Lizardi, Lauaxeta, Davant (hauxe dugu gainera euskal sonetoaren historiagile gure artean)... eta orain Mujika.

Ikuspegia da, behar bada, kontua: poesia deskribatzailea ema-ten du lehen irakurketa batean, neurriaren agindupean ondo taiutua, irudiagatik dioen moduan, «zatar zena bilakatu eder» egin gogoz aritu da Luis Mari Mujika. Deskripzioaren azpian sinboloen bila joan dela idazlea esan genezake, baina bigarren irakurketa hori ez zaio irakurlaren irudimen-munduari uzten, idazleak berak ematen duelarik, gehienetan, zein den irakurketa. Bigarren ezaugarri bat ere badu liburuak: tonuaren arazoa. Na-barmenki bi dira, eta kontrajarriak, sonetoetan erabili izan den tonu zaindu, klasikozale, eta, nahi bada, hotza, eta bertso libree-tan erabilitako, tonu surrealista (surrealismo xumea), poetaren nitasunean oinarritua, edo, neurri baten, puztua. Biak, agian, intentzio beraren alde bi dira.

Izana eta izenaren bila doan soneto beroek (muga beroen oroimena dakarkigunek) hitzari buruzko hausnarketa dira neurri batean, metafora, eta metaforen metafora behin eta berriro sor-tuak:

izanaren kariaz jabetzea
izanean kokatzea
dena itsumustuan eta trumilka bikain eta zabal
gozo eta mazal

materiaren dimentsio berritan
eskaintzea
nahiz sonetoaren soin hertsia hautatu.

Inspirazioaren eta lanaren artean, irakurketa eta hausnar-
ketaren artean mugitzen dira muga beroen soneto beroak.

BIBLIOGRAFIA

- François Aillet: *Haikuak eta kaikuak*. Baiona, Maiatz, 1997.
- Patxi Ezkiaga: *Zauriaren salmoak*. Donostia, Bermingham, 1997.
- Bitoriano Gandiaga: *Ahotsik behartu gabe*. Donostia, Erein, 1997.
- Iñigo Iruretagoiena / Mirari Garcia de Cortazar: *Denboraren memorian/
Oroimen bizi eta margulduak*. Donostia, Bermingham, 1997.
- Koldo Izagirre: *Non dago basques' harbour*. Zarautz, Susa, 1997.
- Felipe Juaristi: *Galderen geografia*. Irun, Alberdania, 1997.
- Xabier Olaso: *Gauaren magalean*. Donostia, Bermingham, 1997.
- Jose Luis Padron / Karlos Santisteban: *Itzal izotzezkoan bildurik/ Izatea
zantzuetan*. Bilbao, Banco Central Hispano, 1997.
- Asier Serrano: *Bada hiri gorri bat*. Donostia, Kaiero-Elkar, 1997.
- Urtzi Urrutikoetxea: *Borroka galduetatik gatoz*. Zarautz, Susa, 1997.
- Auxtin Zamora: *Haizea ostoetan*. Baiona, Maiatz, 1997.

Liburu-iruzkinak



ANTTON LUKU
BERNHARD SCHLINK
IGOR ESTANKONA
BOROBÓ

INGERU EPALZA

Antton LUKU. 1998. *Botoiletan*

Baiona: Maiatz

Errobi gainekaldeko memoria zapartatua

Ekologistetan [...] bi motakoak badira, planetak aipatzen dituztenak, han eta hemen ikusi espezie tipikoenak, eta baratze-kantoi bat arakatzen dituztenak, eremu tipi horretan biziaren infinitua kausituz. Kontziente naiz bigarren kategoria honetakoa naizela. Sinesten dut ere bigarren mailako idazleen baitan, anitz baita nornahik ikusten duen xehetasun soil batean.

Antton Lukuri horrela aditu genion, iazko Galeuzkan, eta horrela irakurri ere bai *Hegats* aldizkari honetako 19/20 zenbakian, ezterenzubiarrak Beloken emandako mintzaldi gogoangarria argitaratzean. Haren antzerki lanez gozatzeko parada izan ez dugunok, «nazioa» hitzetik hortzera erabiliagatik ere, protekzionismoa indarrean da gurean, behialako aduanetan bezain zorrotz. Anttonen hitzak egiaztatzeko bitarteko falta. Berriki etorri zaigu: «Botoiletan» narrazio bilduma, *Maiatz* Baionako argialetxeak joan den apirilean plazaratua.

Egileak ez du nahi izan bere «baratze-kantoiak» –bere Macondo, bere Obaba– bertizenez mozorrotu. Argi adierazten digu, liburuari atari egiten dion aurkezpen-narrazioan: «Errobi gainekaldeko memoria». Errobi ur-handiak –ugaldeak, ibaiak–, Lapurdiko lurretan zabaldu eta gazte-oldarrak mantsotu baino lehen, Nafarroa Behereko bortuetan beheiti egiten duen bidaiari segi-

tzen dio, batik-bat, Luku arraintzariaren begiak, bera ere, «arrain mitiko ahantzi baten menturan». Hegoaldean hain maite ditugun kantutegietako Iparralde bukolikoa, hortaz? Ez, batere. Luku «erre-serbatik» ari zaigu. Lukuren lumari (h)abia ematen dion natur eta giza paisaia krisialdian amilduriko gizarte bati dagokio; antzaldatze bizian abiatu, molde zaharrak arruntik baztertu ez eta berriak guztiz onartu ez dituen gizarte bati.

Narrazioen edukia ez ezik, hizkera ere antzaldatze horren ispilu da, tradizio zapartatu baten oihartzun, desagerpenaren eta berritu behararen arteko dialektikara beharturik, ongi nahiz gaizki bere aterabideak aurkituz doan hizkuntza bizi baten lekuko. Lukuren hautu konstziente horrek –konpara ezazue, liburu hau, arestian aipatu hitzaldian erabilitako idazmoldearekin– zenbait euskara-zaindari itzal handikorengandik hartu duen gaitzespen sutsuak behin berriz erakutsi digu zailagoa dela ilargiari begiratzea, hatzari baino.

Inguramendua horixe izanik, eskertzekoa da egileak hautatu duen ikusmoldea. Lukuren «botoilak» Errobiko ur uherrez beterik daude, ez negar gardenez. Hemen inor ez zaigu denbora joanen kariaz lantuz ari. Irakurleak ez du epikarik, ezta, aunitzetan, tragediarik ere aurkituko. Tesirik baldin bada, nik ez dut harrapatu. Literatura handiak ez ditu osagai horiek guztiak nahitaezko, hunkigarria eta egiatzkoa izateko. Aski dira malenkonia amine bat, gaixtakeria puska, begi txorrotzak eta egun eta hemen kontatzeko nahia eta trebezia. Lukuk horietarik guztietarik ditu. Eta horrela du jauzi egiten, ur arriskutsuetara. Böhlen gisara, kontakizun zapartagarriak moldatzen ditu, lehen behakoan hutsalak diruditen pasarteen gain. Edo, Poek bezala, arruntkeria batetik abiatuta, giro asaldagarriak ehuntzen, irakurlea hatsik gabe uzten duten bukaeradun istorioen estalki. Neorruralismo beltzera lerratzen delarik ere, Atxagaren edo Mujika Iraolaren lan zaharren minik ez du.

Gainerakoak gutietsi gabe, hamabi narrazio hauen artean, bada dira bizpahiru: «Zakur-ziloa», «Piñolet», «Bertzetan», gure ipuingintzaren edozein antologiatan sartzeko merezimendua dutenak. Kritikak kritika, eta ez(in)ulertuak ez(in)ulertu, 1998 honetako uzta ederra hobetzera etorri da liburu hau. Mugaz haratako Euskal Herrian urte frankotan idatzi den hoberenatariko bat, modernoenatariko bat, literarioenatariko bat noski. Ni gose utzi nau. Horrelako istorio gehiago irakurri gogo dut. Errobi gainekaldekoak eginda, zaharrago eta maiteago dituen bezala, «azken izokinen bila» ariko zaigu agian Luku, «arrain mitikoa» atzeman eta botoiletaratua oparitu digun gisa berean.

Antton, ez iezadak karrika egin.

Bernhard SCHLINK. 1997. *El lector*

Anagrama

Sarritan esan izan da idaztearen abentura bi eratakoa izan daitekeela. Bata, kontatzeko eraren abentura da, hizkuntzari eta literatur elementuei ematen zaielarik garrantzia. Bestea, kontakizunaren abentura da, eta idazleak kontatzen duenarekin gozatzen du. Biak ala biak dira abentura interesgarriak. Biak izan daitezke dibertigarriak edo aspergarriak. Biak aberatsak edo pobreak. Eta abentura biak batu daitezke abentura bakar eta erraldoia josiz. Baina, gaurko honetan, eta aukera eman didatenez, kontakizunaren abentura kontatzeko eraren gainetik jartzen dutenen alde egingo dut. Hitz potoloak irakurrita asko ikasteko aukera dago baina liburu bat irakurtzerakoan hiztegia etengabea aldamenean izatea traba eta oztopoa dela uste dut, kontakizunaren haria galdu eta hitz ezezagunen artean aspertzeko arriskuarekin.

Horrela bada, uda honetan eskuartean izan dudana liburu eder bat ekarri nahi nuke lerro hauetara. Idazlea, izen ahoskaezina duen alemaniarra da: Bernhard Schlink. Liburua, berriz, *El lector* izenburuarekin itzuli dute gaztelaniara. Schlink, Berlingo Humboldt Unibertsitateko Zuzenbide Publiko eta Filosofia irakaslea izateaz gain, epailea ere bada eta alemaniar konstituzioko kide bermatzailea. Zergatik egin dudana egilearen biografia txiki bat? Ba, hain zuzen ere, baduelako eraginik jarraian komentatuko dudana liburuan.

El lector liburutik erakarri ninduen lehen gauza izenburua izan zen eta baita laburpen modura ematen zen azalpena ere. Honela zioen: «Bikotearen amodio erritualak ordena aldezina zeukan: irakurketa ahots ozenez, dutxa, maitasuna eta, gero, ohean nagikerian egon emakumeak lo hartzen zuen arte. Michael-ek 15 urte zituen eta arratsalde haiek bere bizitzako unerik zoriontsuenak bezala gogoratuko zituen beti». Batetik, bitxia egin zitzaidan maitasun edo sexu-harremana 15 urteko mutil baten eta 36 urteko emakume baten artean izatea. Orain artean gizonezko heldu eta neskatxa nerabeen arteko abenturak baino ez ditut ezagutu eta honako hau alderantziz izateak erakarri ninduen. Horrez gain, bazegoen bikotearen artean izugarri gustatu zitzaidan zertzelada txiki bat: oheratu aurretik, beti, mutilak emakumeari libururen bateko pasarte edo kapitulu bat irakurtzen zion. Horrela bada, Goethe, Dickens, Schiller edo Tolstoi bezalako idazle handiak bikotearen sexu-harremanetan ezinbesteko protagonistak bihurtzen ziren.

Aipatutakoak izan ziren tentatu ninduten arrazoiak, eta gustura hartu nuen liburua abuztuko egun eguzkitsu, luze eta argietan hondartzan irakurtzeko.

Baina *El lector* maitasun-istorio bat baino askoz gehiago da. Egileak ondotxo menperatzen duen gai batean barneratzen gaitu poliki-poliki, haria eten gabe, emozioa mantenduz une oro eta atal batetik bestera ematen den aldaketa batere traumatikoa izan gabe. Schlink-ek, luma bakun baina aberats baten bitartez, irakurlea bereganatzen du hasiera hasieratik eta orritz orri gertaeraren il-doari eusten dio, noizean behin ustekabeak sartuz.

15 urteko mutil gazteak, Michael-ek, 36 urteko emakumea, Hanna, kasualitatez ezagutzen du eta egun batetik bestera haien erlazioa harreman sexual bilakatzen da. Baina, halako batean, Hanna desagertu egiten da, inolako arrastorik utzi gabe. Handik

zazpi urtera Michael zuzenbide ikasketak egiten ari den mutiko gazte eta argia da. Mintegi baten parte hartzen ari dela, hilketa nazien inguruko epaiketa batera joaten da entzule gisa, eta han, epaituen artean, Hanna dagoela ikusten du harriduraz. Epaike-taren une batean, Michaelek berarengandik aparte Hannari liburuak ahots ozenez irakurtzen zizkioten beste batzuk ere bazirela jakiten du eta, poliki-poliki, oroitzapenetan atzera eginez, hainbat ñabar-dura txiki berreskuratuz eta batuz, Hannaren sekretuaz jabe-tzen da.

Ezingo dut hemen azaldu zein den sekretu hori baina bai esan dezaket Schlink-ek izugarri ondo menperatzen duela teknika. Ondo baino hobeto daki zer, non, noiz eta nola kontatu eta atzetik aurrera ekarritako zertzeladak nola josi. Hiru atal nagusi-tan banatua, atal bakoitzak istorio txiki bat kontatzen du, aurre-koaren jarraipena dena eta hurrengo atalaren hasiera. Istorioa zoragarria da. Maitasun istorio batekin hasiz, nazien kontzentra-zio-esparru batean zaindari egon zen emakume baten bizitza kon-tatzen digu, guretzat oinarritzkoak diren hainbat balore kolokan jartzen ditu eta arruntak diren pribilegioak ez izateak bizitza nola baldintza dezakeen azaltzen digu. Inongo ondorio erabakior, konplexu eta aspergarririk eman gabe, hitz astun eta potoloetan denbora alferrik galdu gabe. Errealitatea eta irudimena batuz. Sinplea baina ederra. Maitasuna, erotismoa, bekatua, justizia, gerra, intriga... Hori guztia eta askoz gehiago aurki ditzakezu Bernhard Schlink-en eleberrian: *Der Vorleser (El lector)*.

Igor ESTANKONA. 1998. *Anemometroa*

Susa

Bibotzaren azpiko hitzak

«Harearen azpian egon behar du hitzen batek beldurrik ez diona sinpletasunari.» Hitz horiek irakurri dizkiogu Igor Estankonari bere lehen poema-liburuan eta, egia esateko, egileak egin duen hautuaren adierazgarri dira nolabait hitzok. Sinpletasunaren aldeko hautua, alegia. Sinpletasuna, haatik, egileak dioen moduan, ez da hiztegi pobrearen sinonimo gisa ulertu behar. Gauzak zehatz, zuzen, barrokotasunik gabe adieraztearen sinpletasuna eta indarra da liburu honek duena.

Lau atal ditu liburuak, azkenengoa epilogo gisako atal laburra baldin bada ere. Lehenengo atala, *Noiz datorren Momo* izenekoa da aipatu berri dugun sinpletasun horretatik gehien aldentzen dena. Bitalismoa darion atala da, indartsua, baina, halaber, ondoren datorren bizitasunaren eta indarraren erakusle gisa irakurri ditugu guk. Bertan irakurriko ditugu, ordea, hurrengo ataletan bezala, gure poesian azken urteotan idatzi izan diren amodiozko poema ederrenetarikoak. Tristuratik idatzitako poemak dirudite, baina badute alaitasun puntu bat ere. Ezkortasunak ez du lekurik. Atal honetan, dagoeneko, idazleak irudiak eraikitzeko eta hauekin jolasteko duen trebetasuna agerian geratzen da.

All songs recorded live in Autumn, 1997 izeneko atala ulerterrazagoa da. Eguneroko bizimoduari heltzen dio bertan idazleak eta sentimenduak ere sinpleagoak dira. Metaforak eta irudi surrealis-

tak, hala ere, areagotu egiten dira. Poemak, dena dela, oso narratiboak dira, eta erritmo bizkorra dute erabat. Batzuen hasieran zenbait egileren aipuak agertzen dira, nolabait idazlearen gustukoak direla gogoratuz. Ramon Saizarbitoria eta Jon Mirandekin batera, esaterako, Luis Garcia Montero dakarkigu testura Estankonak. Garcia Monteroren eragina nabaria da liburu guztian barrena baina, hau gaindituz, bere mundua, bere liburua, bere anemometroa eraikitzen jakin du gazte artearrak. Ziur, aurrerantzean, Garcia Montero beharrea erreferentzia zuzenagoa eta ezinbestekoagoa izango dela Igor Estankona hurrengo euskal irakurleen belaunaldientzat.

Hirugarren atalak, *Inperio garaia* deituak, liluratu gaitu. Mundu klasikora jotzen du idazleak egungo kontuentzat azalpen bila eta irakurketa politikoa erantzuten du ere lekua uzten duten poemak aurki daitezke bertan. Estankonak, ordea, ez du segurtasun inpresiorik ematen, ez maitasunean, ez heriotzaren aurrean, ez politikan eta ez inon. Denok garen moduan, kontraesanez betetako pertsona dela argi eta garbi adierazten du poemaren bidez. Zintzoa da bere buruarekin eta egia idazteko ahalegina egiten du, kontraesanari ezinbesteko lekua eginez, beraz. Beldurra, bakardadea, heriotza eta maitasuna dira gai nagusiak.

Epilogo gisako *Atzeko atea*, hasierara itzultzeko bidea da. Liburuari batasuna ematen dio horrela egileak. Nabarmena da bertan duintasunez mantendutako ezkortasuna, liburu guztiaren ispilu, azken esaldia, kasu: «Horregatik usteltzen da ume bat nire barruan». Atal laburra da, hiru poema bakarrik dituena.

Mendearen amaieran argitaratu den liburu honen bidea egingo badu hurrengo mendean sortuko den euskal poesiak, irakurleok badugu gustura egoteko arrazoirik. Aspaldian ez baikenuen irakurrik honelako poesia eder eta indartsurik. Benetako poemak dira hauek. Egiatzkoak bezain gazteak. Bihotzaren azpiko hitzak.

Manuel RIVAS. 1998. *O lapis do carpinteiro*

A pista de *O lapis do carpinteiro*, *A Nosa Terra*

Seguirlle a pista de *O lapis do carpinteiro* é facer, nun parágrafo, a breve historia do anarquismo galego: «Ese lapis pertencera a Antonio Vidal, un carpinteiro que chamara á folga polas oito horas e con el escribía notas para *El Corsario*», sinala Manuel Rivas ao encetar o destino do seu máxico lapis.

Efectivamente, Antonio Vidal Villanueva encabezara, o nove de Xullo de 1883 (no verao no que visitaron Galicia os reis Alfonso XII e María Cristina), a folga de catrocentos carpinteiros, afiliados a Federación Coruñesa de Traballadores, pra esixir as nove horas de xornada, sin pedir aumento de salario. Lanzando o primeiro periódico anarquista coruñés, *La Lucha Obrera*, pra popularizar a folga dos carpinteiros; que se repite en abril do ano seguinte, inrerrumpíndose pola acción da policía.

Mais, *La Lucha Obrera*, seguirá saíndo ata o outono do 84, e reaparece no maio de 1886 (cando xa gobernaban os liberais, tras a morte de Alfonso XI), tamén publicada polos carpinteiros coruñeses, sempre con Antonio Vidal á cabeza; liderazgo que se mantería nos anos sucesivos, nos que a represión do obreirismo foi tan dura que ocasiounou a desaparición de *La Lucha Obrera*, en xaneiro de 1887.

Nembargantes, o 4 de Maio de 1890, domingo, data histórica nas reivindicacións proletarias, pois verificáronse grandiosas manifestacións en Madrid (na que falou Pablo Iglesias), París e outras cidades europeas, celebrouse en A Coruña unha magna assemblea pública, convocada pola citada Federación. O secretario dela, «o carpinteiro Antonio Vidal, destacado militante da década anterior, foi o único orador. O que se ía converter axiña no cerebro da folga coruñesa preconizou a folga xeral ata conseguir as oito horas de xornada». A folga escomenzou ao día seguinte, dando por resultado a aparición dun dos principais semanarios ácratas finiseculares: *El Corsario* (estes datos atópoos nas fontes do meu aínda inédito opusculo, *Orto do socialismo en Galicia*).

Alí escribiría, co seu lapis de carpinteiro, Antonio Vidal Villanueva, non só notas informativas, senón tamén editoriais e outros artigos, pois por algo foi director de *El Corsario*. Moitos anos despois regalaría Antonio Vidal o seu lapis –asegún a fabulación de Manuel Rivas– a «Pepe Villaverde, carpinteiro de ribeira, libertario e humanista». Pero eu atévome a interferir no xenial relato, imaxinando que aquil lapis do carpinteiro coruñés pasou polas mans doutros carpinteiros santiagueses, antes de chegar ás de Villaverde xa que iste sería moi novo cando Vidal finou.

Non sería nada raro, por exemplo, que o sindicalista herculino lle fixera ao seu compañeiro compostelán, Xosé Pasín Romero, o meiró daquil instrumento gráfico (de grafito) de traballo, pois deberon ter moita relación nas valentes campañas de axitación obreira que ambos dirixían nas súas respectivas cidades. E á beira de Pasín, experto e eficaz mestre carpinteiro do gran traller de Landeira (o outro do panteón de Rosalía) aprenderon carpintería e sindicalismo Ezequiel Rey Tumes e Xosé Villaverde; quen chegarían a ser directores, entre outras comprometidas funcións sindicais na CNT, da *Solidandade Obreira Galega*.

Nos seus últimos anos, que coincidiron cos de *La Noche*, na longa noite de pedra, contoume Ezequiel moitas cousas referentes á actividade sindical, libertaria e apolítica da organización na que militaba aqñil pequeniño, rexo e listísimo carpinteiro, xa retirado de traballos e loitas. Apolítico, coma il sostña, ata que ao xeito de Anxel Pestaña, aceptou intervir nas institucións publicas, ao triunfar a Frente Popular e ser designado concelleiro da derradeira Corporación Municipal de Santiago, na I Republica: a presidida polo inmolado editor de *Nós*, Ánxel Casal. Así encetara Ezequiel Rey a saber tanto das cuestións urbanísticas composteláns das que foi o meu mellor asesor nos posteriores tempos municipais e tan mestos.

E pode que me contara Ezequiel entón, falando do tráxico sino dos seus compañeiros ácratas Xosé Villaverde e Marcial Villamor, sucesivos donos do máxico e infausto lapis, o motivo de que tivera máis sorte que iles, ao librarse do fusilamento, ou do paseo na cuneta. Se cadra sería que o lapis de carpinteiro que lle deixara o seu mestre Pasín, prestouno despois o clarividente Ezequiel ao prendiz do taller onde traballaban; que non era outro que o raparigo Pepe Vilaverde, o mesmo que cando anos despois morreu fusilado «tiña unha filla que se chamba Palmira e outra Fraternidade».

A Nosa Terra, 1998-8-6

Hegats 21/22

1999ko urtarrilean Nafarroan
inprimatu zen






EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

21/22



Literaturbideak

HARKAITZ CANO.

Salam Aleik, Garikoitz.

JOSEBA GABILONDO.

Joera ez-literarioak modan.

JOSE MARI PASTOR.

Alexandriako bideoteka.

GERARDO MARKULETA.

Herrimin ariketak.

Kritikabideak

IÑAKI ALDEKOA.

Sarrionandiaren ipuingintzaz.

ANDOLIN EGUZKITZA.

Nafarroa eta Literatura.

JON KORTAZAR.

97ko kaiera.

